genieke

zenidake

.....

zenioke

zeniguke

.....

.....

zenieke

zenidakete

.....

zeniokete

zenigukete

.....

.....

zeniekete

hizkidake

.....

hizkioke

hizkiguke

.....

.....

hizkieke

lizkidake

lizkiake/lizkinake

lizkioke

lizkiguke

lizkizuke

lizkizueke

lizkieke

.....

genizkiake/genizkinake

genizkioke

.....

genizkizuke

genizkizueke

genizkieke

zenizkidake

.....

zenizkioke

zenizkiguke

.....

.....

zenizkieke

zenizkidakete

.....

zenizkiokete

zenizkigukete

.....

.....

zenizkiekete

lidakete  
liakete/linakete  
liokete  
ligukete  
lizukete  
lizuekete  
liekete

lizkidakete  
lizkiakete/lizkinakete  
lizkiokete  
lizkigukete  
lizkizukete  
lizkizuekete  
lizkiekete

B3. ....  
niakeen/ninakeen  
niokeen  
.....  
nizukeen  
nizuekeen  
niekeen  
-----  
hidakeen  
.....  
hiokeen  
higukeen  
.....  
.....  
hiekeen  
-----  
zidakeen  
ziakeen/zinakeen  
ziokeen  
zigukeen  
zizukeen  
zizuekeen  
ziekeen  
-----  
.....  
geniakeen/geninakeen  
geniokeen  
.....  
genizukeen  
genizuekeen  
geniekeen

.....  
nizkiakeen/nizkinakeen  
nizkiokeen  
.....  
nizkizukeen  
nizkizuekeen  
nizkiekeen  
-----  
hizkidakeen  
.....  
hizkiokeen  
hizkigukeen  
.....  
.....  
hizkiekeen  
-----  
zizkidakeen  
zizkiakeen/zizkinakeen  
zizkiokeen  
zizkigukeen  
zizkizukeen  
zizkizuekeen  
zizkiekeen  
-----  
.....  
genizkiakeen/genizkina-  
keen  
genizkiokeen  
.....  
genizkizukeen  
genizkizuekeen  
genizkiekeen

zenidakeen

.....

zeniokeen

zenigukeen

.....

.....

zeniekeen

---

zenidaketen

.....

zenioketen

zeniguketen

.....

.....

zenieketen

---

zidaketen

ziaketen/zinaketen

zioketen

ziguketen

zizuketen

zizueketen

zieketen

zenizkidakeen

.....

zenizkiokeen

zenizkigukeen

.....

.....

zenizkiekeen

---

zenizkidaketen

.....

zenizkioketen

zenizkiguketen

.....

.....

zenizkieketen

---

zizkidaketen

zizkiaketen/zizkinaketen

zizkioketen

zizkiguketen

zizkizuketen

zizkizueketen

zizkieketen

B4. ....

banik/banin

banio

.....

banizu

banizue

banie

---

bahit

.....

bahio

bahigu

.....

.....

bahie

.....

banizkik/banizkin

banizkio

.....

banizkizu

banizkizue

banizkie

---

bahizkit

.....

bahizkio

bahizkigu

.....

.....

bahizkie

balit  
 balik/balin  
 balio  
 baligu  
 balizu  
 balizue  
 balie

---

.....

bagenik/bagenin  
 bagenio

.....

bagenizu  
 bagenizue  
 bagenie

---

bazenit

.....

bazenio  
 bazenigu

.....

.....

bazenie

---

bazenidate

.....

bazeniote  
 bazenigute

.....

.....

bazeniote

---

balidate  
 baliate/balinate  
 baliothe  
 baligute  
 balizute  
 balizuete  
 baliete

balizkit  
 balizkik/balizkin  
 balizkio  
 balizkigu  
 balizkizu  
 balizkizue  
 balizkie

---

.....

bagenizkik/bagenizkin  
 bagenizkio

.....

bagenizkizu  
 bagenizkizue  
 bagenizkie

---

bazenizkit

.....

bazenizkio  
 bazenizkigu

.....

.....

bazenizkie

---

bazenizkidate

.....

bazenizkiote  
 bazenizkigute

.....

.....

bazenizkiote

---

balizkidate  
 balizkiote/balizkinate  
 balizkiote  
 balizkigute  
 balizkizute  
 balizkizuete  
 balizkiote



B5. ....	.....
niezaan/niezanan	niezazkian/niezazkinan
niezaion	niezazkion
.....	.....
niezazun	niezazkizun
niezazuen	niezazkizuen
niezaien	niezazkien
-----	-----
hiezzadan	hiezzazkidan
.....	.....
hiezzaion	hiezzazkion
hiezzagun	hiezzazkigun
.....	.....
.....	.....
hiezzaien	hiezzazkien
-----	-----
ziezadan (liezzadan...)	ziezazkidan (liezzazki- dan...)
ziezzaan/ziezzanan	ziezazkian/ziezazkinan
ziezzaion	ziezazkion
ziezzagun	ziezazkigun
ziezzazun	ziezazkizun
ziezzazuen	ziezazkizuen
ziezzaien	ziezazkien
(ikus OHAR B5, or. 2)	(ikus OHAR B5)
-----	-----
.....	.....
geniezzaan/geniezzanan	geniezzazkian/geniezzazki- nan
geniezzaion	geniezzazkion
.....	.....
geniezzazun	geniezzazkizun
geniezzazuen	geniezzazkizuen
geniezzaien	geniezzazkien
-----	-----

zeniezadan

.....

zeniezaion

zeniezagun

.....

.....

zeniezaien

zeniezazkidan

.....

zeniezazkion

zeniezazkigun

.....

.....

zeniezazkien

zeniezadaten

.....

zeniezaioten

zeniezaguten

.....

.....

zeniezaieten

zeniezazkidaten

.....

zeniezazkioten

zeniezazkiguten

.....

.....

zeniezazkieten

ziezadaten (liezadaten...)

ziezaaten/ziezanaten

ziezaioten

ziezaguten

ziezazuten

ziezazueten

ziezaieten

(ikus OHAR B5)

ziezazkidaten (liezazki-  
daten...)ziezazkiaten/ziezazkina-  
ten

ziezazkioten

ziezazkiguten

ziezazkizuten

ziezazkizueten

ziezazkieten

(ikus OHAR B5)

B6. ....

baniezak/baniezan

baniezaio

.....

baniezazu

baniezazue

baniezaie

.....

baniezazkit/baniezazkin

baniezazkio

.....

baniezazkizu

baniezazkizue

baniezazkie

bahiezat

.....

bahiezaio

bahiezagu

.....

.....

bahiezaie

baliezat

baliezak/baliezan

baliezaio

baliezagu

baliezazu

baliezazue

baliezaie

.....

bageniezak/bageniezan

bageniezaio

.....

bageniezazu

bageniezazue

bageniezaie

bazeniezat

.....

bazeniezaio

bazeniezagu

.....

.....

bazeniezaie

bazeniezadate

.....

bazeniezaiote

bazeniezagute

.....

.....

bazeniezaiete

bahiezazkit

.....

bahiezazkio

bahiezazkigu

.....

.....

bahiezazkie

baliezazkit

baliezazkik/balieazakin

baliezazkio

baliezazkigu

baliezazkizu

baliezazkizue

baliezazkie

.....

bageniezazkik/bageniezazkin

bageniezazkio

.....

bageniezazkizu

bageniezazkizue

bageniezazkie

bazeniezazkit

.....

bazeniezazkio

bazeniezazkigu

.....

.....

bazeniezazkie

bazeniezazkidate

.....

bazeniezazkiote

bazeniezazkigute

.....

.....

bazeniezazkiote

baliezadate  
baliezaate/baliezanate

baliezaiote  
baliezagute  
baliezazute  
baliezazuete  
baliezaiete

baliezazkidate  
baliezazkiate/baliezaz-  
kinate  
baliezazkiote  
baliezazkigute  
baliezazkizute  
baliezazkizuete  
baliezazkiete

B7. ....

niezaake/niezanake  
niezaioke

.....

niezazuke  
niezazueke  
niezaieke

.....

niezazkiake/niezazkinake  
niezazkioke

.....

niezazkizuke  
niezazkizueke  
niezazkieke

---

hie zadake

.....

hie zaioke  
hie zaguke

.....

.....

hie zaieke

---

hie zazkidake

.....

hie zazkioke  
hie zazkiguke

.....

.....

hie zazkieke

---

lie zadake  
lie zaake/lie zanake  
lie zaioke  
lie zaguke  
lie zazuke  
lie zazueke  
lie zaieke

---

lie zazkidake  
lie zazkiake/lie zazkinake  
lie zazkioke  
lie zazkiguke  
lie zazkizuke  
lie zazkizueke  
lie zazkieke

.....  
geniezaake/geniezanake

geniezaioke

.....  
geniezazuke  
geniezazueke  
geniezaieke

---

zeniezadake

.....  
zeniezaioke  
zeniezaguke

.....  
.....  
zeniezaieke

---

zeniezadakete

.....  
zeniezaiokete  
zeniezagukete

.....  
.....  
zeniezaiekete

---

liezadakete  
liezaakete/liezanakete

liezaiokete  
liezagukete  
liezazukete  
liezazuekete  
liezaiekete

.....  
geniezazkiake/geniezaz-  
kinake

geniezazkioke

.....  
geniezazkizuke  
geniezazkizueke  
geniezazkieke

---

zeniezazkidake

.....  
zeniezazkioke  
zeniezazkiguke

.....  
.....  
zeniezazkieke

---

zeniezazkidakete

.....  
zeniezazkiokete  
zeniezazkigukete

.....  
.....  
zeniezazkiekete

---

liezazkidakete  
liezazkiakete/liezazki-  
nakete

liezazkiokete  
liezazkigukete  
liezazkizukete  
liezazkizuekete  
liezazkiekete

B8. ....	.....
niezaakeen/niezanakeen	niezazkiakeen/niezazki- nakeen
niezaiokeen	niezazkiokeen
.....	.....
niezazukeen	niezazkizukeen
niezazuekeen	niezazkizuekeen
niezaiekeen	niezazkiekeen
<hr/>	<hr/>
hiezdakeen	hiezzakidakeen
.....	.....
hiezaiokeen	hiezzazkiokeen
hiezagukeen	hiezzazkigukeen
.....	.....
.....	.....
hiezaiekeen	hiezzazkiekeen
<hr/>	<hr/>
ziezdakeen	ziezzakidakeen
ziezaakeen/ziezanakeen	ziezzazkiakeen/ziezzazki- nakeen
ziezaiokeen	ziezzazkiokeen
ziezagukeen	ziezzazkigukeen
ziezazukeen	ziezzazkizukeen
ziezazuekeen	ziezzazkizuekeen
ziezaiekeen	ziezzazkiekeen
<hr/>	<hr/>
.....	.....
geniezaakeen/geniezana- keen	geniezzazkiakeen/genie- zazkinakeen
geniezaiokeen	geniezzazkiokeen
.....	.....
geniezazukeen	geniezzazkizukeen
geniezazuekeen	geniezzazkizuekeen
geniezaiekeen	geniezzazkiekeen
<hr/>	<hr/>

zenieadakeen

.....

zeniezaiokeen

zeniezagukeen

.....

.....

zeniezaiekeen

zenieadaketen

.....

zeniezaioketen

zeniezaguketen

.....

.....

zeniezaieketen

ziezadaketen

ziezaaketen/ziezanaketen

ziezaioketen

ziezaguketen

ziezazuketen

ziezazueketen

ziezaieketen

zeniezazkidakeen

.....

zeniezazkiokeen

zeniezazkigukeen

.....

.....

zeniezazkiekeen

zeniezazkidaketen

.....

zeniezazkioketen

zeniezazkiguketen

.....

.....

zeniezazkieketen

ziezazkidaketen

ziezazkiaketen/ziezazki-  
naketen

ziezazkioketen

ziezazkiguketen

ziezazkizuketen

ziezazkizueketen

ziezazkieketen

C. iezadak/iezadan

.....

iezaiok/iezaion

iezaguk/iezagun

.....

.....

iezaiek/iezaien

iezazkidak/iezazkidan

.....

iezazkiok/iezazkion

iezazkiguk/iezazkigun

.....

.....

iezazkiek/iezazkien

biezat  
 biezak/biezan  
 biezaio  
 biezagu  
 biezazu  
 biezazue  
 biezaie

---

ie zadazu  
 .....  
 ie zaiozu  
 ie zaguzu  
 .....  
 .....  
 ie zaezu

---

ie zadazue  
 .....  
 ie zaiozue  
 ie zaguzue  
 .....  
 .....  
 ie zaezue

---

biezadate  
 biezaate/biezanate  
 biezaite  
 biezagute  
 biezazute  
 biezazuete  
 biezaite

biezakit  
 biezakik/biezakkin  
 biezakio  
 biezakigu  
 biezakizu  
 biezakizue  
 biezakie

---

ie zakidazu  
 .....  
 ie zakiozu  
 ie zakiguzu  
 .....  
 .....  
 ie zakiezu

---

ie zakidazue  
 .....  
 ie zakiozue  
 ie zakiguzue  
 .....  
 .....  
 ie zakiezue

---

biezakidate  
 biezakiate/biezakinate  
 biezakite  
 biezakigute  
 biezakizute  
 biezakizuete  
 biezakite



Besteok ere, paradigmak osorik betetzen ibili gabe eta eredu bezala, aipatu genituen. Edozeinek antzeman diezaiekeenez, NOR-NORI-NORK adizkiak dira, NOR hirugarren pertsona ez baizik besteren bat denekoak:

zuk ni hari eraman NAIOSU (← nauzu); NAIOSU etab.

zuk gu hari eraman GAIOSU (← gaituzu); GAIOSU etab.

zuk ni hari eraman NINDIOSUN (← ninduzun); NINDIOSUN etab.

zuk gu hari eraman GINDIOSUN (← gintuzun); GINDIOSUN etab.

zuk ni hari eraman NIAZIOSUN etorri naiz (← nazazun).

zuk gu hari eraman GIAITZIOSUN etorri gara (← gaitzazun).

zuk ni hari eraman NIENTZIOSUN etorri nintzen (← nintzazun).

zuk gu hari eraman GIENZIOSUN etorri ginen (← gintzazun).

zuk ni hari eraman NIAZIOSU (← nazakezu).

zuk gu hari eraman GIAITZIOSU (← gaitzakezu).

zuk ni hari eraman NIENTZIOSU (← nintzakezu).

zuk gu hari eraman GIENZIOSU (← gintzakezu).

zuk ni hari eraman NIENTZIOSUN (← nintzakezun).

zuk gu hari eraman GIENZIOSUN (← gintzakezun).



Arantzazun, 1972ko uztailean aditiz batuari buruzko bilkuretako batzarkide batzuk.

Zutik: Mixelena, Haritschelhar, Irigoyen, Villasante, Sarustegi, Altuna eta Berriatua.

Makurturik: San Martin, Lizundia, Intxausti eta Kintana.

## AXULAR'ekin Ikasle

*Etxeberria-tar P., S. J.*

Axular idazlea, guren eta bikain. Aren izena txito goora igoa degu. Oraingo euskal-idazleok aintzakotzat artua degu. Ori ongi! Irakasten diguna zabal edatua izan!

Bai ta: Axular'i alde askotatik eldu izan diogu. Begirunez. Maitasunez. Itzalez. Arakalari zorrotzak ere agertu zaizkio. Urdazubi'ko seme argiak ez zigun uste izan, noski, gerokook orrela ibiliko gintzazkionik.

Axular'en ikasleak ugari dira. Nere burua ikasle orien artean sartu nai izan det. Lotsagabekeria dala iruditzen zait. Bainan ez bide da kopeta geiegi izatea. Izan ere, gure aurrekoengan eredu ona ikusi nai izatea ederra bait-da. Edertasun orrek eragin izan dit. Eztiki oso.

Esan zaarra da, autsazpiko txinpartaz, urrengo goizean, sua, ego-kiago pizten dala. Ona gertatua: Berastegi'ko alaba, etxenagusitzarik ez zuan mutillaz maite-mindu. Bi gazteek elkarrekin ezkontzeko otsak atera zituztenean, gurasoek alabari:

—Neska! Neska! Autsean bildutako su apalaz biaramonean lan ttikiago izango den!

—Ama! Ez beldur izan! Guk poxpoloekin piztuko degu. Su berria, ala ere!!

\* \* \*

Ukatzerik ez degu.

Orain ere, leenagokoak baztertu naiekoak erruz! Iraganak eta nolabaiteko guztiak bat-batean lurperatu, austu eta birrinduz izkera txairoa eratu nai degu!! Arrittu egingo al gera?

Bai ta: GERO'ren aita ta idazleak euskera zekianik zalantzan asterik ez dugu... Gugana iritxi zaigunetik asetzeko beldurrik gabe ikasi dezakegu. Gogoa bear! Egonarri andi-iraunkorra. Aldatz-gora ibiltzeak ez gaitzala ikara! Arek idatziak ezeren ikuitturik gabe artu? Ori ere ez.

Axular'ez mintzatu izan diran iakintsu andien ondoan kaxkar naizen onek, euskal-arlor aletxo ekarri nai izan dut. Ortarako 1954-garren urteko *Gero* darabilt. Iyekiaren 462-garren orrialdean, oar auxe arkitzen da:

Egoki dagokion bezela, Bibliako irakurgaiak dira geien darabilzkiak: 286 aldiz. *Ecclesiastes-Ecclesiasticus* 36 aldiz (Gogoetak-Ikastuna); *Proverbia* 35 aldiz (Itzurrak); *Liber Psalmorum* 32 aldiz (Eresiak); *Mathaeus* 31 aldiz (Matai); *Epistolae Paulinae* 29 aldiz (Erromarrei, Korintoarrei, Galatiarrei... eta abar); *Luca* 15 aldiz (Luka); *Genesis* 13 aldiz (Asiera); *Johannis* 12 aldiz (Yon); *Iob* 12 aldiz (Yob); *Hieremia* 9 aldiz (Yeremi); *Liber Regum* 8 aldiz (Samuel-Bakaldunena); *Exodus* 6 aldiz (Irtenera); *Sapientia* 5 aldiz (Yakintza); *Deuteronomium* 5 aldiz (Itzaldiak); eta beste gañerako liburuak bein edo beste.

Lerro auk ederrago onelaxe emango zuketan: elkarren ondoan Lizarraga eta Duvoisin ezarri izan ba'ntu. Biak idazteuna euskeraz ematen ainbeste lan egiñak bait-ditugu. Beren egiñalean alperrik aritu ez ziralazkoa erakutsi dezaiegun, mugona bait-nukean, auke-ran. Nere txiroan itzulpen orien iekirik ez det ekarri ahal izan oneraño.

Beraz, taketa-artean bildu ditudan izenak Olabide'renetik artu ditut: 1958-garren urteko irartalditik. Idaztia erosterakoan orri gogor-antzekoa, margoa arre, aurkittu izan duzu, noski, irakurle: orri ortan dituzu laterazko eta euskerazko izenak saillean.

Bein Olabide onera ekarri dedanez gero, auxe ere aitortu bearra nuke. Idazteuna irartzerakoan begi-motel'edo ibili giñala. Lanerako ez bait-nintzan bakarrik. Utsak itzuri zitzaizkigun. Oriek banaka-banaka biltzen asi nintzalarik, nere irakasle maite nuen eta dan iaunak esan zidan:

—Mutil! Mutil!! Ere buruari orrenbesteko lanik ez akiok eman! Utsik egin dekenik ere iñork ez dik igarriko!!

Bainan, artu nuen erantzukizunak estutu egiten ninduen. Bestalde, irarkolakoek, egungo egunean txito beldurgarri gertatu dira. Ez Euskalerrian bakarrik. Bai, beste leku askotan ere. Lantoki orietan, beti estuta eta ezin iritxiz bezela dabilta ibili. Lan guztiak bertan-bertan liparrearan bukatu nai!! Esan ere esan bait-diteke, beren indarrek ahal dutena baño aundigoko lanetan asten dirala.

\* \* \*

Formosa ontara Axular'en GERO garaiz eldu zitzaidan: 1955-garreneko udan irakurtzen asi nintzan: 1954-garreneko argitalpena, alegia. Beste ieki zaarrak ere ukittuak eta ikusiak nitun. Beti ikas-teko gogoz.

Oraingo ontan, Idazteuneko deiak nolatsu zeuden bertantxe igarri nion. Asegaitza izan ni. Gaztetan, artalandare ondoan belar txarrik ikusi nai ez nuen aietakoa. Ta, berealaxe, biziro zuzen ez zeuden dei guztiak garbittu eta eratu bear nituala gogoratu zitzaidan. Asi ba'nintzan asi, bai ederki aspertu ere! Bainan, ekiñean iarraiturik zerbait irten zaidala uste dut. Euskaldun!: orain ementxe eskeintzen dizut.

Auxe ere aitor dezadan: nere izerdien etekiña euskaldunentzat bakarrik dala. Aurrekoek egin izan digutenetik ahal deguna ikasi dezagun...

Arbasoengandik ikasi nai ontan Urdazubi'ko semea aurrelari degu: Tours ko gongotzainari GERO eskeintzen ziolarik auxe dio Axular'ek: «...eztuzu Zuk zeure arrazaz ukatu, etzara zeure leiñutik eta etorkitik hastandu, berezi eta ez aldaratu...» Aitorpen arrai au daginek bere aurrekoak aintzakotzat zeduzkan!

Izan ere, antziñako aiek asko zekiten. Erriak berak asko daki: ezik, erria iakintsu danik ez degula uste izaten. Noski, iakintsuak muga zabalagoak ditu. Iakintsuak zelai agirigoak besarkatzen. Ika-sia, gai berexigoetan ibiltzen dala esango nuke. Iñoiz izatekotan, garai auetantxe banatu bear genituzke ikasia eta iakinttua. Osalaria, bere gaiak zeatz dakizkinean asko ikasia oi da. Osalari ori bera, beste gai ugarietara gertu izan ba'da, iakintsu dala aitortuko... Ikasi gabe ez da izango iakintsurik. Ikasten ibilitako guztiak ez dira iakintsu izatera iristen.

\* \* \*

Puxka bakoitzaren une iatorra Axular'en beti ez dago ongi eta garbi emana. Ez bekit, beraz, ika-mika iñor asi. Nik ere, txoil, ahal dedana egin bait-det.

Adiburuz, GERO'ko 179-garren orrialdera eldu gaitezen. An-txe, laterazkoa izki etzanez degu. Eta, izki etzanezko irarkerak, beste dei-unetan asko lagunduko digu.

Ona deia: Math. 16...

Ez estutu!! Matai deunaren 16-garren atalean orrialdeko deiak diona ez-baña, besterik irakurri ahal izango degu. Bai lateraz, bai euskeraz.

Orrela, billaka ibiliz, Matai'ren 26-garren atalera ioan bearra izan nuen; eta, 73-garren txatalean gelditu.

Era ortan beste zenbait dei ere, billaka ibiliz aurkittu izan ditut. Eta, Olabide'renean antxe aurkittuko dituzu puxka bakoitzaren toki iatorrak.

Oraindik bizi diranetatik iñor ez det aiphatzen. Leenagokoetatik ORIXE ezagunaren itzulpena erabili dut, eta berak diona lerro auetara aldatu. Soilik Eresien itzulpena: Olabide eta Orixe bakoitza bere aldetik ibili izan danik esan gabe, beti bat ez datozela aixe igarri liteke. Eresien zenbakiak, ez daude berdin. Orixe'renak zenbaki batez atzerago.

Puxka berein, toki batean baño geiagotan ikuttu zizkigun Axular'ek. Itzurretan 18, 3-garrena, 64-garren orrialdean eta 317-garren orrialdean. Batean luzeago, bestean laburrago.

\* \* \*

1. Axular'ek sarrera-sarreran, euskaldun zintzoari dagokionez ekiten dio. Lanera bultzatzen gaitu. Izan ere euskaldunok *negutarrak* gera. Neronek giza-endak zati bi eginik ditut. *Negutarrak* eta *udatarrak*. Lenbizikoak, alderdi otzagoetan bizi diralarik lanari ekin bearren diranak. Besteak, zelai ta lurralde epelagoetan bizi bait-dira, lanari errexago iges egiten oitutakoak.

Lant zezala eta begira ongi Parabisu hura, Asiera idaztiaz 2, 15 = Olabide k 1958-garreneko irartaldian: Gizona... Eden'go baratzan ipiñi zun; arek ua landu ta zaitu zezan.

Lana, alabañan, gutxik maite izaten. Gure garai auetako askoren ezin-egona nondik ote-dator? Ikusi besterik ez dago. Egunero zere lantegira ez ba'zoaz, otorduak mee izango dituzu. Atsedendialdiak gutxi. Poza urri. Beti zerbaitetan ari bearra astun egiten zaigu. Ikus... ez berak eta ez haren aitzinikoez ere ezin bururik-egin zutela eta ez iasan hain karga andia. Bidalien Egiñetan 15, 10 = gure arbasoek eta gerok ezin eraman dugun uztarria ikasleen lepoan ezarri bear dalakoan.

Bai, min izaten degu. Beti iñoren menpean. Zapalduta gauzkatela iduritzen. Aberatsak bakarrik atsedena eta nai dituzten betekizunak. Dezagun ian eta edan; dezagun pausatu eta atsegin ar; zeren berdin, eztugu deusen eskasik, eztugu egun hautan eskean ibiltzeko perilik. Luka deunarena 12, 19 = Ots!, orra urte askotarako ogasun yoritsu bilduta. Atsegin artu. Yan. Edan. Oparo bizi!

Ortara izerdiari bizkar eman ahal izango. Oporrean bizi. Ibiltzeak asmatu. Asti duzue; zeuen ongiegiak aitzinerat eta mintza-arazitzen zaituztezate. Irtenera idazti 56, 8 = alperrik daudelako, otsa iasorik, «gure Iainkoari iauropak eskeintzera ioan bear dugu».

Gizonak beste ametsik ere izan. Iainkoa gure Aita da, Ari asko zor diogu. Arek esana degu, ludi osoa landu dezagun. Txoriei bezela egak ez zaizkigu azitzen, beraz, ameslari izatea aizu. Egaztiak baño askozaz goorago eldu gera. Gizona sortzen da travailluko, eta egaztina aireko. Iob 5, 7 = gizakia neketarako iaioa bait-da, txorikumeak goora egatzeko bezela.

Erruki gabe lana egin eta Apolo'koek egaketak eratu. Zoaz, nagia, xinaurriagana, eta kontsideraitzatzu haren bideak eta bidexkak, ioan-etorriak eta itzul-inguruak; eta ikasiko duzu zuk ere nola bear duzun aitzinerat eta beti ere bizi, ibili eta gobernatu. Hark, erakuslerik eta kidaririk gabe, berak bere buruz biltzen du udan neguaren iragaiteko bear duen mantenua, bazka eta bihia. Itzurrak idaztitan 6, 6-7-8 = Nagitzar! Txingurriarengana oa: aren bideak ikasitzak! Ea, sena izaten ikas ezak! Ark agintaririk ez. Irakaslerik ez. Nagusirik ez. Ala ere, udan bere azkurria inguratzen du: uzta-roan bere ianaria biltzen.

2. Gizonak, auer eta beti-iai naiekoak gera. Eguzkipean besterik ez bait-da gizonaren antzeko. Itz-egiteak ere beldurra ematen

digu. Bitartean onako auxe ere egi izan. Oraintxe eun urte, gizaduan zebiltzan okerrak salatzen bakar batzu asi ziran. Ondoren bai Doibatza ere, denen Doipuru Lon amairugarrena zana. Alperrik? Ez, orixe. Laterrietako agintari ospatsuenak ere beldur eta ikaratzen asi ziran. Ainbeste ots eta esanen zitua orain ikusten degu. Ezik, sarritan, orain arte ezer egin ez dala iduritzen askori. Axular'ek egoki oroiterazten digu. Olakoak zertako trabatuko du lurra? Luka 13, 7 = Zertarako egon bear du, bada, lurean alperrik.

Geienez ere, olako ale-urri diranek sugetzarren etzaltoki gerta litezke. Alegia: itzalpean kanaberaren estalgunetan egiten du bere loa, han pausatzen du. Yob 40, 21 = ...osto-zar-zabaldun-pean du ark etzangua; zingiradiko sistortzan izkututzen da. Puxka au, Axular'ek etsai gaiztoari egozten dio. Sulezean aztarrika ezin-egonean bizi danari. Gure idazle gurena, bere garaikoa izan.

Etsai eta mamutzar ankerra alperrik aundienetakoa izan. Bere alperkeriak, berriz, anhitz malizia erakutsi izatu. Ikastuna idaztitan 33, 29 = oporraldiak gaitz asko irakasten ditu. Iragan mintzen gizon nagia ren landatik eta guztiak ziren asuñez, elorritz eta belar gaixtoz beteak, eta esiak, erstegiak eta armorak ere, eroriak eta deseginak. Eta hek hala ikusi nituenean, egin nuen gogoeta, artu nuen exemplo, ikasi nuen zer egin bear nuen, eta zentzatu nintzen bertzeren gañean. Itzurak 24, 30-31-32 = Alperraren alor ondotik igaro naiz, eta zuntzunaren maasti ondoan ibili, eta, ara!: aietan asunak mardul goora; eta, oro ñarrak betetzen zuten, arresia ere iraulita zegon. Ori ikusita, nere baitara itzulirik, gogarketaz irakaspén au atera dut... Landertzari iges egin bearra, eta aora daramadana nere lanez eskuratzea, Paul deunaren irakaspenez: ebasten zuenak, eztezala ebats, baiña travailla bedi, manaia bedi, eta halatan izanen du bere eta bertzeren. Epeso'koei 4, 28 = ostu oi zunak ez beza aurrerontzean ostu; eskulan egokiren bat egin beza, ordea, bearraldian dagonari nondik eman izateko.

Ontan, orain, non-nai entzuten dana auxe: Eman? Ez!! Askozaz ere obe lanean irakatsi. Errialde aberatsak ba-dira. An bizi diranak zer-nai baldin ba'dute, lana latz eginda lortu dute. Orrelaxe aukera guztien iabe izatera iritxi.

Olako iardesarientzat, beren buruak zuri ditzaten, onako auxe bai egoki datorrela: Esku laxoak eta alferrak, probetasun dakarke,



baña bortitzak eta trabaiariak, aberastasun biltzen du. Itzurak idaztikoa 10, 4 = Esku nagiak, lander-izatea beretzen; beso langilleak, bañan, aberastasun dakar.

Eziñean aurkitzen dalarik langilleari lagun dezaiogun. Erri azkarrek eta izerdi-beldurrik ez dutenek, lan egin bezate, gogor eta asmo okerrik gabe; eta enda xumegoei ekinlari izaten irakatsi. Utsean iñori ezer ez eman... (Esana orrela degu). Ezik ematen ere iakin bear izaten dala!! Gibela ezazu zeure oña adiskidearen etxetik, ez han maiz ibili, ase etzezazun, iguin etzakitzan eta gaitz-ets etzaitzan. Itzurretan 25, 17 = Lagunaren etxean oña bakanetan sar ezazu, zutzaz aspertuta iguin ez zaitzan.

Irugarren Gizasail zer dan Axular'ek ez zekian. Alegia: 1779-garren urteko ua *le Tiers Etat*. Itza asmatu bai, asmatu zuten. Bai laister aaztu ere! Itz orren antzera udaguenillaren 14-garrenean 1952-garren urtean Alfred Sauvy'k Irugarren Gizartea asmatu zun. Bañan, itzak Sauvy'k eman zion adirazpena asko galdu du. Ondoren, berriz, Bandung'en 1955-garrenean, artean sailkatu etziranak bildu ziran.

Delako Irugarren Ludi ontan bizi bait-naiz, itzaren zirrara nolakotsu dan igarri diogu. Ez ote-gera mikuin? Izena asmatzen asi, ta olakoa asmatu!! Bereixketa tximena oso! *Irugarren Mundua...* Nik, ezin det irentsi! Izena maite-gaitza zaidala esan nai det. Lanean, beste bi mundukoek bakarrik ba'lekite bezela!! Iñork ere ez du beretzat nai alper izenik. Nagi geranik ez degu entzun nai izaten. Ezain eta auer nor da? Gure auzoan bizi ez dan berendi, noski! Ez, olako eraskiñak ez dezazkiogun iñori nolanai egotzi.

Mugonak eta egokierak alakoak izan dituztelako, berein erri aurrelari gertatu dirala! Ori ongi!! Aurrelaritza ori, malla guztietan ikaskizun dedin, gizatasuna ere nai litzake. Sara'ko erreter maratzari entzun dezaiogun: Trabaiillu onean izanen da franko eta frankia; baiña itz anhitz den lekuan, maiz da probetasuna eta eskasia. Itzurren idazti 14, 23 = Edozein lanek ugaritasuna dakar; itz utsalek, ostera, lander-izatea. Itzez irakatsi... bai!! Itzez ere irakatsi bear da!! Egiñetan, bizikeran, eta eguneroko iardunetan irakasle argi-arraia izatea bezelakorik ez.

3. Lurralde otz eta negutsuetan ere oe ta etzanguak ba-dituzte. An, etxe-barruak ederki berotzen. Anchorage'tik igaro nintza-

nean ikusiz dakit. Ontzitik irten eta aterperatu giñanean, izotzaren antzik ez han. Alderdi epelagotan-lur-gain gorria oe izan liteko. Alperrentzat bakarrik ote? Puxka ontatik ala uste genezake: Atea bere erroetan bezala, itzultzen da nagia ere bere ohean edo kamastran. Itzurak 26, 14 = Atea bere orpoetan bezela, nagia, bere oean iraulka dabil.

Ateak orpoak ontarako: iriki-zabal ariñerako. Langilleak ohea, urrengo ekiñaldian indarra izan dezan. Gaxoak oea ez maite: ala ere, an etsi egin bear. Beti-jai daginak, bazter oro oe eta etzangu.

Lanean lertu arte ari arren, indar gutxi danean, etekin urri. Etorri ziren erditzeko pontura; ordea, etziren erdi, etzen hartakotzat indarririk aski. Isai Igarlearena 37, 3 = umeak irrikitura eldu, ta amarengan erditzeko indarririk ez. Asmorik eta erabakirik ez danean, indarra utsal gerta, ezer gutxirako. Asmo utsa ere, ametsa baño asko geiago ez. Nai du ta eztu nai, nagiak. Itzurak idazti 13, 4 = Nagiak gura bai; iritsi, ordea, ez. Nolanai ere beti-jai'ren giroa! Errukarria! Nagientzat eta alferrentzat egun guztiak dira besta. Itzurak 21, 25 = nagia, gurak iltzen du.

Toki bakoitzean, alderdi artako gizurenak. Formosa'ko auek goiko Txina zabalean gorai patzen dituzten zintzoak dituzte gogoan. Ain xuxen, leenagoko umandi gogoangarrien izenak berritu al izan dituzte: ogeita geiago egun eguzkirik ikusi gabe, egun berdotxak izan ditugu. Etxe barruan egon bear. Ta, ipui zaarrak aaztuko zaizkigun beldurrik ez. Olako giro bustietan, emengo nekazariei auxe ezin egoki: Traballatu nahi etzuenak otzaren atxakia egin zuen. Itzurak 20, 4 = nagiak, udazkenean ez du goldetzen. Esan auxe bai egi dala. Ementxe: bizi naizen txoko ontan: bigarren ebaki-aldia udazken-udazkenean izaten dute. Alea legortzeko ia indarririk ez eguzkiak. Nekazari onak, beren saillak bertantxe goldetzen dituzte. Nor da, ordea, nekazari ona? Indarra dun uaxe, noski. Orain, baña, beso gazte indartsuak lantegi auditara daramazkiten ontan, lurrari muzin egiten zaio. Ondoren, udaberrian lotarako betik ezin arturik ibili bear. Eta, neguak luze irauten ba'du... 1970-garrengo ontan bezela... berandu ibili bear!

Zerbait bertan-beera utzi nai duanak ataka eta maratillak ugari. Nagiak, bere lekutik igitu nai eztuenak, trabu andiak edireitentu. Itzurak 22, 13 = «Leoi bat, or dabil» dio nagiak; «il nazake bide

erdian». Adiskideaz desegin nai duenak, adiskidetasuna utzi nai duenak, okasinoak billatzeintu. Itzurak 18, 1 = berezita bizi dana, bere oldez dabil.

Oldez ibili. Gerok aukeratua maite izan. Igesa ontzat artu. Ogenik edatuena izan! Gero erabakitze orrek Augustin deuna ere enuxu-banuxuka zerabillen: emazteek zedukaten bortizki lotua. Orixe'ren itzulpena Aitorkizunetan, 8, 2 = emazte ark zailki niñedukan.

4. Etorkizuna, ikuskizun!! Umetan eta geroxeago ere ainbeste aldiz entzun izan nuena. Aldiak eta aroak bestelako margodun gertatu diran ontan, era ortara mintzatzen ia ezin ikasi degu. Batez ere, gizonak ahalmen eta indar guztiak bere esku ditula uste degun ontan. Baldin Iainkoak nai badu, baldin bizi bagara, eginen dugu haur edo hura. Iakue deunarena 4, 15 = Iaunak nai ba'du, edo bizi izatekotan, au edo ori egingo dugu. Puxka au onera aldatzean, Leitzako seme Uarte tar Bingen gotzai iauna datorkit gogora: arek bai, bai aoan Iakue deunaren esana. Orixe! Txina zabalean, antxe Wu-hu'n gurekin zanean zenbait bider entzun izan ote-genion!!

Ona beste aolku bikaina: Zaudete prestik eta iratzarririk; zeren, eztakizute eguna, eta ez orena. Matai 25, 13 = Atzarri egon, ba, ez egunik ez garairik ez dakizute-ta.

Anhitz galdu... bere buruari etorkizuna sobera prometatuz. Ikastuna 29, 20 = Baitzalle yaikitzeak aberats asko ondatu ta itsasoko uifiek bezela, yarrosi ditu. Axular'en euskeralbena eta Olabide'rena ez datoz bat. Irakurleak ez beza arrikizunik aurkittu olakoetan. Beste uneren batean, antzeko zerbait ikustea ba-liteke. Emen baitzallearentzat degun aolku au, eguzkialdeko oiturak ongitxo zekizkianak emana dugu. Eskatu bai! Ondoren, bein malleuz artua itzultzea luza eta luza... artzekoduna oso ahaltsua ez ba'da beintzat. Idazteunekoak zuzen erabili ahal izateko, onena an zer idatzi ziguten ulertzea eta azterpena saiets-iritzirik gabe egitea. Bein ere ez ditzagun idazteunekoak gerok naiko genduken alderdira ekarri. Ori egin izan dala? Orain ez naiz auzi ortan sartzen.

Eztaki gizonak bere finaren berririk; baiña, nola amuak atzemaiten baititu arraiñiak, eta egaztinak segadak, hala gizonak ere atzemaiteintu bere eriotzeak. Gogoetak 9, 12 = Gizonak, bere garaia ez bait-dazagu: arrainak sare iruzurtian bilduak bezela, eta txoriak

xedaban artzen diranez, elkaitza gañera sostean datorkienez, gizonak ere atzemanak bait-dira.

Dabid bakalduna, gizon argia. Iainkoarentzat eskurakoia. AREN aginduekiko esangia. Bere Egillearen arazoetan azkutsua. Ala ere, zertxoren bat oker irten zitzaiolarik, Tekua'ko andereak esatekoak garbi adirazi zizkion: Uraren pare gara; ura bezala linburtzen gara. Samuel'en Bigarrena 14, 14 = Izan ere gu ilko gera, noski; lurrean eralkitako ura bezela, atzerarik gabe.

Oraintxe iru urte izango dira. Sarri oi nuanez aldapa goora nindoan. Tayeldar zirtolari nuen lagun. Nik ari: Guztiek diotena berri-tzen dizut, aberatsa zerala! —Ori ongi!! Zuk ori esan! Egi ez dala ere, entzuteak belarria limurtu egiten du. Olako zerbait gertatu zitzaizen Adam eta Ebe'ri iztarbegikoak au iardetsi zietenez: «etzera-te illen». Asiera idaztian 3, 4 = ez zerate ilko, ez. Zirikalariak esan eta aiek sinistu. Bein ere ez iltzea itxaro zuten, agian.

5. Ler gaizto egiñez, lanean zerbait bildu dizunak, bere eskua berankor luzatzen.

Biamonean zer gerta diteken ez bait-daki. Neska gurbillek ala erantzun: ezteretzuegu eman nai, zeren, benturaz, gero ezkenduke guretzat aski. Matai 25, 9 = obe duzute saltzalleengana yoan ta zerrontzat erosi; guretzat eta zuentzat gutxi izan ez dedin. Itz auen arauaz besteak sorozteko gogo pittiña izaten degu. Onako auek bezela: Goazin emendik, zeren baldin hemen bageneunde, benturaz bertze hauk bezala irets ginitzake gu ere lurak. Zenbakiak idaztian 16, 34 = lurak bear ba'da, irentsi ez gaitzan.

Axular ek darabilen *bentura* ez genduke oker ulertu bear. Idazle iaualarena zuzen iakin dezagun, alboan oraiñagoko itzulpena ipintzen alegindu naiz. Adiburuz: eta benturaz halatan Iainkoak barkatuko derauzkitzu zeure bekatuak. Daniyel, 4, 24 = zure bidegabekeriak landerreganako errukiz ordaindu itzazu, oraindik bakez yarra ote zaitezken. Antzeko esakera degu beste au: Nork daki, mehatxatu bagaitu ere geure Iainkoak, eta erran badu ere aserre dela gure kontra, ea gure urrikimendua eta penitentzia ikusirik, itzuliko dentz bertze aldera, ematuko zaikantz bere kolera, eta utziko gaituentz gaitigatu gabe? Yona Igarlea 3, 9 = Agian Yainkoa itzuli ta garbaituko da, ta aserrea ibituko zaio, ta ez gera galduko.

Zeatu ez gaitzan, beraz, lotik iaiki egin bear, onako ontan bezela: Zer ari aiz gizona? zerk aratza lo? eztakusak itotzera goazila? Haik ortik, iar adi orazinotan, egiok eure Iainkoari otoitz, eta benturaz halatan eskapatuko gaituk. Yona Igarlea, 1, 6 = Oraindik ere lo al-ago? Yaikita dei akiok ire Yainkoari, Yainkoa gutzaz oroi ote-dan, ta gal ez gaitezen. Orrelatsu zebiltzan anai bi aiek, eta gazteak esku-erakutsiak igorri zizkion: benturaz huneletan adiskidetuko gara. Asiera Idazti 32, 21 = apika abegi ona egingo dit.

Axular'ek kezka izan zuen eta Asiera Idaztiko puxka bi zuritu nahi izan dizkigu: Benturaz illen naizela Asiera 3, 3 = ez ian ortatik, ez ikuttu ere, il ez zaitezen... Eta, alabaiña Iainkoak etzioen halakorik erran, etzioen *benturarik* aipatu. Garbiki eta segurki erran zioen, iaten zuen egun berean illen zela. Asiera 2, 17 = artatik ian zenuen egunean, ilko zera-ta.

Izangoaren antza zizta ba'geneza zer ez genduke egingo? Lee-nagoko aberatsak sumatu zigun: Zer eginen dut? Norako dut hunenbat ogi, arno, bihi, fruitu, eta onhasun? Eztut edukitzeko lekurik ere. Ba-dakit zer egin. Leheneko bihitegiak, ardandegiak, sotoak, salak eta ganbarak andituko ditut! Luka deunak 12, 17 = asma- ketan asi zan, esanez: zer egingo? Nere uzta non bildu ez bait-dut! Esan zun: orra, nere egitekoa. Nere mandioak irauli-puskatu eta zabalagoak egin; eta aietan nere uzta ta ondasun guziak bildu. Ezik, iardespena berialaxe izan zuen: Ah eroa! zentzu gabea! zer mintzo aiz? zer gogoeta darabillak? Egin dite ireak; gaur eskatuko zaizkik eure animaren, gaur gorputzetik aterarik eramanez aute. Eta gero orduan bildurik daduzkan on oriek norentzat izanen dira? Luka deunak 12, 20 = Zoro ori! Gaur arratsean zure bizi-eske datozke. Zuk bilduak norenak izango dira?

Axular'ek zer nai duan? Gu zuhur izan gaitezen. Eta, puxka auxe dakarkigu: Konberti zaitezi, bekatutarik ilki zaitezi; eta eztezazula berant, eztezazula egunetik egunerat luzat, zeren gutien uste duzunean, ahantzienik zaudenean, neurria beteko da, Iainkoa asarretuko da... Ikastuna 5, 8-9 = Iainkoarengana biurtzea ez luzatu, ta egunez-egun ez geroratu. Iainkoaren sumiña sostean erneko bait-da, ta apen-egunean porrokatuko zaitu. Esana ta iritzia indartzeko, Urdazubi'ko semeak au dakar: ezterrozula zeure adiskideari, dohala eta

datorrela; bihar emanen diozuna —baldin baduzu ematekorik— emozu berehala. Itzurak 3, 28 = Iñori ez esan: «Zoaz eta itzuli zaitetz: biar emango dizut», bertan eman al ba'dezaiokezu.

6. Ain gera luzalari!! Ona izatea beste noizpaiterako aixa guk uzten. Etekiñeko ariketari eldu... bai!! Bañan, noiz! Gerok ere ez bait-degu iakiten. Makurtzen asiz, arri konkorra amildegiko zulora baño uxtuzago murgiltzen gu okerrean. Dabid bakaldun giartsua bezela: errebelatu nintzen eta galdu ardia bezala. Eresietan 119, 176 = ardi galdua bezela nabil zoro. Orixe'k bere Salmutegian 118-garrenean: ardi galdu antzo nabil.

Ardi galdua... Bai, noski! Nora doan eztakiana, urrutiratu... onako ontan bezelaxe: zuregandik urruntzen direnek, fin-gaitz eginen dute. Eresietan 73, 27 = Zuregandik urruntzen diranak, galduko bait-dira. Orixe'k = Zugandik urrun doazanak bai galduak! Alakoak bai kupigarri: begira beute enegandik urrundu eta apartatu direnek; zorigaitz hekentzat! Ose igarlea 7, 13 = Aien zori txarra, Niregandik aldendu diralako! Luza eta luza, miña sendakaitzago: eritasun luzeak eta zaharrak nekatzen du midikua. Ikastuna 10, 10 = sendagillea gorabera, beti eri dagona, ta gaur errege ba'da ere, biyar ilko dana. Olabide'k onelaxe eman zigun. Beste izkuntzetan ere, ahal duten bezela dabilta-ibili txatal ori itzultzerakoan. Au irakurtzen dutenen artean idazteunlari iaioak arki litezke: unetxo au obe dezaten, nik aiei dei egiten.

7. Iraizean bederen auxe aitor dezadan: Axular entzutetsua ez zala berariz itzultzalle izan. Besteai artu izan ziena, bere erara erabili izan digu. Onako ontan ere alaxe: Nor nola gobernatzten baita gaztean, hala komunzki egiten ohi da zahartzean ere. Itzurak, 22, 6 = Aurrari, artu bear dun bidea, asieratik irakatsi: zaartzaroan ere, ez bait-da andik aldenduko.

Lanaren eskerga. Eginbearraren gaitza! Alabañan, ezin utzizkoa. Semeak dituzunean, eskola itzazu aurretik, uzkur itzazu, eduki ttipi direño azpitik. Ikastuna 7, 23 = Semeak bai al dituzu? Ikaspidea emaezuz!, ta aurtzarotik azi itzazu. Urdazubikoak alabak ez bide-zizkigun aintzakotzat artzen. Ona, Ikastunak zer dion 7, 24 = Alabak bai al dituzu? Aien garbitasuna iagon!, ta ez zakizkie ortzargiegi azaldu.

Dabid bakaldungaiak oituraren eza onela aitortu zigun: Arma haukin ni ezin igi naiteke, zeren ez naiz usatua. Samuel'en lena 17, 39 = Auekin ez naiteke ibili; ekiñaldirik bein ere ez bait-dut egin. Zer ikusi, ua ikusi! Onerako bezela, okerrerako ere. Eta, mairu-erriko mairu beltzak bere larru beltza, eta tigre arrak ere bere nabardurak, kolore pikardatuak, alda, utz eta muta ditzanean, aldutuko, utziko eta mutatukoitu presuna gaixtoak ere bere usantzako gaixtakeriak eta bekatuak. Yeremi 13, 23 = Beltza danak bere mintza zuritu edo katamotzak bere larru nabarra aldatu ote-dezake? Zuek ere, gaitzean oituak zeratenok on egin al-izango duzute? Ezin eta gaitz ontan, ixrraeldarrak zerbait ikasiak genitun, antza. Gaixtoaren ezurrak beteko dira gazte-denborako bekatuez, eta harekin batean lurrean ere lokartuko dira, eztute bein ere utziko. Yob 20, 11 = Aren ezurrak betetzen zitun gaixtakeriak, aiekin autsetan etzango dira.

8. Gai au ezeztien iritziak indartzeko litzake ona. Esaten baitdute: zuzendu litekenik ezer bai al da, gero? Inguruka edo inguru-nean dabilta gaixtoak. Eresiak 12, 9 = Gaiztoak, baranoan dabilzke... Oriek oro bittin eta pittikak ote? Ikus: bitñiak bezala... azkeneke egunean, ezkerreko aldean ibeniko. Matai 25, 33 = akerrak ezkerrekoan.

Kezka gorriak gizonak beti izan ditu. Azkesterik ez dukeana ere ba-dala'ta: eztela barkatuko mundu hunetan eta ez bertzean ere. Matai 12, 32 = ez zaio mende ontan, ez eta gerokoan ere asketsiko. Olako gogor eta beltz-izatea gerok pizten deguna izan. Goiko Aitak, ...iguzkiak bezala egiten du: onei eta gaixtoei, guztiei argitzen deraue. Matai 5, 45 = bere eguzkia on eta gaiztoen gañera atera(tzen) dun Aitagoikoaren seme izan zaitezten.

Bereizketa non? Idazteunak, ixrraeldarren arauaz egiten eta gaiak guri adierazten. Bestela aritzerik ez bait-zuten. Ixrraeldarrek oso-izate ta kopuru biribilla adirazteko itz berexirik ez zuten. Orrela, txatal ontako *on eta gaizto*, euskerazko *guzti* adirazteko dugu. Beste ontan bezelaxe: Iainkoak nai du guztiek salba ditezin. Timote'ri len-eskutitza 2, 4 = gizakume guztiak gaizkatzea... Berak nai du-ta. Paul deunaren esan onek arestikoa dirudi. Alegia, ixrraeldarren zaar-kutsurik ez duena. Sara'ko erretoreak ere gai ontan alakoxe

zaar-giroa artu izan dizu. Onela iarraitzen bait-du: lateraz eta itzulpenik gabe, ordea: Irtenera idazti 4, 21 = eta Parao'ren aurrean egitzizu. Nik, berriz, biotza gogortuko diot, eta ez dio erriari irtezen utziko. Erroma'koei 9, 18 = nai dunaz erruki da, ta nai duna gogortzen du. Isai 6, 10 = toildu ezazu erri onen biotza.

Irakurleak ez bezait aaztu, enaizela emen ari Idazteunekoak azaltzen, baizik Axular'ek Idazteun-puxkak zer-nolatsu itzuli izan dizkigun adirazten.

Eta ttipian eta apurrean leial dena, arrazoin ba'da andiagoan ere enplega dedin. Matai 25, 21 = urrian zintzo izan zera-ta, ioritsuan eskudun iarriko zaitut. Nagusia orrela mintzatzea biotza ukitzeko ziteken. Ontara... ukitzean sentikortzen dira. Abestirik Ederrenetik 5, 4 = ua biotz-ikara nik!

Bestela dabiltz-ibili onako auek, gaizki egitean eta egin-ondoan, guztietan atsegin artzen dute. Itzurak 2, 14 = oker egiteaz poztan eta zantarkeririk nabarmenenaz illarraitzen... Baita gaiztoak, bekatuen osinean sartuz-gero, eta hetan luzaro usatuz-gero, eztu antsiarik, eztaduka konturik. Itzurretan 18, 3 = Gaiztoa etortzean, esetsa ere arekin: eta, laidotzallearekin, gerena dator. Emen *gaiztoa* norbait litzan ulertu bearra dago.

Izan ere, presuna egarriak ur otza bezala, edaten dituzte bekatuak. Yob 15, 16 = gogaikarri... txarkeria, ura bezela edaten dun gizona. Olakoen amaia ain da hits! Zeuen bekatuan illen zerate. Yon deuna 8, 21 = zuen ogenean ilko zerate. Lendik ere adirazi izan zaigu: biotz gogorra gaizki izanen da bere azken-finean Ikastuna 3, 24 = Biotz gogorra azkenean darorke.

9. Axular'ek idazteun osoa ederkitxo ausnartua zeukakigun. Iauna, zure gobernua eta ordenamendua... pisuan eta neurrian egiten baitituzu. Yakintza 11, 21 = Zuk, ordea, neurri, zenbaki ta azta egokiz dana aztertu duzu. Pisua eta balantza dira Iaunaren iuiamendu. Itzurak 16, 11 = aztaga ta txalin ziñak Yaube k zuzentzen ditu. Onako auxe, gizonona, gure-gurea betidanik: Ixrael, giritinoa: galtzea zeureganik, erremediatzea duzu eneganik. Ose Igarlea 13, 9 = Ixrael... urgazia Niregan duzu. Ariari ekiñez Axular'ek dio: Inguratu nuen itsasoa neure mugez eta mugarriez; ibeni nerautzan ate-sarraillak; eta erran nioen «huneraíño, kostaraíño etorriko



zara, eta ez aitzinago»... Yob 38, 10-11 = ...eta ate eta atagak ipiñirik, nere muga erabaki nionean, «Aurrera gabe, oneraño atorke» esanez, eta ire uñen oldarra emen autsiko zaik.

Itsaso-gai au Ixrraeldarrek asko maite zuten, noski: ba-du itsasoak bere xedea, bere marra, bere mugarrria eta zedarri iakina. Yeremi 5, 22 = Ni naiz orratiaño, ifioiz autsiko ez dun betiko erabakiz ondartzta itsasoari mugarriztat ezarri diodana. Itsasoak irentsi zituan Parao ta Parao'renak, Nagusi Iaun Yaube'k esiak eten zioz-kalarik: Erdietsikoitut, atrapatukoitut, aspertuko natzaie, guztiak ezpataren ahotik iraganeintut. Irtenera 15, 9 = Esetsi, atzeman ta txaukiñak banatuko ditut; aietzaz aseko naiz, ta ezpata aterata nere eskuak sarraskituko ditu.

Itxoille aundia degu Iauna guri onak zabal dezazkigun. Igurikitzen du Iainkoak gutzaz miserikordia izaiteko. Isai 30, 18 = Orduko zai dago Yaube, adeibera zuei azaltzeko. Ontzia ezpañetaraño bete ba'da zer? Bete da lurra gaixtakeriz, mukurutu da maliziaz. Asiera 6, 13 = aiengatik, lurra, okerkeriz beteta bait-dago; ta, ara!, Nik lurrarekin batera suntsituko ditut.

Iainkoari gogorra danaren antza eman izan zaio, arean. Ez beti. Ikus: Nai al duzu, bada, goazin eta gaixto hura atera dezagun, bil dezagun? Matai 13, 28 = Iraka biltzera gu ioatea nai al duzu? Erantzun zintzoa berialaxe izan zuten: Igurikazue apur bat... luza Uztaraño... orduan ebakiko ditutzue guztiak...; onak bildurik altxatuko... gaixtoak... sura egotziko. Matai 13, 30 = Utzi biak itaiteraño azitzen; ta itaiterakoan itailariei esango diet: «Iraka aurrenik bildu ta surtarako espalka lotu ezazute; garia, berriz, nere mandioan abazkatu.

Ori guztia, erran zuen biotz-min andi batekin, Asiera 6, 6 = garbaiturik, beraz, eta biotzeko miñez Yaube'k esan zun... neurk egin nuen gizona, neuk deseginen dut, Asiera 6, 7 = Lurgañetik erauziko dut, irazan dudana gizona. Zio aundiz, arean; bete da mundua bekatuz eta maliziaz, Asiera 6, 11 = bitartean lurra, Iainkoaren aurrean, ustel ta zakarkeriz beterik zegon.

Aula erorkor. Gizonen izatea txit mugatua. Gure begiek ezer ikusten ez. Okerretik gibela gaitezentzat ere argia bear. Ezean, Yaube'k au yaulkiko: Zeuen... probetxuagatik eta geiago bizitzeagatik bedere, etzerate bekatu egitetik begiratzen? Yeremi 44, 7 = Zer-

gatik... emakume, umetxo ta iñutaurrei eriotza ekarriko dien ogenzar ori? Noiz arte? Yaube'rentzat ere eragozpenak izaten-ote? Eguzkipean bezela, agian? Ezterauet emaiten bereala, zeren ezpaitira oraiño bete eta konplitu Amorreoan bekatuak. Asiera 15, 16 = Lau garren gizaldiraño ez dira onara itzuliko, amortarren gaiztakeria ez bait-da oraindik mukurutu.

10. Idazle zintzoak bere lan GERO ontan errukiari eltzen: fidantzia da esperantza bat, bortiztua, indarztua, eta ustez ongi finkatua eta seguratu. Bizia liberalki... eman baitzuen. Paul deunak Erromarrei 5, 5-6 = Iainkoaren maitakuntza gure biotzetan ixuria dagolako. Izan ere, mugonez, oraindik ergel giñanean, gaiztoen alde Kisto il zan. Zeruko eta lurreko gauza... bereak baititu. Eresi 24, 1 = Lurra ta aren betegarria Yaube'rena da. Orixek = Iaunarena da lurra ta ua betetezen dutenak.

Itz indartsu utsez irazanak, ala ere. Egin bitezi erraitez egin zituen, Eresi 33, 9 = Oro Ark esanda egiña bait-da. Orixe k = Ark esanik egiñak bait-dira. Ezta ibiltzerik eta ez igitzerik... haren naia... gabe. Bidalien Egiñak 17, 28 = Arengan bizi, igi ta izan gera-ta. Are: Arengan ustea izan eta iñor ez galtzen. Ikastuna 2, 10 = Antziñeko gizakiak begira ta ikus, Iauna itxaroz-gero, nor aalketu da? Iaunarenganako lotsa ta kirmen izanez-gero, nor izan da bertan bera utzia?

Iñor ere ez, ereslariak aitortzen duanez. Nai baduzu zutzaz ongi dohan, eta ongi iltki dadin, ibentzatzu zeure esperantza... Iainkoa baitan Eresi 55, 23 = Zure buruaren ardura Yaube'ri utziozu eta Ark irozoko zaitu. Orixe'k = Zure kezka Iaunagan egotzazu, eta Berak zaitu aziko.

Alabaña, ez uste ustel-utsalez. Ezean au ialkiko bait-dizu: ¡Ah!, fede apurrekoa... zergatik dudatu duk? Matai 14, 31 = Zergatik asi zera zalantzan siniste urridun ori? Besterik gertatzen abeslariak goraihatzen dituan aiei. Iauna baitan fidatzen direnak, Sion'go oiana eta mendia bezala izanen dira. Eresia 125, 1 = Yaube'rengan ustea dutenak Sion-mendia bezelakoak dira. Orixe'k = Iaunagan entziten diranak, Sion-mendi bezelako.

11. Ustea aundi-luze. Ekiñerako gogoa seta txarrik gabe. Sismena gori-bizi. Iru oin eder oriek dituna aurrera irtengo. Bestela,

berriz, auxe gertatuko: anhitz direla deituak, baiña gutiak hautatuak. Matai 22, 14 = Deituak asko, autuak, ordea, gutxi bait-dira. Esan... esan, bai eta besoak antxumatu, Goikoa zirikatzea aña. Alako aiek ala egin zuten: egotz zezala handik behera bere burua. Matai 4, 6 = ialki zaitetz goitik beera. Txerrenak, oraingoan, nai zuenik ez iritxi eta zai-zai ibilirik, azkenean au egin gure Erosleari: ene sorbalden gañean egin zuten egur bekatoreak; han bere gaixtakeria edatu... Eresi 129, 3 = Goldariek sorbalda goldatu didate, ta beren ildoak luze egin. Orixe'k = goldelariak nere bizkarra goldatu dute ildo lezeak urratu dituzte.

Beti ozpiña? Gizonarentzat geiegi! Ba-da besterik. Ediren duzu eztia? ian ezazu, bada, neurritz, asko duzun bezain-bertze eta ez geiago, asegirik oka eztagizun, ahotik biur eztezazun. Itzurak 25, 16 = Eztia idoro al dezu? Doia ian; asez-gero okazta ez dezazun.

Urdazubiarrak egi aaztua dakarkigu gogora. Egia, bai aaztua bai izugarria ere! Auxe: «Iustizia, min da eta garratz...» Olako aitorpena entzun gabeak, gure egun auetan zenbait ote-dira? Entzun ondoren, entzundakorik bear ez dutenak are dirala esango nuke. Non-nai. Iparraldean eta egoaldean. Lurbiraren zatirik ttikienik bereziterik ez dago. Ezterrazula miserikordios dela Iainkoa, eta zeure bekatu guztiak barkatuko derauzkizula. Zeren, miserikordia eta iustizia urbil dagotza Iainkoari eta elkarri... Ikastuna 5, 6-7 = Ez esan «Aren errukia aundia da, ta nere ogen ugariak asketsiko ditu». Arengan, aserrea eta errukia urreka bait-dira.

Uste ero geiegiz'edo erori zan arako ua. Nola erori zinen, Luzifer? Nola erori zinen Artizarra, goizean-goiz... ilkitzen oi zinena? Isai 14, 12 = Nola erori zera ortzitik izar dirdiratsu, goiz-eme ori?

Erortzen direnak zenbatu ote-ditezke? Ai olakorik ba'litz! Eroen kontua infinitu da. Gogoetak idazti 1, 15 = Okerra ezin zuzendu eta utsa ezin *zenbatu*.

Bear litzakena ez egin; ez osatu; ez ondu; ez bete; ez burutu; ññori ez nai izan; ez egiztatu; ez garbittu; ez eman; ez ordaindu; ez eraiki; ez edertu; ez atotsi; ez onetsi... auxe bai amaitzen ez dan arloa!!! Susana, emazte saindu ark naiago zuen iende gaixto batzuen eskuetan erori, Iainkoaren miserikordiaren menean baiño. Daniyel 13, 23 = Obe zait, ogen egin gabe zuen eskuetan erortzea, Iaunaren begietan ogen egitea baiño.

Delako etxalaba zintzo, apal, xaloak, itzetan aitortu zuan auke-rakizuna lendik ikasia zuan, arean: Dabid bakaldunarengandik, noskiago. Errege Dabid'ek naiago zuen, iendeekin baiño Iainkoaren iharduki. Samuel en bigarrena 24, 14 = Au kezka gorria! Aundia da, ordea, Yaube'ren errukia, ta giza-eskuetan baiño Yaube'renetan erori nayago dut. Asmo au bera: Egun Itzak len idaztian 21, 13 = Au kezka gorria! Yaube'ren errukia aundia da, ordea; ta giza-eskue-tan baiño Arenetan erori nayago dut.

Onari ekitea, zuzenari eustea, egokia besarkatzea: bai ederra!! Egizue ongi, ahalez obra onetan enplega zaitetzte; eta orduan euzue Iauna baitan esperantza. Eresi 4, 6 = Opari zuzenak eskeiñi; eta, Yaube'rengan uste on ezazute. Orixe'k = Opari bidezkoak egizki-zute, Iainkoagan itxedon zazute.

12. Oldez eta biotzez ari danak ez uts-egingo. Ene seme, be-gira ezazu denbora. Ikastuna 4, 20 = Garaya yagon eta gaitzetik itzuri zaitetz. Orain, denbora aitzinean duzuiño, egizu ahal dagizuna... zuk ioan bear duzun leku hartan, arrazoin alegatzerik, eta ez-iakintasuna probetxatzerik (eztela) izanen. Gogoetak 9, 10 = Egin pozik, zure indarrez, ahal duzun guzia, *xeolera* bait-zoaz, eta ez da an egitekorik, ez asmorik, ez ezaguerarik, ezta iakiterik ere.

Aolku zuhur au azalpen ugari bearrekoa ez izan. Denbora du guiño, dagigun ongi. Paul Deunak Galatiarrei 6, 10 = Beraz, astia duguño, guziei on dagiegun. Oraindik ere Euskalerrian bizi-bizi dan esakuna: Egin zak on!, naiz ez iakin non. Gure egunak ez izan anhitz, urri baizik eta: Eman neratzun eguna urtetzat. Ezekiel 4, 6 = Egun bakoitza urte batentzat zenbatuko dizut.

Iainkotiarrek etsai gabe ez izan. Arerioak erruz: deitu zuen ene kontra denbora. Erosta 1, 15 = gudoste bat bildu da nere mutillak porrokatzeko. Gure-gureak diran zertxoak ez ditugu ainbeste. Egunak, alabaina, gureak dirala ezin esanik ez legoke. Urteak gureak. Aldia guretzat. Aro ta giroa guri begira! Denbora neure-gana dezadanean... obra onak ere... iustuki... iuzgatuko baititut. Eresia 75, 3 = Garaya etorri orduko, zuzen eta bidez ebatziko dut. Orixe'k = Garaia erabakitzean, nik iritzia emango zuzenean.

Begi zorrotzak izatearen alderdi ona! Olakoek iritzi zuzena be-ren eskuetan izaten. Eta, gizon gaixto, odol-isurle, gerlati... eta en-

ganatiek, eztituzte bere egunak erdizkatuko. Eresi 55, 24 = odolkoiki maltzurak ozta elduko dira izango zuten biziaren erdiraño. Orixe'k = odolzale ta maltzurrek zuketen egunen erdirik ez dute ioko.

Ante las crecientes peticiones a la Academia de la Lengua Vasca en materia de nombres de establecimientos comerciales por parte de los comerciantes y del público en general, y para evitar la anarquía que la falta de unificación de estos términos puede ocasionar, con el consiguiente perjuicio para la lengua, la Academia de la Lengua Vasca publica, con carácter oficial, este nomenclátor de entidades, establecimientos comerciales, cargos y oficios, a fin de que los interesados sepan, de este modo, a qué atenerse en materia de léxico y conseguir así una uniformidad en el uso de estos términos.

Naturalmente, este nomenclátor dista mucho de ser completo, ya que se trata, simplemente, de un adelanto de una futura lista más completa de los nombres usuales de la vida comercial moderna, en cuya confección trabaja en la actualidad una Comisión de la Academia. A este respecto, deseáramos que todas aquellas personas y entidades que deseen saber algún nombre relacionado con este tema colaborasen con esta Institución, enviando aquellos nombres castellanos que falten en esta lista, para que la Comisión competente pueda tenerlos especialmente en cuenta para las próximas ediciones.

Esta Academia, en su casa central de Bilbao y en sus delegaciones de San Sebastián y Vitoria, se pone al servicio de todos aquellos que deseen alguna información sobre estos temas, indicando que pueden dirigirse igualmente a sus oficinas para traducciones oficiales de plena garantía.

## PREFACE

En ce qui concerne la terminologie des établissements de commerce, les questions posées à l'Académie de la Langue Basque de la part des utilisateurs de la langue, des commerçans et d'un public général sont de plus en plus nombreuses. Dans cet état de choses et afin d'éviter l'anarchie qui résulterait d'un manque de critère



c'unification des termes en question, l'Académie de la Langue Basque, dont la tâche est de veiller sur la langue, a décidé de publier, de forme officielle, cette liste d'entités, établissements de commerce, professions et métiers. L'Académie espère également arriver, par cette voie, à une unification dans l'usage et l'emploi des termes étudiés.

Il est évident que cette liste est loin d'être complète aujourd'hui. Il s'agit, uniquement, des premières adresses d'une liste plus complète qui sera établie dans le futur et dans laquelle seront insérés les noms usuels de la vie commerciale moderne; pour cela, une Commission spécialisée travaille actuellement à l'Académie de la Langue Basque. Nous voudrions, donc, puisque cette tâche nous revient à tous, que les personnes ou entités qui voudraient connaître quelque nom en rapport avec ce sujet, offrent leur collaboration à cette Académie en nous faisant connaître les noms français absents dans cette liste. La Commission en tiendra particulièrement compte lors de ses prochaines éditions.

Cette Académie de la Langue Basque, à travers ses délégations de Saint Sébastien, Vitoria et siège à Bilbao, reste à l'entière disposition de tous ceux qui souhaiteraient une information complémentaire sur le sujet et tient à faire savoir que ces personnes peuvent également s'adresser aux bureaux de l'Académie pour des traductions officielles sous garantie.

## IZENOK ERABILTZEKO MODUAZ

Ordoren datozen euskal izenon artean batzuk letra beltzez idatxita datoz, eta beste batzuk letra meheagoz, kako artean. Holakoe-tan bigarrenak aukeran uzten dira, Euskaltzaindiaren ustez lehenak egokiagoak izan arren. Erdal izen batzuek, gainera, ez dute ordainez euskal hitz bakar bat, bi edo gehiago baizik. Dakigunez hizkuntza guztiek dituzte holako sinonimo batzuk —gaztelaniaz *Pastelería*, *Confitería*, *Bombonería*, *Repostería*...—, eta beste horrenbeste ger-tatzen da euskaraz ere, are gehiago izen askok tradizio zaharrik ez dutela kontuan hartuz gero. Kasu huetaan eskubide berdinez aukera daiteke bai bata eta bai bestea letra beltzekoen artean, e. b. *Bi-*

*biblioteca* edo *Bibliothèque* esateko bai *Liburutegi* eta bai *Biblioteca* erabil daiteke.

Izen batzuek —oso gutik— badute kako artean letraren bat. Horrek esan nahi du oraingoz izen hori modu bitara idatz daitekeela, euskalkien edo usadioen arauera, e. b. *Pajareria*: (T)*xoritegi*, berdin idatz daiteke *Txoritegi* zein *Xoritegi*; *Sala de cine*: *Zine(ma)-gela*, orobat jar daiteke *Zinegela* zein *Zinemagela*.

Denda eta kargu izenak euskaraz mugaturik ezarri behar dira, euskal hitzen ohiturako egoera horixe delako. Horretarako aski da izenari azkenean *-a* bat ezartzea, e. b. *Gozotegi* → *Gozotegia*. Berez *-a* batekin amaitzen diren izenak, edo eta jadanik mugaturik daudenak, berdin gelditzen dira: *Liburudenda* → *Liburudenda*; *Paper pintatuak* → *Paper pintatuak*. Salbuespen gisa, ondoko hiru izenok aipa ditzakegu, nazioarteko hitzak izanik *-a* ezarriz gero oso desitxuraturik geldituko liratekeelako: *Bar*, *Boutique* eta *Klub*. Hitzotan, beraz, hobe litzateke azkenean *-a*-rik ez jartzea.

Euskaraz, gainera, ohitura eta usadio jatorra dago denden izenak jabearen izen, ezizen edo deituraren ondoan jartzeko, erdaraz ez bezala, e. b.:

ARANTZA Gozotegia  
MARTIN Oinetakoak  
KURSAAL Zinegela

MIKEL Liburudenda  
JUANJO Bar  
ORTIZ Kirol gaiak

Hau beti honela egitea komeniko litzateke, bai eta titulua adjektibo bat denean ere (halako kasu berezi batzuetan izan ezik).

GAZTERIA Klub  
MERKE Jostundegia  
DOTORE Ileapaindegia

ONENA Liburudenda  
DONOSTIARRA Ardangela  
BIKAIN Optika

Euskaraz eta erdaraz ipintzeko, gainera, honek badu beste abantail bat, alegia, erdiko izena hizkuntza bietarako ongi gelditzea; honela:

Hostelería IBARRONDO Ostatua  
Restaurante FELIX Jatetxea  
Pescadería PILAR Arrandegia  
Boucherie GOIHENETCHE Harategia

Parfumerie JONATEGI Lurrindegia  
Meubles MANEX Haltzariak

Izen hauen erabiltzean dudarik balego, onena Euskaltzaindiaren bulegoetara zuzentzea zenukete, bertan zertifikatu ofizial batez ezarriko dizkizue eta.

### ADVERTENCIAS SOBRE EL USO DE ESTOS NOMBRES

Entre los nombres vascos que vienen a continuación, algunos están impresos en letra bastardilla y otros en tipo redondo y entre paréntesis. En estos casos, los segundos se dejan a libre elección, si bien la Academia considera más adecuados los primeros. Por otra parte, a ciertos nombres castellanos no corresponde un solo nombre vasco, sino dos o varios más. Es cosa normal que en castellano existan algunos nombres de establecimientos con más de un sinónimo, por ejemplo *Pastelería, Bombonería, Confitería, Repostería...*; igualmente ocurre en vasco, donde algunos nombres no tienen una tradición muy antigua. En estos casos se puede elegir con entera libertad entre los distintos términos marcados en bastardilla, es decir, que para el nombre *Biblioteca* es tan correcta la palabra *Liburutegi* como *Biblioteka*.

Algunos pocos nombres presentan una o varias letras entre paréntesis, lo cual quiere decir que, en tanto que la Academia no disponga otra cosa, dichas palabras pueden escribirse de ambos modos, v. g., *Pajarería* se puede escribir tanto *Txoritegi* como *Xoritegi*, y *Sala de cine*, tanto *Zinemagela* como *Zinegela*, ya que dichas palabras, (*T*)*xoritegi* y *Zine*(*ma*)*gela*, permiten ambas formas.

Los nombres de tiendas, cargos y oficios deben usarse en los rótulos en forma determinada en euskera, ya que ésta es la forma habitual de utilización; para esto es suficiente añadir a las palabras una *-a* (el artículo) al final, v. g.: *Pastelería: Gozotegi* → *Gozotegia*. Los nombres que terminan por *-a* final y los que están ya determinados quedan igual: *Librería: Liburudenda* → *Liburudenda*; *Papeles pintados: Paper pintatuak* → *Paper pintatuak*. A modo de

excepción podemos citar tres nombres que, siendo de uso internacional, quedarían de otra manera notablemente alterados visualmente; nos referimos a *Bar*, *Boutique* y *Klub*, a los cuales convendría mejor no añadirles *-a* alguna.

En vasco existe una tradición referente al uso pospuesto de los nombres de establecimiento al de sus dueños o nombres propios, a diferencia del castellano:

ARANTZA Gozotegia	MIKEL Liburudenda
MARTIN Oinetakoak	JUANJO Bar
KURSAAL Zinegela	ORTIZ Kirol gaiak

Convendría mantener esta tradición, incluso cuando el nombre propio se trate de un adjetivo o apelativo, exceptuando algunos casos muy particulares.

GAZTERIA Klub	ONENA Liburudenda
MERKE Jostundegia	DONOSTIARRA Ardangela
DOTORE Ileapaindegia	BIKAIN Optika

Este uso tiene, por otro lado, una gran ventaja cuando se trata de poner letreros bilingües en las tiendas, ya que el nombre propio sirve para las dos lenguas. Así:

Hostelería IBARRONDO Ostatua  
 Restaurante FELIX Jatetxea  
 Pescadería PILAR Arrandegia  
 Carnicería GOENAGA Harategia  
 Perfumería PARIS Lurrindegia  
 Muebles BILBAO Haltzariak

De existir alguna duda en el uso de estos nombres, pueden dirigirse con toda confianza a las distintas oficinas de la Academia de la Lengua Vasca (EUSKALTZAINDIA), donde les extenderán un certificado oficial con el nombre en cuestión.

## REMARQUES SUR L'EMPLOI DE CES NOMS

Parmi les termes en basque qui viennent donnés à la suite, quelques uns sont imprimés en caractères bâtarde, d'autres en italiques et entre parenthèses. Dans ces cas, on peut choisir les seconds, bien que l'Académie de la Langue Basque tienne les premiers comme étant mieux appropriés. Par ailleurs, la correspondance d'une langue à une autre n'étant jamais absolue, il se peut que certains termes français soient transposés non pas par un seul nom basque, mais par deux ou plusieurs. Il est normal de trouver en français des synonymes d'un terme désignant un établissement, par exemple le cas de *Pâtisserie*, *Confiserie*, de même qu'en espagnol, il en est de même en basque, en particulier pour certains noms qui ne présentent pas une tradition fixée. Dans ce cas, on peut choisir en toute liberté parmi les noms marqués en caractères bâtarde; pour prendre un exemple concret, il est aussi correct de transposer le terme *Bibliothèque* par le mot basque *Liburutegi* ou par un synonyme, *Biblioteka*.

En ce qui concerne l'orthographe, certains termes présentent, en basque, une ou plusieurs lettres entre parenthèses, ce qui veut dire que, tant que l'Académie n'aura pas décidé, les mots en question peuvent être écrits de ces deux façons. Par exemple, *Oisellerie* (espagnol, *Pajarería*), qui peut s'écrire aussi bien *Txoritegi* que *Xoritegi*, ou *Salle de Cinéma*, qui apparaît comme *Zinemagela* ou *Zinegela*, puisque ces deux mots permettent deux réalisations: (*T*)*xoritegi* et *Zine*(*ma*)*gela*.

Les noms de magasins, professions et métiers doivent s'employer en basque sous leur forme déterminée, lorsqu'ils apparaissent dans des écriteaux, enseignes, affiches publicitaires, étant donné que c'est ainsi qu'on les utilise normalement. Par exemple, *Pâtisserie*: *Gozotegi* → *Gozotegia*. Les noms finissant en *-a* et les expressions déjà déterminées ne varient pas: *Librería* (espagnol), *Librairie* (français): *Librudenda* → *Librudenda*; un magasin de tapisseries et de *Papiers peints*: *Paper pintatuak* → *Paper pintatuak*. On peut remarquer, comme exception, trois emprunts à valeur internationale dans lesquels l'application de la dite règle entraînerait une trop grande altération autant pour la vue que pour l'ouïe; il s'agit de *Bar*,

*Boutique et Klub*, qu'il vaut mieux conserver tels quels sans ajouter de *-a* finale.

Il existe en langue basque une tradition consistant à préposer aux noms d'établissements les prénoms ou noms de famille des propriétaires, différente de la construction de la langue espagnole et rappelant celle du français du type *Marie, couture*, ou *Jean, coiffeur*, mais à l'opposé de, par exemple, *Libraire Larousse*:

ARANTZA Gozotegia	MIKEL Liburudenda
MARTIN Oinetakoak	JUANJO Bar
KURSAAL Zinegela	ORTIZ Kirol gaiak

Il convient de maintenir cette tradition qui apparaît dans maintes constructions, et de la garder même lorsque le nom à préposer est un adjectif ou une appellation, à l'exception de quelques cas très particuliers.

GAZTERIA Klub	ONENA Liburudenda
MERKE Jostundegia	DONOSTIARRA Ardangela
DOTORE Ileapaindegia	BIKAIN Optika

Cet emploi présente, par ailleurs, un grand avantage lorsqu'il s'agit d'utiliser des écriteaux bilingues dans des magasins, puisque le nom propre ainsi placé sert aux deux langues. Ainsi on a :

Hôtellerie IBARRONDO Ostatua.  
 Restaurant FELIX Jatetxea.  
 Poissonnerie (Vente de poisson) PILAR Arrandegia.  
 Boucherie GOIHENETCHE Harategia.  
 Parfumerie JOANATEGI Lurrindegia.  
 Meubles MANEX Haltzariak.

Si les usagers de ces noms de commerces avaient des doutes ou des inconvénients concernant l'emploi ou la valeur de ces noms en basque, ils peuvent s'adresser, en toute confiance, aux bureaux de l'Académie de la Langue Basque (EUSKALTZAINDIA), qui pourra leur délivrer un certificat officiel accréditant la validité du terme en question.

## NOMENCLATOR DE TERMINOS COMERCIALES

Academia  
Aeropuerto  
Agencia  
*Agente*  
Alimentación  
*Alimentos*  
Almacenes  
vide Grandes Almacenes  
Aparcamiento  
Armería (fabricación)  
Armería (almacén)  
Armería (establecimiento de venta)  
*armero (obrero)*  
*armero (vendedor)*  
Arte y Decoración  
Autobuses  
Autoescuela  
Ayuntamiento  
*alcalde*  
Banco  
*empleado de propietario*  
*director de*  
Bar  
*tabernero*  
Barbería  
*barbero*  
Bebidas  
Biblioteca  
*bibliotecario*  
Bodega (cava)  
Bodegón (bar)  
Bombonería  
vide Pastelería  
Boutique  
Butano (almacén de)  
*repartidor de butano*  
Café (establecimiento)  
Cafetería  
Caja (lugar)  
Caja (carga)  
*cajero*  
Carpintería  
*carpintero*  
Carnicería  
*carnicero*

## LISTE DE TERMES COMMERCIAUX

Académie  
Aéroport  
Agence  
*agent*  
Alimentation  
*alimentation*  
  
Parking  
Armurerie (fabrication)  
Armurerie (dépôt)  
Armurerie  
  
*armurier (ouvrier)*  
*armurier (marchand)*  
Art et Décoration  
Autobus  
Auto-école  
Mairie  
*maire*  
Banque  
*employé de banquier*  
*directeur de*  
Bar. Café  
*tavernier*  
Salon de coiffure  
*coiffeur*  
Buvette  
Bibliothèque  
*bibliothécaire*  
Cave  
Taverne  
  
Boutique  
  
Café (établissement)  
Cafétéria  
Caisse  
Caisse (emploi)  
*caissier*  
Menuiserie  
*menuisier*  
Boucherie  
*boucher*

## MERKATALCO IZENDEGIA

Akademia  
Aireportu  
Agentzia  
agente (agentzialari)  
Janaridenda  
jangaiak  
  
Aparkaleku (Parking)  
Harmagintza  
Harmategi  
Harmadenda  
  
harmagin  
harmasaltzaile  
Arte-Apaingarriak  
Autobusak  
Autoeskola  
Herriko Etxe. Udaletxe  
alkate  
Banku  
bankari (bankulari)  
bankujabe  
bankuburu  
Bar. Taberna  
tabernari (bargizon)  
Bizartegi  
bizargin, bizargile  
Edariak  
Liburutegi. Biblioteca  
liburuzain, bibliotekari  
Upelategi  
Ardangela. Ardandegi  
  
Boutique  
Butanotegi  
butano (banatzaille-sal-tzalle)  
Kafetxe  
Kafetegi  
Kutxa (kaxa)  
Diruzaintza-(goa)  
diruzain  
Zurgindegi  
zurgin  
Harategi  
harakin

Centro sanitario	Maison de santé	Eritegi
Cine (sala de)	Salle de cinéma	Zine(ma)gela. Zine(ma)- leku. Zine(ma)-areto
Cinema (arte)	Cinéma (art)	Zinema
Película	Film	Filme
Clínica	Clinique	Klinika
médico	médecin	mediku
enfermero-a	infirmier-ère	erizain
Club	Club	Klub (batzoki, bazkun)
Comestibles		
(vide alimentación)		
Comidas	Restaurant	Janariak
Comunicaciones	Communications	Komunikabideak
Confecciones	Confecction	Jantzigintza
Confitería	Confiserie (vide Paste- leria)	
Construcción (de vi- viendas)	Construction	Ettagintza
Construcción (en ge- neral)	Construction	-gintza
constructor	constructeur	etxegile (-gile)
Convento	Couvent	Komentu
Corsetería	Boutique de corsets	Kortsetegi-(gerruntza denda)
corsetero	corsetier, ière	hortsegile (saltzaile) (gerruntzegile- sal- tzaile)
Correos	Poste	Posta
Casa de Correos	Bureau de la Poste	Postetxe
cartero	facteur	postari
Cristalería (cristal de calidad)	Cristallerie (lieu de vente)	Kristaldegi
cristalero	verrier	kristalari
Charcutería	Charcuterie	Urdaitegi
Chocolatería	Chocolaterie (établissement de vente)	Txokolategi (txokola- tedenda)
Churrería	Crêperie	Txurrodenda
churrero	marchand de crêpes	txurrogile (saltzaile)
Degustación (lugar de)	Dégustation (lieu de)	Dastaleku
Delegación	Délégation	Ordezkaritza
delegado	délégué	ordezkari
Deportes	Sports	Kirolak
Objetos deportivos	Objets pour le sport	Kirol gaiak
deportista	sportif (sportsman)	Kirolari
Despacho (oficina)	Bureau	Langela
Dirección "Cargo"	Direction	Zuzendaritza
director	directeur	zuzendari
Discos	Disques	Diskoak
Casa de discos	Magasin de disques	Diskodenda. Diskoetxe
Discoteca	Discothèque	Diskategi
Diversiones	Lieu de diversion	Jolasak
Domicilio	Adresse (domicile)	Bizileku
Electrodomésticos	Electroménagers	Etxetresnak. Etxerako tresnak
Material eléctrico	Material électrique	Elektra gaiak
Aparatos eléctricos	Appareils électriques	Elektra tresnak
electricista	électricien	elektrikari (argiketari)



Entrada	<i>Entrée</i>	Sarleku (entrada a un edificio)
		Sarrera (entrada en general)
		Sarbide (acceso a un lugar, autopista, etc.)
Escuela	<i>École</i>	Eskola
Ikastola	<i>École basque</i>	Ikastola
profesor, -ora	<i>professeur</i>	irakasle
señorita		andereño
maestro	<i>maître, instituteur</i>	maisu
maestra	<i>institutrice</i>	maistra
Estación	<i>Gare, station (mètre)</i>	Geltoki
Fábrica	<i>Usine (fabrique)</i>	Fabrika. Ola. Más pro- piamente «ferrería» «ferromerie» y por extensión «fábrica»
obrero	<i>ouvrier</i>	langile
encargado	<i>contremaitre</i>	arduradun
amo, patrono	<i>propriétaire, patron</i>	ugazaba (fabrikadun, nagusi)
fabricante	<i>fabricant</i>	fabrikatzaile
Ferrocarril	<i>Chemin de fer</i>	Trenbide
encargado del tren	<i>chef de train</i>	trenzain
Floristería	<i>Magasin de fleurs</i>	Loradenda
Flores	<i>Fleurs</i>	Loreak
florista	<i>fleuriste</i>	loresaltzaile
Fotografía (el arte)	<i>Photographie</i>	Fotografía
fotografía	<i>Photographie</i>	fotografia argazki
retrato	<i>portrait</i>	erretratu (potret)
Establecimiento de re- tratos	<i>Maison de photo</i>	Fotografi etxe. Argazki etxe
Tienda de objetos foto- gráficos	<i>Maison d'appareils pho- tographiques</i>	Fotografi denda. Ar- gazki denda
fotógrafo	<i>photographe</i>	fotografo: argazkilari
Frutería	<i>Fruiterie</i>	Fruitategi (fruitadenda)
Frutas	<i>Fruits</i>	Fruituak
frutero	<i>fruitier</i>	fruitari (fruitusaltzaile)
Garaje	<i>Garage</i>	Garaje (kotxetegi)
Casolinera	<i>Poste d'essence</i>	Hornitegi
Grandes Almacenes	<i>Grands Magasins</i>	Erostatxe Haundiak
Heladería	<i>Magasin du glacier</i>	Izokitegi (Izozkidenda)
Helados	<i>Glaces</i>	Izozkiak
heladero	<i>glacier</i>	izozkigile, izozki- saltzaile
Hospedería	<i>Pension (auberge)</i>	Arroztegi
hospedero	<i>hôtelier</i>	arrotzain
Hospital	<i>Hôpital</i>	Ospitale
Hostelería (hostal)	<i>Hôtellerie</i>	Ostatu
hostelero	<i>hôtelier, ière</i>	ostalari
Hotel	<i>Hôtel</i>	Hotel
Huevería	<i>Boutique du marchand d'oeufs</i>	Arraultzadenda
Huevos (venta de)	<i>Oeufs (vente de)</i>	Arraultzeak (Arraultze salketa)
huevero	<i>marchand d'oeufs</i>	arraultzari, arraultze- saltzaile

Iglesia	Eglise	Eliza
obispo	évêque	apezpiku
sacerdote	abbé (curé)	apaiz, apez
abad	abbé	abade (apata)
sacristán	sacristain	sakristau
Imprenta	Imprimerie	Moldiztegi
impresor	Imprimeur	moldizgin, inprima- tzaile
Instituto	Lycée (institut, centre)	Institutu
Joyería	Bijouterie	Bitxitegi (bitxidenda)
joyero	bijoutier (joaillier)	bitxigile, saltzaile
Juegos (sitio de)	Jeux (lieu de)	Jokoak (vide Diversio- nes)
Juguetería	Magasin de jouets	Jostailudenda
Juguetes	Jouets	Jostailuak
Juzgado	Palais de Justice	Hauzitegi
Kiosko	Kiosque	Kiosko
Lechería	Crémèrie (laiterie)	Esnetegi. Esnedenda
Lechero	laitier (crémier)	esneketari, esnesaltzaile
Lencería	Lingerie	Mihisedenda
Librería	Librairie	Liburudenda
Libros	Livres	Liburuak
librero	libraire	liburusaltzaile
Marroquinería	Maroquinerie	Larrukitegi, Larruki- denda
marroquero	maroquinier	larruki-saltzaile
Matadero	Abattoir	Hiltegi
matarife	tueur ou boucher d'abattoir	abere-hiltzaile
Mecánica	Mécanique	Mekanika
establecimiento de ob- jetos mecánicos	établissement d'objets mécaniques	Mekanikategi
mecánico	mécanicien	mekanikari
Mensajería	Messageries (vide Reca- dista)	
Mercado	Marché	Merkatu. Azoka
Mercería	Mercerie	Kinkiladenda
Microbuses	"Microbus"	Mikrobusak
Monasterio	Monastère	Monasterio
Mueblería	Magasin de meubles	Haltzaridenda
Muebles	Meubles	Haltzariak (erredizak)
mueblerero	marchand de meubles	haltzari-saltzaile
Museo	Musée	Museo (erakustetxe)
Música	Musique	Musika
Instrumentos musicales	instruments de musi- que	Musikatresnak
Objetos litúrgicos	Vêtements liturgiques	Liturgi gaiak
Obras públicas	Travaux publics	Herri lanak
Oficina	Bureau	Bulego
oficinista	employé de bureau	bulegogizon
Optica	Optique	Optika
óptico	opticien	optikari
Pajarería	Oisellerie	(T)xoridenda
pajarero		(t)xorisaltzaile; (t)xori- zain
Panadería	oiselier	Okindegi
panadero	Boulangerie	okin (ogisaltzaile)
	boulangier	

Papelera (fábrica) papelería (tienda) <i>almacén de papel</i> Papeles pintados	Papeterie (s) Papeterie <i>dépôt de papier</i> Papiers peints (décora- tion)	Paperfabrika Paperdenda Papertegi Paper pintatuak
Paraguëria <i>paraguas</i> <i>paraguëro</i> <i>paraguëro</i>	Magasin de parapluies <i>parapluies</i> <i>fabricant de parapluies</i> <i>marchand de parapluies</i>	Euritakodenda Euritakoak euritakogile euritako-komponentzai- le, saltzaille euritakontzi
<i>recipiente de paraguas</i> Pastelería <i>pastelero</i> Peletería	<i>porte-parapluies</i> Pâtisserie <i>pâtissier</i> Pelleterie, magasin de fourrures <i>fourrures</i> <i>pelletier</i>	Gozotegi, Gozodenda gozogile; gozosaltzaille Larrutegi, Larrudenda
<i>pieles</i> <i>peletero</i>		larruak larruontzaille; larrusal- tzaille
Peluquería de caballe- ros (vide Barbería)		
Peluquería de señoras <i>peluquero -a, de señoras</i>	Salon de coiffure <i>coiffeur, -euse</i>	Ileapaindegi (orraztegi) ileapaintzaille (orrazta- tzaille)
Perfumería Pescadería <i>pescadero, -a;</i> <i>pescador</i> Piscina Platería	Parfumerie Poissonnerie poissonnier, ière <i>pêcheur</i> Piscine Orfèverrie	Lurrindegi Arrandegi arrainsaltzaille arrantzale Igerileku Zilargindegi (zilarden- da)
<i>platero</i> Pollería	<i>orfèvre</i> Chez le marchand de volailles	zilargin Oilaskodenda. Hegaz- tidenda. Hegaztidenda es más propiamente «establecimiento de venta de aves en ge- neral».
<i>pollero, vendedor de</i> <i>aves</i>	<i>marchand de volailles</i>	oilasko-saltzaille, hegaz- ti-saltzaille
Productos químicos Propano	Produits chimiques Propane (dépôt de) <i>livreur de bouteilles de</i> <i>de propane</i>	Kimika gaiak Propanotegi propano-banatzaille, -saltzaille
Quesería <i>quesero (fabricante)</i> <i>vendedor de queso</i> Química	Crèmerie <i>crémier</i> <i>marchand de fromages</i> Chemie (vide Produc- tos químicos)	Gaztandegi gaztangin (gaztangile) gaztasaltzaille
Recadería <i>recadista</i> Relojería <i>relojero</i>	Livraison (a domicile) <i>livreur</i> Horlogerie <i>horloger, -ère</i>	Mandatalgoa mandatari Erlojutegi erlojari, erloju-kon- pontzaille
Reparaciones	Réparations (en gene- ral)	Konponketak
Restaurante	Restaurant	Jatetxe



Vidriería (de vidrios). De vidrios de ven- tana. <i>vidriero</i>	Vitrierie-de vitres-de vi- tres de fenêtre <i>vitrier</i>	<b>Beirinategi</b> <b>beirinalari</b>
Whiskería	Whiski, Club	<b>Whiskitegi</b>
Zapatería zapatos, calzado zapatero (vendedor) fabricante de calzado zapatero remendón	Magasin de chaussures <i>chaussures</i> <i>marchand de chaussures</i> <i>fabricant de chaussures</i> <i>savetier</i>	<b>Zapategi</b> <b>Oinetakoak (oskiak)</b> <b>zapatasaltzaile</b> <b>zapatagin (oskigile)</b> <b>zapatari</b>

## Epe berri baten aitzinean

Euskaltzaindiko lagunak:

Joan den azaroko bileran Zuzendaritzako kargudunen hautatzea egin da beste bi urtetarako.

Epe berri baten aurrean gaude, beraz. Ez da alferrekoa izango gure elkargoaren egoerari, premiei eta abar gain begiratu bat botatzea. Esku artean dauzkagun asmo eta egitekoak bana-banaka kontatzea. Hoiek aitzinatzeko hartu behar lirakeen bideak aztertzea. Deni edo ahal direnei buru eman dezaiegun. Eta gure egoerak salatzan dituen ajeentzat sendabidea bila dezagun.

Baditugu zenbait lan martxan jarriak. Batzuk bizkorrago dabil-tza, beste batzuk motelago. Aipa ditzadan hoiek lehenik. Aipatu, eta bakoitzak une honetan eskatzen duen bultzada edo jokamolde berezia esan:

1. Aditz batasuna aurrera eramatea.—2. Salgai diren euskerazko liburuen katalogua bukatu eta argitaratzea.—3. Herri eta herri-tarren izenen batzordeko lanak bultzatzea.—4. Etxegintza hiztegiaren batzordea bultzatzea.—5. Lege gizonen behar duten hiztegiaren batzordeari eragitea.—6. Euskaltzaindiarentzat legezko nortasun osoa lortzeko egin behar diren urratsak egitea.—7. Euskaltzaindiko biblioteka apailatzea eta behar den itxuran jartzea.—8. Arautegi berriak osagarri bezala eskatzen dituen barne erregelak egitea.—9. Eskola hiztegiaren lanak aurrera eramatea.—10. «Euskal Izendegia» Juzgaduetan sartzeta.—11. Baionan Euskaltzaindiaren Ordezkaritza bat jartzeko asmoa zertan den jakin eta, ahal bada, asmo hori aurre-

ra eramatea.—12. Gure elkargoarentzat autofinanziazio bide bat biltzeko kezka eta lanei bultza egitea.

Obra hauek gaur egun zein egoeratan diren laburki esango dut, eta bai bakoitza bultzatzeko egin behar dena aditzera eman ere.

1. *Aditz batasuna*.—Hartako batzordeak urrats handi bat eman du amaitzera doan urte honetan. Bide erdia edo gehiago eginik denez gero, gainerakoa ere buka dezatela eskatzen diet batzordeko jaunei. Gaur bazkalondoan bilera txiki bat egingo dugu Zuzendaritzakoek eta aditz batzordekoek, bigarren ekinaldi hontako lanei nola hasiera eman istudiatzeko.

2. *Salgai diren euskerazko liburuen katalogua*.—Aspaldiko asmoa dugu hau. Fitzategia Donostiako Ordezkaritzan egin zen, oso-oso ez bada, parterik handiena behintzat. Gaur egun Nikolas Alzola Anaiaren eskuetan dago lan hau. Aurki bukatuko digulakoan nago. Liburutegietan ta abar mesede ederra egin lezake katalogu honek, liburu saltzaileek ez bait dakite gehienetan euskerazko liburuen berri eta are gutiago non aurki daitezkean edo hoiek eskuratzeko nora jo behar duten. Teknika aldetik lan hau guztiz konplutua eta akats gabea egin nahi baldin badugu, beharbada ez dugu sekula santan egingo. Halakoa izan ezta ere, bere xedea ongi xamar bete lezakena ezin eginik ez daukagu, eta urrats bat izango litzake, gero bihar edo etzi beste bat hobe egiteko. Baina hobe beharrez zerbaitekin irtereira ausartzen ez bagara, beti hutsean egongo gara.

3. *Herri eta herritarren izenen batzordea*.—Batzorde hau ere aspaldidanik izendaturik dago. Fitxak atera ziren gaiak biltzeko. Orain lanean abia dadila eskatzen zaio. Izan ere orain arte erdi lo egon da. Batzorde honen idazkari den Lizundiari eskatzen diot behar diren pausuak eman ditzan langileei eragiteko. Garrantsi handienekoa derizkiot lehen-bai-lehen geure herrien Nomenklator bat, Euskaltzaindiak ofizialki onartua, eukitzeari.

4. *Etxegintza hiztegiaren batzordea*.—Euskal Herriko Arkitektuen kolejoak eskatu zigun lan hau. Kolejio hori lana bere kontura argitaratzeko prest dago, gainera. San Martin jaunak azaroko batzarrean lanen egoeraz kontu eman zuen. Dirudienez, aurreratu

xamar daude. Izenok hautatu, garbitan jarri eta Euskaltzaindiari aurkezteko garaia ez ote da heldu? Hala nahi genduke.

5. *Lege gizonek behar duten hizteginaren batzordeari eragitea.*—Lan hau Arrue jaunaren bidez etorri zitzaigun. Hartarako batzordea izendaturik dago, baina ez dakit lanean hasi den. Gauza hau ere zertan den ikus eta mobi dezala Lizundiari eskatzen diot.

6. *Euskaltzaindiarentzat legezko nortasun osoa lortzea.*—Euskeraren alde Euskaltzaindiak zinezago joka ahal dezan, honek bere nortasuna lege aurrean aitortua izatea nahi genduke. Arrue jaunaren eta batzordetxo baten eskuetan dago arazo hau. Pausu batzuk emanak dituela badakit. Asmo hau egia bihur dadin, egin behar direnak egin ditzatela eskatuko nieke batzordeko jaunei.

7. *Euskaltzaindikoko biblioteka erraberritzea eta behar den itxuran jartzea.*—Hau ere aspaldiko asmoa dugu. Nahi genduke, alegia, gure etxe hontako biblioteka hau jantzi, euskera eta linguistika gaietako biblioteka espezializatua bihurtu, eta konsulta leku taxuzko bat izan dadin, bai Euskaltzaindikoentzat eta bai konpokoentzat ere. Azken urteotan ikaslari jende artean euskal istudioen kezka asko piztu da, eta maiz etortzen dira Euskaltzaindiara galderak eta azterketak egitera. Dirua izan den eran zerbait egin ere da: arasa berri batzuk erosi, eta abar. Baina lan handia dugu oraindik egiteko: liburuak behar bezala ordendu, katalogatu, falta zaizkigunetarik beharrezkoenak erosi, ta abar. Gure bibliotekari den Irigoien jauna asmo horretan dela badakit. Diru eskasia erremediatzen den neurrian uste dut asmo hoiek egia bihurtuz joanen direla.

8. *Arautegi berriak osagarri bezala eskatzen dituen barne erregelak egitea.*—Arautegia dugu geure oinarri legea, baina gehienetan oso zabala, xehetasun txikietan sartzen ez dena. Arautegiak berak esaten du, gainera, lege haiek behar lirakeen erregelez osatu behar direla. Euskaltzaindikoko liburutegiari, aldizkariari, batzorde eta ordezkarietzen egitura eta ibilpideari, batzarrei, karguen hautatze moduari, izendapen berriak egiteko erari eta abar dagozkien erregelak egin beharko lirake, ene ustez. Dena itsumustuan eta kolpean egiterik ez dago. Dena batera egitea ere beharbada ez da komeni, baina ahal bezala eta pixkaka egin beharko dira hoiek guztiak.



9. *Eskola hiztegiaren lana aurrera eramatea.*—Donostiako Ordezkaritza gogotik ari da hain beharrezko dugun hiztegi gintza honetan. Zati bat Euskaltzaindiak ofizialki onartua da. Beste sail batzuk erdi prestatuak daude. Neure eta guztion izenean esker ona agertu nahi diet jaun hauei, eta beren lan hori gogoz aurrera eramateko erregutzen diet.

10. «*Euskal Izendegia*» *Juzgaduetan sartzea.*—Guztiok daki gu zer lanak izaten diren euskerazko izenekin. Egunero datoz gure Ordezkaritzetara garbitasunak eta kondaira xehetasunak izen hoiei buruz eskatzera. Premia honi erantzuteko, lehen Irigarai jaunak eta orain berriki Satrustegik, Euskaltzaindiaren aginduz, izendegi bana osatu zuten. Azkenengo hau, gainera, Juzgaduetako eskabideei erantzuteko behar zen bezala, geografi eta kondaira xehetasunez ongi horniturik dator. «*La Vasconia*» Bankuak argitara eman digu izendegi hau edizio guztiz apain eta ugari batean. Orain liburu hori autoridadeei Euskaltzaindiaren izenean eskeini nahi litzake. Balio ofizial bat emango ez badiote ere, kontuan har dezaten behintzat. Adrian Zelaia jaunak eta geure elkargoako lege gizonak egingo ahal digute mesede hau!

11. *Baionan Euskaltzaindiaren Ordezkaritza bat jartzeaz.*—Asmo hau ere ez da oraingoa. Asmoa baino gehiago ere badela uste dut. Enseiu eta plan batzuk egin ziren. Ipar aldeko gure lagunek, hango posibilitateen araura, ikus bezate, arren, obra hau aurrera eramateko biderik edo modurik ote den.

12. *Gure elkargoarentzat autofinanziazio bide bat aurkitzeaz.* Diru eskasia erremediatzea ez da beharbada gure premiarik handiena, baina bai, besteak beste, prinsipaleenetako bat. Agintzen diren lanak eta batzarretara etortzearen gastuak ordaintzen ez diren bitartean, zaila da oso gauzak behar bezain bizkor ibil araztea. Emprestito bat eskatzea ere pentsatu da. Baina zulotik irten ordez zulo handiagoan eror ez gaitezen, ongi pentsatu beharko da diru hori nola eta zertan enplegatu. Gure diruzain, Euskaltzaindikoko Idazkari eta batzorde hortako beste lagunei eskatzen diet zentzuz eta buruz pentsatutako plan bat egin dezaten.

Hoietaz gainera, badira oraindik beste asmo batzuk. Batzuk asmoak besterik ez dira; beste batzuk, asmoak baino gehiago, abiatzen hasiak. Bana-banaka aipatuko ditut hoiek ere:

13. *«Euskera» aldizkaria gehiago zabaltzeko eta finantzatzeko bideak aurkitu.*

14. *Laguntzaile eta ohorezko berriak izendatu behar ote diren ikusi.*

15. *Bertsolari txapelketak berriz antolatu.*—Puntu garrantzitsu hau istudiatzeko badugu batzordetxo bat, eta badakit ez dagoela lo.

16. *René Lafon maisu jaunaren Omenaldiko liburua prestatu eta argitaratzea.*

17. *Euskeraren soziologiko egoeraz istudio bat eragitea.*

18. *Euskal Herriko linguistiko Atlas delakoa egitea.*

19. *Gure hileroko batzarrak hobetzea eta ahal dela beti iker saileko txostenen bat hoietan jartzea.*—Batzarretarako Moderatzaile guztiz aproposa noizbait aurkitu dugu gure Lehendakari ordearen pertsonan, eta horrek ere asko esan nahi du batzarrok hobetzeko. Horrez gainera, eskutitz bat egin zaie euskaltzain oso guztiei eta laguntzaile batzuei, arren txostenen batzuk presta ditzatela eskatuz. Guztion ekarriaz batzarrok jantzi eta hobetuko direlakoan gaude.

---

20. Aipamen berezi eta aparteko bat merezi du oraindik beste obra handi batek. Guztiok dakizuten bezala, gure lagun Mitxelena jauna aspaldiko urteetan, Euskaltzaindiaren aginduz eta mandatuz, Hiztegia gertutzen ari da. Neurri handi batetan egina ere badu.

Joan den hileko batzarrean euskaltzain jaun batek bere galdeekin berriz ere mahain gainean jarri zuen hiztegi honen kontua. Eta nik, Mitxelena berarekin hitz egin ondoren, hauxe esan nahi dut. Honelako obra handi bat inprentara eraman baino lehen, lan ikaragarria egin beharra izaten da, lan materiala gehienetan, baina

gizon trebe baten gidaritzapean egin behar dena, eta Mitxelena jaunak, gaur dituen zereginekin, berak bakarrik, laguntzaile gabe, lan guzti hoiek nekez egin ahalko ditu. Euskaltzaindiak, nik uste, bilatu beharko du lan hori Mitxelenari arintzeko modua, eta era hortara argitaratze aurreko prestamenak bizkortu.

Asmo horretan gara, gainera. Bagabiltza, alegia, problema honi atarramentu on bat emateko bidea bilatzen.

---

Hitzerdi bat esan nahi dut, bukatzeko, maiz gure inguruan sortzen diren eskatima eta sesioen gainean ere. Euskera eta Euskaltzaindia aitzakia bezala hartuz sortzen diren eskatimak, esan nahi dut.

Kruzaden garaia pasatua zela uste nuen nik. Hala ere, gure artean entzuten eta irakurtzen diren zenbait gauza gogoratzean, hauxe galdetu behar izaten diot maiz neure buruari: Nun gaude? Zer arotan bizi ote gara hemen? Bai alde batetik eta bai bestetik ere maiz euskera lotu nahi izaten dute beren ideologia eta alderdien zerbitzura. Euskera zerbitzatu nahi dutela aldarrikatu eta itxura egin, baina gero beren interesen morroi bihurtu.

Euskera herri baten ondadea da. Baina herri osoarena, alderdi, ideologia eta sineskera guztien gainetik. Euskaltzaindiak lan egin behar du herri baten ondade hau beti guztiona izan dadin, eta inongo taldek monopoliza ez dezan. Euskaltzaindiaren barnean kolore guztietakoak egon daitezke, baina elkargoa bera beti taldekerietarik at eta lekora. Eta hizkuntza bera beti guztion ondade eta ondasun bezala ager dadin bere indar guztiez lan egin behar du.

Euskera gauzetan eta Euskaltzaindiko arazoetan, berriz, Euskaltzaindiaren barrenean bertan ere, denok iritzi bereko beti ez izatea, horrek ez gaitu bat ere harritu behar. Espainiako Apezpikuen konferentzian ere ez ahal digute aitortu apezpikuok ez direla beti iritzi bateko izaten? Guztiz normala da hori alde batetik, eta baita onuragarri ere izan daiteke bestetik, denok hitz eginez eta elkar adituz, iritziok hobetuaz, finduaz eta argituaz joan daitezten. Gainera, gure Arautegian ate bat baino gehiago uzten da zabalik, eus-

kaltzainek euki ditzaketan espak agertzeko edo egin nahi dituzten karguak egin ahal izateko. Eta kejarren bat izan dezaketen jaunei, Euskaltzaindikoak direnean, behar den bidez beren keja hoiek ager ditzatela eskatuko nieke. Izan daitezkeen diferentziak geure artean leialki eta gizonki zuri eta garbi ditzagula, alegia. Eta Euskaltzaindiak Euskaltzaindi bezala daukan bidea norbaiti hontan edo horretan gogoko ez izanagatik, horrek ez du inor eraman behar Euskaltzainditik aldendua bezala egotera. Euskaltzaindiak ez du inor behartzen iritziz aldatzera; baina beste aldetik, bistan da, ezin egon daitekela egin behar duena egin gabe ere, hau edo hori edo harako hura iritzi hortakoa ez dela eta. Eta iritzien desberdin hori gora behera, beti dago lekua denontzat, eta denon arteko elkar hizketarako.

Euskaltzaindia denen beharrean da, eta denei eskatzen diet umilki eta zintzoki Euskaltzaindiko lanetan parte har dezaten.

*L. Villasante*

Bilbon, abenduak 29, 1972.

## **Euskaltzainburu jaunak egiten duen adierazpena**

Euskaltzaindiari eta Euskaltzaindiaren lanei buruz gure artean gero eta gehiago zabaltzen ari diren eta egiazko ez diren jardunak ikusirik, beronen Lehendakari bezala, adierazpen hau egin beharrean aurkitzen naiz. Euskaltzaindiak berak joan den abenduaren 29an Bilbon egindako batzarrean eskatu zidan agerpen hau egitea, sortu nahi den giroa kontuan edukiz.

---

Euskaltzaindia Instituzio bat da, 1918. urtean Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako lau Diputazioen babespean sortua. Helburu eta xede bezala du euskeraren alde lan egitea, hizkuntza honen idazlangintzarako argibideak eta arauak ematea, ta abar. Euskal Herriko eskualde, euskalki eta euskera mota guztien ordezkariak daude bertan.

Euskaltzaindiak kultur-jakintzaz bakarrik du zer ikusi eta deus ez politikaz ezta inongo taldekeriaz ere. Pluralismorik jatorrena egon da beti eta dago orain ere haren barnean.

Euskaltzaindiak garbi ikusi du beti euskera herri baten ondarena dela, eta herri osoarena, gainera, eta hain zuzen horrexegatik, ez du nahi ondasun hori talde baten eskuetan eror dadin.

Bide horretan barrena ibili da beti Euskaltzaindia eta dabil orain ere.

Gizonen artean gehienetan gertatzen den bezala, Euskaltzaindiaren barrenean ere, hizkuntza arazoetan, euskaltzain guztiak iritzi

bereko ez izatea, gerta daitekeena da, eta horrek ez gaitu bat ere harritu behar. Edozein Institutuziotan egunoro gertatzen da hau, baina horregatik egin behar duena egin gabe ere ez du egon behar. Egotzi zitzaizkion betebeharrak ez lituzke beteko eta.

---

Sorrera egunean berean eskatu zitzaion Euskaltzaindiari (eta honen zeregin nagusien artean hala azaltzen da orduko Arautegian. Begira 6. a): «Ekingo du euskalgi oroen odolez azitako euskal-eredu bat gertutzen, itzez, itz-yoskeraz ta idazkeraz albait erabatetsuena, euskaldun guziak idatz-irakurketan erabiltzekoa».

Ez gara hemen hasiko 50 urtetan zehar arazo hontaz egin diren lan eta agertu diren asmo eta iritzien kontu ematen. Euskaltzaindiak berak, ordea, ez zuen sekula agiririk eman, edo gauza aski heldua ikusten ez zuelako, edo orduko gizarte egoeran horrelako asmo bat aurrera eramateko biderik ageri ez zelako.

Euskaltzaindia sortu zeneko 50 urteak ospatzekoan, ordea, berri ere puntu hau aztertu eta, ahal bazen, erabaki behar zela pentsatu zen. Izan ere, gure herriak azken urteotan ezagutu dituen aldatetokian, problema honi soluzioa ematea beharreko ez eze, premiatsu eta luza ezina ere bilakatu da. Eta beste aldetik gertatu den euskal istudioen berriztapenak problema hau behar bezalako jakitate, zentzu eta zabaleraz erabakitzeko esperantza uzten zuen.

Hoiek hola, Euskaltzaindiak Biltzar bat antolatu zuen, berariaz gai honi eskeinia. Biltzar hau Arantzazun egin zen 1968ko urrian. Biltzarra bukatzerakoan, euskaltzain osoek elkarrekin bildu eta agiri bat idatzi eta onartu zuten. Arantzazuko agiri hortan ortografia, izenen deklinazio eta hiztegiari dagozkion zenbait puntu ukitzen dira.

Agiri hura irakurri besterik ez dago kontseilu edo gomendio gisa emana dela ikusteko. Ez da inor behartzen iritiz aldatzera, beste pentsamolde bat izateko eskubidea ez zaio inori kentzen, euskera idatziaren batasuna lortzeko beste bide egokiago bat bilatzea edo proposatzea ez zaio inori galeratzen.

Gauza bat ezin egin daiteke, ordea: Euskaltzaindiak ez duela bat ere agiririk eman, esan; edo Agiri horren balioa dudatan ipini,

batez ere Euskaltzaindiaren aldizkarian bertan Biltzar hartako lan eta agiriakin batean datorrenez gero («Euskera» 1968, 250 orrialdean). Eta hain zuzen, horrelako gauzak esaten zirelako Euskaltzaindiak, 1970ko uztailaren 29ko batzarrean, Agiri hura berea zuela berriro aitortu behar izan zuen. (Ikus «Euskera», 1971, 99 orrialdean).

---

Beste gauza bat erruz eta maila orotan (baita erlijio eta pastoral mailatan ere) zabaltzen dute Euskaltzaindiaren batasun bideari ateak itxi nahi dizkietenak: bide hori ateoena dela edo erlijio ga-beena.

Asmazio honek ez du ez buru eta ez buztanik, ez itxurarik, ez egiarik ez egia antzik ere. Alde hortatik gezurtatzea ere ez luke mezezi. Baina behin da berriz ta azpikeriaz hori sinets arazi nahi dutela ikusirik, egiaren alde aurpegia ateratzera behartua nago. Neure indar eta ahal guztiaz salatu nahi dut, bada, hori egia ez dela. Arazo honek hizkuntzaz bakar-bakarrik du zer ikusi, eta deus ez erlijioaz, fedez edo politikaz. Bakoitzak eskubide osoa du bere pentsakera edo ikusmolde berezia izateko euskera idatziaren batasun kontuan. Baina Jainkoren amorioarren! ez daitezela zeruko gauzak eta lurrekoak berriro nahas.

Eliz gizona naizen aldetik, min handia ematen dit erlijioa beste zer-edo-zerren morroi hartu nahi izate horrek. Badakigu joko hoiek ez diotela erlijioari mesede onik egin orain arte; aitzitik, erlijioarentzat kaltegarri izan dira, batez ere gerora eta luzarora begiratuaz. Azken Kontzilioak bere arreta guztia ipini du erlijioaren hauzia bestelako arazoekin katigatua ager ez dadin. Gure artean, berriz, hori egin nahi da berriz ere. Erlijioaren izenean, erlijioaz zer ikusi ez duen gauza bati gerra egin nahi zaio, alegia. Hortarako ez dago eskubiderik.

Ipar eta hegoaldeko euskaldunen artean idazkera bateratzeko, «h» letra hartzea gomendatu zuen Euskaltzaindiak. Ez da, beraz, letra hori ezeren bandera; gehienez ere izan daiteke batasunaren bandera, eta inork ez du eskubiderik, ez alde batetik ez bestetik, hori ezeren banderatzat hartzeko.

Euskaltzaindiak —berriz ere esango dut— ez dio inori hizkuntza arazoetan bere iritzi edo ikusmoldeak defenditzeko eskubidea kentzen. Baina herriaren zerbitzutan eta sortu zenean bere bizkarrean artutako eginbeharrak bete nahiean egiten dituen lanak hondatzeko eta behera botatzeko erabiltzen diren harmak ikusirik, adierazpen hau egin beharrean aurkitu da. Egintza hauek salatu egin behar ziren eta hala egiten dugu.

*Aita Luis Villasante Kortabitarte, O.F.M.*

Euskaltzaindiaren Lehendakaria,

Arantzazuko Amaren Santuarioan, 1973, urtarrilak 1

---

## COMUNICADO DEL PRESIDENTE DE LA ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA

Ante las campañas que de un tiempo a esta parte se vienen desarrollando en torno a la Academia de la Lengua Vasca y a sus trabajos, como Presidente de esta Institución me veo precisado a salir por los fueros de la verdad. Fue la misma Academia la que en vista del ambiente que se quiere crear, me encargó, por acuerdo adoptado en sesión celebrada en Bilbao el pasado 29 de diciembre, hiciera la presente declaración.

---

La Academia de la Lengua Vasca es una Institución fundada en 1918 bajo los auspicios de las Diputaciones de Alava, Guipúzcoa, Navarra y Vizcaya para velar por la lengua vasca, fomentar su estudio y uso, dar orientaciones para su cultivo literario, etc. En dicha Academia tienen entrada representantes de todas las regiones históricas del país y de todos los dialectos y variedades de la lengua vasca.

Por su misma índole, la Academia es una entidad puramente científico-cultural, apolítica, no enfeudada a partidismos. En su seno se da cabida al más legítimo y sano pluralismo.



La Academia ha comprendido siempre que el euskera, como lengua de un país, es un bien o patrimonio de todos, que, en consecuencia, no debe ser monopolizado por un sector, partido, clase, confesión, etc.

Dentro de esta línea ha trabajado siempre y trabaja en la actualidad.

Como en toda institución humana, es normal que también dentro de ella haya a veces discrepancias respecto a determinados problemas lingüísticos o literarios. Pero esto, naturalmente, no debe ser parte para paralizar la Institución, so pena de volverla inoperante y de incumplir los fines para los que se fundó y por los que tiene razón de existir.

---

A la Academia se le pidió desde su creación (y ello se refleja en los mismos Estatutos fundacionales. Véase art. 6.º, a): «Trabaja preferentemente en la formación de un lenguaje literario unificado en léxico, sintaxis y grafía, que nutriéndose de la savia de todos los dialectos, nos permita disfrutar de una literatura común».

No vamos a hacer ahora el recuento de la larga serie de estudios, proyectos, etc., que a lo largo de 50 años se han propuesto para dar cumplimiento a este encargo, sin que la Academia llegara nunca a tomar acuerdo alguno sobre el particular, sin duda por no ver suficientemente maduro el problema, o porque en el contexto sociológico de aquellos años (no tan lejanos, pero sí ya muy distintos de los actuales) el proyecto no parecía viable en la práctica.

Al cumplirse los 50 años de la fundación de la Academia, ésta creyó conveniente reconsiderar de nuevo el problema y tratar de darle solución. La transformación sociológica del país en las últimas décadas hacía más urgente e inaplazable la solución del mismo. La renovación de los estudios vascos ofrecía también esperanzas de poder abordarlo y solucionarlo ahora con las debidas garantías.

En consecuencia, la Academia preparó un Congreso destinado exclusivamente al estudio del tema, que se celebró en Aránzazu en octubre de 1968. A la conclusión del mismo, los académicos de nú-

mero, reunidos a puerta cerrada, redactaron y dieron su conformidad a un comunicado o acuerdo final. Los puntos contenidos en este Acuerdo de Aránzazu se refieren a la ortografía, a la declinación y al léxico.

Es claro, y ello se deduce del tenor del Acuerdo, que se trata de una recomendación. A nadie se le obliga a renunciar a su propio punto de vista, a nadie se le niega el derecho a discrepar, ni se le prohíbe buscar o proponer otros caminos para llegar a la lengua escrita común.

Lo que no se puede hacer es negar la existencia del Acuerdo o poner en duda su validez, tanto más cuanto que se publicó juntamente con las Actas y trabajos del mencionado Congreso en «Euskera», órgano oficial de la Academia, 1968, página 250. Ante las campañas que se hacían, la misma Academia, en sesión de 29 de julio de 1970, se vio obligada a reafirmar que aquel acuerdo era suyo, y se insertó de nuevo en «Euskera», 1971, página 99.

---

Otra cosa que se repite con insistencia y en diversos sectores (incluso el pastoral-religioso) para desacreditar el camino propuesto por la Academia, es decir que el tal camino o plan es cosa de ateos o de signo antirreligioso.

La especie es tan burda, tan falta de consistencia y a todas luces falsa, que ni merecería pararse a desmentirla, si no fuera por la insistencia con la que se la propala y difunde. Protesto con toda energía que esto es una solemne falsedad y calumnia. Se trata de un asunto puramente lingüístico que nada tiene que ver con la fe religiosa ni con credos políticos. Cada uno podrá ser libre de pensar como guste en el asunto de la lengua escrita común. Lo que pedimos es que no se vengan a mezclar una vez más las cosas divinas y las humanas.

Como hombre de Iglesia me duele particularmente que así se instrumentalice a la religión para ponerla al servicio de otros intereses. La Iglesia tiene plena conciencia del flaco servicio que estos procedimientos han hecho a la religión en el pasado, pues ella es la

que a la larga sale perdiendo. Precisamente cuando el Concilio Vaticano II ha puesto todo su énfasis en desolidarizar la causa de la religión de otras causas o cuestiones ajenas a ella, es incomprensible que entre nosotros puedan proliferar y tomar cuerpo tales campañas.

Concretamente y respecto al uso de la letra «h» que la Academia recomendó para superar la dualidad ortográfica existente entre los vascos de ambas vertientes pirenaicas, es claro que su empleo no es bandera de nada, ni de nadie, y que ninguno tiene derecho a tomarlo como símbolo distintivo de otra cosa que de la unificación literaria propiciada por la Academia.

La Academia, repito, a nadie niega ni puede negar el derecho a defender sus propios puntos de vista literarios o lingüísticos; pero se ha visto obligada a hacer esta declaración en vista de las armas a que se recurre para combatir y torpedear una obra que, en cumplimiento de su deber y en servicio al país, quiere llevar a cabo, totalmente en conformidad con los compromisos que ante éste contrajo al ser fundada. Estos hechos debían ser denunciados y así lo hacemos.

*Fr. Luis Villasante Cortabitarte, O.F.M.*

Presidente de la Academia de la Lengua Vasca,  
Santuario de Ntra. Sra. de Aránzazu, 1 de enero de 1973

## D MAILAKO IRAKASLE TITULUDUNAK

(1972 urtekoak)

- 1 Imanol Laspiur Zabala
- 2 Jaime Guenaga Zenikazelaia
- 3 Xabier Peña Albizu
- 4 Eusebio Osa Unamuno
- 5 Juan M.<sup>a</sup> Artola Kortajarena
- 6 Aita Felix Santi Letona Ibarretxe
- 7 Flora de Idarreta
- 8 Maria de Ojanguren Jauregi
- 9 Jesus Oyarzun San Roman
- 10 Patxi Uribarren Leturiaga
- 11 Francisco Muguruza Ansola
- 12 Jose Ramon Etxebarria Bilbao
- 13 Isabel Lertxundi Barañano
- 14 Kepa Mallea Olaechea
- 15 Josu Torre Altonaga
- 16 Jose Maria Erzibengoa Otaegi
- 17 Patxi Goenaga Mendizabal
- 18 Andolin Eguskitza Bilbao
- 19 Jacinto Iturbe Barrenetxea
- 20 Manuel Arzallus Menabar
- 21 Joxe Andoni Arrizabalaga Zubiarrain
- 22 Jose Martin Esnal Lertxundi
- 23 Mikel Aingeru Aranburu Oiharbide
- 24 Joxe Maria Agirresarobe Etxebarria
- 25 Benjamin Atutxa Iza
- 26 Xabier Bilbao Imatz

- 27 Jose Maria Elorza Gabilondo
- 28 Jesus Felix Torcal
- 29 Luis Jauregi Garmendia
- 30 Francisco M.<sup>a</sup> Lizardi Camarero-Nuñez
- 31 Jon Orbezua Beobide
- 32 Aitor Ortiz de Pinedo Fano
- 33 Kepa Martinez de Lagos
- 34 Erramon Gerrikagoitia Rodriguez
- 35 Begoña Iturritza Zabala
- 36 Iñaki Azkune Mendia
- 37 Jose Antonio Agirre
- 38 Sebastian Uria Eizaguirre
- 39 Antton Haranburu Bengoetxea
- 40 Mikel Ugalde Ugarte
- 41 Jon Tolosa Mendizabal
- 42 Angel Ugarteburu Meabe-basterretxea
- 43 Antxon Narbaiza Azkue
- 44 Martin Lasa Jauregi
- 45 Itziar Mujika Irastorza
- 46 Iñaki Etxeberria Garmendia
- 47 Eugenio Mujika Galparsoro
- 48 Txomin Izaguirre Soraluze
- 49 Jose Manuel Odriozola Lizarribar
- 50 Lazaro Azkune
- 51 Salvador Unzueta Mitxelena
- 52 Iñaki Zulaika
- 53 Koldo Arratibel Munduate
- 54 Pedro Maria Esnal Ormaetxea
- 55 Jon Urrujulegi Agirre
- 56 Jesus Maria Maiz Gastesi
- 57 Javier Jauregi Garmendia
- 58 Jon Mujika Lasagabaster
- 59 Jesus Mari Arrieta Muguruza
- 60 Bernabe Berezibar Lizarralde
- 61 Jesus Mari Mendizabal Iraola
- 62 Arantza Sarriegi Eskisabel
- 63 Antton Ibaguren

- 64 Mari Coro Egaña Barrenetxea
- 65 Andoni Sarriegi Eskisabel
- 66 Xabier Baztarrrika Galparsoro
- 67 Margarita Odriozola Altuna
- 68 Juan Amenabar
- 69 Romualdo Katarain Urteaga
- 70 Jose Manuel Agirrezabalaga Odriozola
- 71 Conchi Mendiola
- 72 Andoni Zorrilla Setien
- 73 Juan Antonio Letamendia Pz. de San Roman
- 74 Leopoldo Etxeberria Unanue
- 75 Jose Mari Zugasti
- 76 Manuel Arregi Urrutia
- 77 German Kortabarria Igartua
- 78 Juan Ignacio Intxaurreaga Beaskoetxea
- 79 Javier Zorroza
- 80 Karmele Zubiaurre Olaizola
- 81 Jose Antonio Zubeldia Gaztañaga
- 82 Izaskun Zaldua Olabeaga
- 83 Mikel Zabaleta Urkiola
- 84 Juan Jose Zearreta Urgoiti-aldekozea
- 85 Jose Mari Ulazia Ibarzabal
- 86 Mikel Zalbide Elustondo
- 87 Jose M. Larramendi Calzacorta
- 88 Imanol Larrañaga Zubizarreta
- 89 Josu Legarreta Bilbao
- 90 Maria Pilar Martiartu Lasuen
- 91 Endika de Migel D'Anjou
- 92 Francisco Olaskoaga Iturri
- 93 Juan Maria Perez Cañizal
- 94 Xabier Portugal Arteaga
- 95 Joseba Tobar Arbulu
- 96 Juan Luis Goikoetxea Arrieta
- 97 Gurutze Baztarrrika Galparsoro
- 98 Jon Etxebarri Iturbe
- 99 Jose Martin Elexpuru Arregi
- 100 Sabino Egileor Totorika

- 101 Miren Jone Azurza Aristegieta
- 102 Angel Ansa Goenaga
- 103 Jose Agustin Arrieta Ugartetxea
- 104 Mari Carmen Garmendia Lasa
- 105 Xabier Allur Zunzunegui
- 106 Jose Antonio Azkue Idiakez
- 107 Merche Arantzamendi Egurrola
- 108 Jose Antonio Aranburu Agirre
- 109 Jesus M.<sup>o</sup> Arrieta Sagasti
- 110 Antxon Arzuaga Etxebeste
- 111 Justo Azagirre Madariaga
- 112 Luis Mari Altzibar Arrinda
- 113 Rikardo Badiola Uriarte

## 1972 Urteko batzar - agiriak

1972 - I - 31

Donostian, Gipuzkoako Diputazioan, 1972ko urtarrillaren 31n, arratsaldeko lauretan. Bildu dira: Villasante buru, Arrue, Irigaray, Irigoyen, Lojendio, eta Satrustegi jaun euskaltzainak; Akesolo, Aresti, Berriatua, Garmendia (Salbador), Goikoetxea Maiza, Intxausti, Lizundia, Loidi, Santamaria, Sarasola eta Zatarain jaun laguntzaileak, San Martin idazkari dela.

Haritschelhar, Lafitte, Diharce eta Erkiaga jaunak ezin etorria adierazi dute.

Ohi dan otoitzarekin hasi da batzarra.

Abenduko agiria ontzat hartu da. Bertan, jaso gabe gelditu zen EUSKERAREN liburuxka atal baten berri: zenbait erabaki eta abar, zabal-kundea bizkortzeko aparte egitea, neurri berean, gero zenbaki osoari erantsi ahal izateko eran.

Idazkariak, euskaltzainburuaren anaiaren eta buru-ordearen amaren hil-berriak eman ditu. Doluminak eskaintzen zaie.

### A) HAR-EMANAK:

Instituto Nacional del Libro Español-dik, euskerazko liburu sarituen berri eskatzen digute.

Bulletin de la Société de Linguistique de Paris-etik René Lafon euskaltzain jaunak (aldizkari honen Tome 65, 1970, Fascicule 2) EUSKERA tomo XII.ri egiten dion aipamen bereziaren berri.

### HARTU DIREN LIBURUAK:

Etor argitaldariak emanik: Benantxio Otaegi-ren *Lehen gizarteak*.

Jakin sortakoak: P. Agirrebalzategi, P. M. Zabaleta, A. Sagarna, J. M. Torrealdai, J. Bereziartua eta J. M. Diez-Alegriaren artean hor-nitu duten *Kultura eta Fedea* izeneko saiakera liburua.

Ikas eta Jakin-goak: J. Hiriart-Urruty-ren *Mintzaira, aurpegia: Gizon!*



A. Irigaray euskaltzain jaunak, A. Apat-Echebarne izenpean argitaratu duen *Noticias y viejos textos de la "Lingua Navarrorum"*.

S. Basauri eta J. San Martin Euskaltzaindikoak: *Hegatsez*, oraingo 61 euskal idazleren hitz-lauzko bilduma.

J. San Martinek, *Toponimia de Aspárrena* (Alava) lanaren separata.

Donostiako Aurrezki Kutxa Munizipalak, Gipuzkoako herri hauen monografiak: *Fuenterrabia*, J. M. Echart Uranga; *Irún*, R. Izquierdo; *Lezo*, L. Silván; *Hernani*, L. Murugarren; *Curiosidades Históricas de San Sebastián*, S. Múgica; *Aspectos de la vida e historia de Andoain*, Rikardo Arregi; *Villabona-Amasa*, S. Insausti; *Monografía histórica de la villa de Tolosa*, F. Zabala y J. Garmendia Larrañaga; *Villafranca de Ordizia*, J. Olaechea; *Lazcano*, J. Basurco; *Orio, entre la ría y el mar*, L. Erquicia, L. Sierra, M. C. Urbizu; *Noticias históricas de la villa de Zarauz*, J. Erenchun; *Zumaya*, J. B. Olaechea; *Cestona*, J. Erenchun; *Azpeitia y sus hombres*, I. Elías Odriozola; *Zumárraga*, J. M. Busca Isusi; *Legazpia*, Fr. J. I. Lasa; *Deva y mis recuerdos*, T. Amusategui; *Monreal de Deva*, F. Aldabaldetrecu; *Motrico, apuntes, extractos y divagaciones*, A. Zubizaray; *Placencia de las Armas*, R. Larrañaga; *Breve monografía de Vergara*, José Larrea Alustiza; *Oñate*, I. Zumalde; *Mondragón, trayectoria y anecdotario*, J. M. Uranga.

Guztiei eskerrak ematea erabakitzen da.

**DIRU KONTUAK:** Erkiaga jaunaren ezin etorriaz, idazkari-ordezkoak irakurtzen ditu: 1971ko urria-abendua bitartekoak. Lehenik egoana 124.681,60; gehitua, 55.118,50; urritua, 99.655,19; dagoena, 80.144,91 pezeta. Kontu hauek Bilbokoak dira. Sarrereren eta urrituan zertzelararik aipagarrienak irakurtzen ditu, aipagarriena, hiru hilabete horietan 24.342,27 pezetan salmentak egin zirela.

Euskaltzaindiko enplegaduei alogera jasotzea erabakitzen da. Buru-goaren esku gelditzen da zenbat jaso.

Santamaria jaunak adierazten du, prestatzen ari direla dirua biltzeko plan bat.

## B) ARAUDI BERRIEZTATZEAREN BERRI

Euskaltzainburuak aditzera ematen du, goizean bildu direla euskaltzainak eginkizun hau betetzeko. Arautegi gaurkotuaren azterketa onartzeari buru eman zitzaiola adierazi du. Baita ere Arautegi hori egitera-koan izan diren gora-beherak, atzera-aurrera eta batzarren berri zehatza eman du, horretarako batzordea jarri zenez geroztik. Arautegi berri hau hurrengo batzarre baten tinko ezarria eta finkatua izango da.

Goizeko batzar berezian bildutakoek izan dira: Villasante, Arrue, Irigaray, Irigoyen, Lojendio, Satrustegi, Zavala eta San Martin. Beren ezin etorria agertu zuten: Haritschelhar, Lafitte, Diharce eta Erkiagak.

## D) LEIZARRAGAREN LANAK ARGITARATZEARI BURUZ

Zavala jaunak goizean aditzera eman du, La Gran Enciclopedia Vasca-ko Martin Retana jaunak XVI. mendeko idazle guzien lanak ar-

gitaratzeko asmoa duela eta beren artean Leizarragaren *Testamentu Berria*. Lan hau guk ere argitaratzea pentsatua genuenez, bakoitzak bere aldeik argitaratu baino lehen M. Retana jaunarekin mintzatzea komeni zaigula esan da. Eta Zavala, Euskaltzainburua eta Idazkaria gelditu dira Retana jaunarekin mintzatzekotan.

#### E) SANTAMARIA JAUNAREN TXOSTENA, ZORTZI URTEKO HAURREN ESKOLA HIZTEGIA ONARTZEKO SEGITUKO DEN PROZEDURAZ

Santamaria jaunak, lan hau egiteko jarraitu duten formaren berri eman du, guzia hornitu ahal izateko nahi izan duten kontseilari guzietan bi aldiz listak bialduaz, eta erantzunen hautapenak zelako aburuz egin dituzten. Hiztegi hau Donostiako Ordekaritzak prestatu du, eta lan guztia Mitxelena jaunaren gidaritzapean jarriaz. Hiztegiaren luzeak ezinezkoa egiten du hitzez-hitz batzar nagusian aztertzea, eta lexikografia erabakitzeko sistema bat behar dela adierazten du. Etabaidatzen da puntu hau, batez ere batzorde baten lana, Euskaltzaindiaren batzorde batena, Euskaltzaindiak onar dezan zer-nolako bidea segitu behar den. Hurrengo batzarrerako Lizundia jaunari txosten bat agintzen zaio, bai arazo honetarako eta bai beste batzuetarako baliozko prozedura izan ditekenerari buruzkoa.

#### F) FILATELIA HIZTEGIA ONHARTZEAZ

Txosten baten bidez, X. Gereño jaun laguntzaileak, aditzera ematen du hiztegi hau antolatzeko zer bide jokatu duen; (horretarako berarekin batera osatzen zuten batzordea: Satrustegi, Alvarez-Enparantza eta Kintana jaunek) hauen txostenak jaso ondoren hiztegitxo bat proposatzen du. Euskaltzaindiak, oraingoz, filatelia hiztegi hori erabil ditekela erabakitzen du, eta bere on ikusia ematen dio beste erabaki bat hartzen ez den artean.

#### ADITZ BATUARENA

Aditz batuaren batzordeak prestatu dituen bi zatien kopiak euskaltzainen artean zabaltzen dira, hilabeteko epea utziaz oharrak eta zuzenketak bialtzeko.

Ohi dan otoitzarekin bukatu da biltzarra.

*Euskaltzainburua*  
LUIS VILLASANTE

*Idazkaria*  
JUAN SAN MARTIN

1972 - II - 23

Donostian, Gipuzkoako Diputazioan, 1972ko otsailaren 25ean, arratsaldeko lauretan. Bildu dira: Villasante buru, Haritschelhar buruordezko, Irigoyen, Lafitte, Satrustegi eta Zabala jaun euskaltzainak; Intxausti, Lizundia, Ruiz Urrestarazu, Zatarain eta Zugasti euskaltzain laguntzaileak, San Martin idazkari dala.

Arrue, Dassance, Diharce, Eppherre, A. Intzakoa, Irigaray, Larzabal eta Lojendio jaunak ezin etorria adierazi dute.

Ohi dan otoitzarekin hasi da batzarra.

Urtarrileko agiria onhartu da.

#### a) HAR-EMANAK:

Gráficas Ellacuria-en gutun bat irakurri da: EUSKERA aldizkaria atzeratzea inprimeriak izan duen etxe-aldaketaren ondorioz izan dela aditzera ematen du, eta aurrerantzean huts hau behar bezala betetzen ahaleginduko direla.

Euskaltzainburuak aditzera eman du, aurreko astean Bilboko apezpikuarekin mintzatua dela eta euskararen alderako hitz onak jasoak direla, bere aldetik laguntzeko gertu dagoenez.

Aurreko batzarrean erabaki bezala, "La Gran Enciclopedia Vasca"-ko zuzendari den Retana jaunarekin hitz egin da Leizarragaren lanak argitaratzeari buruz. Retana jaunak euskal klasikoen sorta argitaratu nahi omen du XVIgarrenko autoreekin hasiaz, A. Zabala euskaltzainaren zuzendaritzapean, eta asmo horien barne duela Leizarragaren liburuak ere birargitaratzea. Autore honen *Testamentu berria* argitaratzea Euskaltzaindiaren asmoa zen, baina beste lan eder hau ikusirik, Retana jaunaren esku uzten du. Baita ere, klasikoen ekintza horri, Euskaltzaindiak bere ongi ikusiaren babesa ematen dio.

Bere izena gorde nahi duen ongile batek 105.000 pezetako eskupekoa eman du Euskaltzaindiarentzat. Beste emaitz batzuk ere hartu dira liburutegia herrizatzeako, gaur artekoa guztiz, 98.000 pezeta. Irigoyen jaunak, liburutegia zelan ordenatzen ari denari buruzko berria eman du.

#### HARTU DIREN LIBURUAK:

Auspoa Liburutegiaren zuzendari den A. Zabala euskaltzainak erre-galaturik: Inozentio Olea-ren *Goierriko lorak*, Manuel Lasartaren *Bertso mordoxka*, J. I. Etxeberriaren *Mendi gañetik*, A. Izagireren *Zepai bertsolaria*, Mattin, *Trekuren Ahal dena*, eta A. Zabala berak bildutako *Txirritaren bertsoak* (bi tomotan), *Pastor Izueta. Ezkioko eta Segurako itxuak*, eta *Bidasoa aldeko bost bertsolari*.

Etor argitaldariak Larresororen *Hizkuntza eta pentsakera*.

Algortako Franzisko Zabala Mayora apaiz jaunak bi liburu: *El enigma del vascuence ante las lenguas indoeuropeas*, Florentino Castro-rena eta *Desarrollo de las conjugaciones éuskaras*, Ignacio M.<sup>a</sup> Etxaiderena.

Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probinzialak Iñaki Linazasororen *Perrretxikoak*.

Antonio Tovar-ek bere *The Basque Language and Indo-European Spread to the West* (Pennsylvania-ko Unibersidadeko "Indo-Europeans"ek 1970ean argitaratua).

J. M. Satrustegi euskaltzain jaunak "Aitziber" aldizkariaren kolezio osoa.

## b) PERTSONA IZENDEGIAZ:

Satrustegi jaunak txosten bat irakurri du pertsona izendegiari buruz. Izendegi hau Satrustegi berak prestatuko du beste askoren laguntzaz. Izen bakoitza zein dokumentutan agertzen den zehatz argituaz egina izango da. Euskaltzaindiaren babesean Iruñeko diru-etxe bat gertu dago liburu batean bildurik argitaratuaz zabalkunde handia egiteko. Izendegi hau sailka egingo da, lehenengo izendegi ttipia, historikoak, santu izendegikoak eta Andra Mariak.

## c) BATZORDE LANAK ONHARTZE PROZEDURAZ:

Lizundia jaunak, txosten batean, puntuz-puntu aztertzen du. Eta, bere ondorean, euskaltzainburuak beste zehetasun batzuk ematen ditu: Euskaltzaindiak batzorde bat eratu eta batzorde honi lan bat agintzen dionean, lan hura, beste gabe, Euskaltzaindiak onartzen ote duen, esaten da. Eta onhar dezan, zer prozedura segitu behar den. Bi txostenok bateratzea erabaki da.

## e) AURREZKI KUTXEN SARIKETEN BERRI:

Bizkaiko Aurrezki Kutxak nobela eta antzerki sarirako eman ohi duen dirua, 25.000 pezetara altxatzea du. Aurten "Txomin Agirre" nobela sariaren txanda tokatzen da. Bertso-paper eta poesia ("Xenpelar" eta "Lizardi izenekoak") sariak ere diruz gehitu beharrez mintzatzen da.

## f) "EUSKERA" ALDIZKARIA:

1971eko alea, Ellacuria inprimatzaileak bere gutunean adierazten duenez, laster argitaratuko da. Eta EUSKERA 1972eko lehen alea zelan hornituko den erabakitzeke, aldizkariaren batzordekoak goizean bildu dira eta argitaratzeko lanak hautatu dituzte, baita ere aldizkariaren antolakizuna erabaki: Lehen sail nagusia, *Iker saila* izango da; bigarrena *Gai laburrak*; hirugarrena, *berriak*; laugarrena, *Erabakiak*; eta bosgarrena, *Bibliografia*.

1972ko lehen zenbakia hornituko duten lanak: Justo Garate-ren "El lingüista leniztar, Fray Melchor de Oyanguren" eta "XII Contribución al diccionario vasco", Dominique Peillenen "Azkueren hiztegirako buruxka batzuk", Manuel Lekuonaren "Amantetik al dator maite?", Etxaburu-ren "Frasas ondarrasas", Aita Intzakoaren "Esaera zahar batzuk", P. Lafitteren *Ghibeletik eratorri hitz batzuez*, Hans Mukarovsky-ren "El vascuence y el bereber", P. Lafitteren "Guillaume-ren lehen letra", Carlos Santamaria-ren "Diccionario de giros y modismos", L. Akesolo, R. Lafon eta P. Lafitteren "Beskoitzeko hitzaldiak, Leizarragaren omenez", Patxi Uribarrenen "Aramaioko euskera..." Gai laburretan "Irakasle karneten txostena", eta Berrietan Euskaltzain ilak: Seminario Rojas, R. Arregi, J. Artetxe, Luis Jauregi "Jautarkol", Klaudio Sagarzazu "Satarka", Soubelet eta A. Valverde.

Aztertzeko gelditu ziranak: "Axularrekin ikasle P. Etxeberria", eta

“El temor al latín”. Urrengorako gelditu ziren lanen arteko: J. Garate-ren “Carta de “Citra-tumba” a D. Bonifacio de Echegaray”.

Haritschelhar jaunak aditzera ematen du, EUSKERA bi zenbakitaratuz egin behar dela, bigarreanean agiriak eta erabakiak agertzeko.

g) HERRI ETA HERRITARREN BATZORDEKO LANEN BERRI:

Batzordeko idazkariak egiten dituen lanen berri eman du. Prestaturik daude fitxak eta herri izenen zerrendak, lankideei bidaltzeko. Lehen maila, Instituto de Estadística-k “entidades de población”-tzat ofizialki hartzen dituenak izango dira, behar diren azterketak eta zuzenketak egiteko.

Haritschelhar jaunak, prefetak eskaturik, egina dutela mugazandiko Euskal Herriko euskarazko izen guziena, aditzera ematen du.

h) EUSKALTZAINDIA FINANZIATZE ASMOTZ:

Santamaria jaunak ezin etorria adierazi du eta urrengo biltzarrerako gelditzen da gai hau.

i) BERTSOLARI TXAPELKETAZ:

Zabala jaunak aditzera eman du gai honi buruz zenbait bilera eginak dituztela, eta urrengo bilerarako txosten bat gertatua ekarriko duela.

j) MARTXOKO BILERAZ:

Datorren hileko batzarrari buruz, azken ostirala, Ostiral Santua denez, asteartera pasatzea erabaki da. Beraz, martxoko biltzarra, Donostian bertan, hilaren 28an izango da, astearte arratsaldean.

Ohi dan otoitzarekin bukatu da biltzarra.

*Euskaltzainburua*

LUIS VILLASANTE

*Idazkaria*

JUAN SAN MARTIN

1972 - III - 28

Donostian Gipuzkoako Diputazioan, 1972ko martxoaren 28an, arratsaldeko lauretan. Bildu dira: Villasante buru, Haritschelhar buruordezko, Arrue, Irigoyen, Mitxelena, Satrustegi, Zabala euskaltzain jaunak; Altuna, S. Garmendia, Intxausti, Kintana, Lizundia, Sarasola eta Zata-rain laguntzaile jaunak, San Martin idazkari dala.

Dassance, Diharce, Eppherre, Lafitte, Larzabal eta Santamaria jaunak ezin etorria adierazi dute.

Ohi dan otoitzarekin hasi da batzarra.

Otsaileko agiria onhartu da.

## a) HAR-EMANAK:

Euskaltzainburu jaunak, aditzera ematen du Diharce (Iratzeder) eus-tzain jauna Belokeko abade izendatua izan dela, eta hil honen 21ean izan zela bere kargu hartzea eta bera eta beste zenbait joan zirela Be-lokera Euskaltzaindiaren izenean. Diharce jaunari zorionak bere kargu berrian.

Espasa-Calpe, S. A., argitaldariaren gutuna, Azkue zenaren *Euska-lerriaren Yakintza*-ren igazko azken sei hilabeteetako salketen egile es-kubideen dirua ordainduaz, 3.067,20 pezeta guttiz.

## HARTU DIREN LIBURUAK:

Manuel Lekuona jaunak erregalaturik: A. Griera-ren *Vocabulario vasco* (Ensayo de una interpretación de la lengua vasca), 2 tomo. Ernesto La Orden, Ministerio de Información y Turismo-ko sekretario jaunak emana, *Santiago en España, Europa y América*. "Jakin sorta" k emana, *Erlíjioa hauzipean*, J. Arregi, E. Osa, J. Azurmendi, Larresoro, J. M. To-rrealdai eta P. Xarriton jaunen saiakera bilduma. "Etor" argitaldariak X. Mendigurenen *Europako ezker berria*.

Bestalde, R. Lafón jaunak "Bulletin de la Société de Linguistique de Paris" en egin dituen euskal liburu erreseñen separatak, eta J. M. Sa-trustegi jaunak bere *Tecnología del ensamblaje madera-piedra en ins-trumentos primitivos* lanaren separata.

## b) BERTSOLARI TXAPELKETARI BURUZ:

A. Zabala jaunaren txostena. Berak eta Juan Maria Lekuonak bert-solariekin izan dituzten bi bileren berri ematen du. Orain arteko txape-lketen azterketa bat egin dute, eta aurrerakoak zelan jokatu estudia-tu. Lehendik goi-mailetan daudenak hor utziko dira eta bigarren maila-koekin barruti-txapelketak antolatu, eliminatoriaz. Aurrera pasatzen dire-nen artean egingo da, lehen mailakoena, baina txapeldun bakar bat hautatzeko, eta ez bigarrenik, hirugarrenik eta abar. Honetarako, lehen mailakoekin puntuazioz egingo da, epai-mahaikoak sekretuan beren pun-tuak emanez. Barruti-txapelketetan zelako sariak emango diren, Donos-tiako Centro de Atracción y Turismo-rekin zer har-eman, gaiak nola eratu eta abar, xehetasunez eman ditu Zabala jaunak bere txostenean.

d) SANTAMARIA JAUNAREN TXOSTENA, FINANZIATZE ASMOEZ,  
eguneko gaitan jarrita egoana, urrengo bilerarako uzten da, jaun honen etorri ezinagatik.e) DENDEN IZENDEGIAZ, *Kintana jaunaren txostena*:

Zenbait exenplu agertu ditu, bere asmoa funtsean zertan den adie-raziaz. Oinarrizko hiztegi bat uzten du, hiztegi batzordekoek aztertze-ko

eta bukatu eta onhartu ondorean zabalkundea egiteko. Batzordeak, maiaztzeko bilerarako aztertuta presentatuko du.

f) HERRI eta HERRITAREN izenen batzordearen txostena:

Goizean izan du batzordeak bere bilera, eta Lizundia jaunak irakurri du batzordearen txostena. Lankideen artean fitxak eta Instituto de Estadística-ren herri eta hauzo izenen lista bana zabaldu da. Lana, lankideekin, probintzia bakoitzean aurrera eramateko arduradunak: Arabatik, M. Ruiz Urrestarazu; Bizkaitik, J. L. Lizundia; Gipuzkoatik, S. Garmendia; eta Nafarroatik, J. M. Satrustegi.

g) IRAKASLE TITULUERI BURUZ, batzordekoen txostena:

Euskararen irakasletarako, hartu diren *Curriculum vitae* guziak aztertuko dira hilabeteren buruan. Mitxelena jaunak, bere aldetik, esamifetarako oinbarrizko izango den bibliografia bat osatuko du.

Bestalde, "Euskal kultura" agiriarentzat aurtengo urrian egingo dira esamiñak.

h) "DOMINGO AGIRRE" NOBELA SARIKETAREN BALDINTZAK:

Euskaltzainburuak, igazko *Literaturari buruzko saiakera* sariketan gertatuaren berri eman du. Araudian, lanak argitaratuak ala argitaratu gabeak izan behar ziren ongi argitu gabe egoala eta istilua sortu zela. Araudia, puntu horretan, beti horrela erabilia zela, baina lehen aldiz gertatu zala, lanetariko bat argitaratua izatea, epai-mahaikoak erabagia eman baino lehen. Prolema sortu bezain azkar, lege gizon batekin hitz egin zuela eta honek epai-mahaikoak berek erabagi beharrezkoa zela, aditzera eman omen zion. Hontaz, Euskaltzaindiko zuzendaritzakoak (burugoa) eta epai-mahaikoak bilera berezi bat egin zuten, Bizkaiko Aurrezki Kutxari gertatuaren berri eman ondorean eta honek Euskaltzaindiaren esku utzi zuenean, eta epailaritzat jarritakoen esku utzi zen arazoa. Eta epai-mahaia eman zuen gero bere epaia. Eta aurrerantzean holakorik gerta ez dadin, araudia berri dala puntu hori ondo lotzeko eran.

Idazkariak irakurri du araudi berria. Eta adierazi du, lehen puntuan, Arantzazuko erabagiaren araberan jartzea, gailegoak Real Academia Gallega-ren araberan eskatzen duten baldintza kontuan harturik egin dala, eta ortografia partean bokalarteko H bakarrik eskatzen dala Arantzazuko agirian. Araudi berria onhartzeko da.

Haritschelhar jaunak, igazko sariketaren epai-mahaiko zenez, bi hitz egin ditu beren erabakia zelan eta zergaitik eman zuten adieraziaz, araudirik hautsi gabe. Eta, gainera, berak bere erabagia eman zuenean, ez ekiela lan saritua argitaratua zenik.

i) BAKOITZAK DAKARRENETIK:

Arrue jaunak dio, Californiatik hartu berri duen gutun batean esaten diotela, Idaho-ko Boise-n radioz euskarazko saioa ematen dutela.

Euskaraz mintzatzen dena bizkaieraz ihardutzen dala, eta bera nafarra denez gero, ulerkaitz egiten zaiola.

Haritschelhar jaunak aditzera ematen du, Lafitte jauna gaixorik dala, eta honegatik izan dala bere etorri ezina.

Idazkariak dio, *Zigor* euskal izenez hauzia izan dala Eibarko juzganduan, eta berak Euskaltzaindiko agiri bat bialduarren, esanez izen hori Lope García de Salazar-en *Las Bienandanzas e Fortunas*-en eta J. C. de Guerra-ren *Oñacinos y Gamboino, rol de banderizos vascos*-en jasotzen dala, ez dutela ontzat eman, esanez, Euskaltzaindian hontaz guztiak ez datozela bat. Baina, Euskaltzaindian, kargudunen eginkizunekoak dala agiriak ematea. Gainera, 1970ko ebnduko bileran ikusi zela izen honi buruzkoa,

Ikastola hiztegiari buruzko oharrak jaso dira, eta batzordearen eskuetara pasatu.

Beste gabe, ohi dan otoitzarekin bukatu da batzarra.

*Euskaltzainburua*  
LUIS VILLASANTE

*Idazkaria*  
JUAN SAN MARTIN

#### 1972 - IV 4

Donostian, Gipuzkoako Diputazioan, 1972ko apirilaren 4an, goizeko hamar t'erdietan, batzar berezian bildu dira: Villasante buru, Haritschelhar buruozeko, Arrue, Diharce, Irigoyen, Lojendio, Mitxelena, eta Sarrutrustegi, San Martin idazkari dela. Araudi berrieztatzeko batzordeko den aldetik, Lizundia laguntzailea ere bertan da.

Ezin etorria adieraziaz, beren poderioak emanaz idatzi dute: Eppherre, Lafon, Dassance, Lafitte jaunak Haritschelhar jaunari; Larzabal jaunak Villasante jaunari eta Erkiaga jaunak Irigoyen jaunari.

#### GAIA: ARAUTEGIA BIRRESTEKOA.

Artikularik artikulu, puntuz puntu, irakurri da arautegi berria, azken azterketak egin ondorekoa, 1971ko Abenduaren 30eko eta 1972ko Urtarrilaren 31ko batzar berezietan eta zenbait puntutan, mamia aldatu gabe, idazkera orraztu eta finkatu ondoren, beste gabe, bototara jo da. 15 botoak baiezkoak izan dira, eta beste gabe ARAUTEGI BERRIA onhartua eta birrestia gelditzen da.

#### OHARRAK:

1. Biharamunean, idazkariak bere etxean jaso zuen Manuel Lekunaren gutuna, eta Arautegi berriari buruz hau zion: "Villasante adiskideak egin dituan txostenak, gauza oni buruz —ots, Araudiari buruz, alegia— "buruz" egiñak arkitzen ditut; eta *Reglamento Interior* egoki bat egin ezker, uste det ontzat ematekoa dala Araudia dagon bezala".



2. Arautegi berri hau, euskaltzain numeruko guztiei bidaltzen zaie. Denen jakingarrirako laister argitaratuko da.

*Euskaltzainburua*  
LUIS VILLASANTE

*Idazkaria*  
JUAN SAN MARTIN

1972-IV-4

Donostia, Gipuzkoako Diputazioan, 1972ko apirilaren 4an, eguerdiko ordu batako laurden gutxiagotan, batzar berezian bildu dira: Villasante buru, Haritschelhar buruordezko, Arrue, Diharce, Irigaray, Irigoyen, Mitxelena eta Satrustegi jaunak; eta aditz batuaren batzordeko diren: Altuna, Intxausti, Kintana, laguntzaile jaunak, San Martin idazkari dela.

#### GAIA: ADITZ BATUAREN LEHEN URRATSAK.

Altuna jaunak, batzordearen idazkaria den aldetik, hartu dituzten oharrezko idazkiak eta eurak aztertzearen berri eman du:

Dударик gabe erabakita gelditzen direla *Naiz, Haiz, Da, Gara, Zara, Zarete* eta *Dira* formak.

Mitxelenak adierazten du, lehen txosten bateratuak ez duela behar bezalako ordenarik, sistema guztia sartzen ez delako, baizik, denak ados datozenetan eta bateratu ahal izateko partean. Besteak geroko utzirik.

*Deraut, Deust* eta antzerakoetan daudela istiluak. Gerora, batasuna goraka doala, elkar aditu ezina ikusten dela, eta behar bada bi bide eskaindu beharko direla.

Ohar, planifikazio orokarra zehatzago jarri, eta gerora ere, ontzat hartzen diren zenbait formari hobekuntza erantsi ahal izateko bide bat aukeratu.

Altunak dio, parte batzutan guztiak ados daudela, baina beste batzutan zalantzatxo batzuk ageri direla.

Zenbait puntu eta prolema aztertu ondorean, ezer erabagitzeke, da-

Zenbait puntu eta prolema aztertu ondorean, ezer erabagitzeko, datarren uda parterako uzten da.

Honetan bukatzen da batzarra.

*Euskaltzainburua*  
LUIS VILLASANTE

*Idazkaria*  
JUAN SAN MARTIN

1972-IV-28

Donostian, Gipuzkoako Diputazioan, 1972ko apirilaren 28an, arratsaldeko laurretan. Bildu dira: Villasante buru, Haritschelhar buruordezko, Arrue eta Irigoyen euskaltzain jaunak; Altuna, Aresti, Berrojalbiz, Enbeita, Garmendia (Jon), Garmendia (Salbador), Intxausti, Kintana, Lizundia, Loidi, Ruiz Urrestarazu, Santamaria, Sarasola eta Zatarain laguntzaile jaunak, San Martin idazkari dala.

Dassance, Diharce, Erkiaga, Eppherre, Lafitte, Larzabal eta Satrustegi jaunek ezin etorri direla agertzen dute.

Ohi dan otoitzarekin hasi da batzarra.

Martxoko agiria onhartu da.

a) *HAR-EMANAK*:

Yon Etxaideren gutuna, igazko literaturari buruzko saiakera saria arre-xamarra iduri zaiola baina honezkero ez duela erremediorik, baina "Txomin Agirre" nobela sarira Euskaltzaindiaren idazkeran lanak presentatzea ez zaiola ongi iduritzen eta jarritako baldintza hori kentzea eskatzen du.

Garmendia'tar Jonen gutuna, galdetuaz ia egia den igazko literaturari buruzko saria aurretik argitaratua zuen liburuaren egileari eman zitzaion, eta ia derrigorrezkoa den Euskaltzaindiak iragarriko dituen euskal-sariketetarako idazlanak "H"z eratuaz izan behar direla.

E. Erkiagaren gutuna, Literatura sariketaren araudiari buruz, Euskaltzaindiak, begi onez ikusiko luke H letra bi bo al berdin nahiz ezberdinen artean erabiltea, baina horrek ez duela esan nahi H gabeko literatura-lanik Euskaltzaindiak bagi txarrez ikusiko duenik, eta hontaz eskatzen argitasunak.

Arenaza'tar Josuren gutuna, euskaltzainburuari bialdua, literatura sariketaren arauetako lehen artikulua kontrako eritzia agertzen du eta idazkariaren kontra mintzatzen da, zenbait salaketa eginaz.

Idazkariak, erantzunez, aditzera ematen du Arenazaren salakuntza hauek oinharri gabeak direla agirik agertzen ez duen aldetik eta iraintzat hartzen duela. Gainera, Arenaza jauna, euskaltzain laguntzailea izanik ere, batzarretara ez dala etortzen gauzak aurrez-aurre agertzerara eta "Agur" aldizkarian Euskaltzaindiaren izena toki txarrean utziaz. Jokabide hau onartu ezinezkoa denez gero, idazkariak, zentzurazko botoa eskatzen du.

Batzarkideak luzaz mintzatu dira nobela sariketaren araueri buruz. Eta guziet entzun ondorean, Haritschelhar jaunak proposamendu hauek egingen ditu: Oinharritzko arauak ezin dira aldatu, lehenagoko batzarrean onhartuak izan zirenez gero. Arantzazuko agiriaren araura eskatu denez, han ez zela inor beharten, baizik "begi onez ikusiko lukeala". Epai-mahaina izendatzean, konfiantza osoa jarri behar dugula bere gain eta beren aburu zuzenak ez dutela "H" gabeko lan onik atzean utzi behar. Ezinezkoa dela euskaltzaindiko izan eta erabagien kontra jardutzea; bere iritziak azaldu nahi dituen eta etor bedi bileratara. Eta, Arenaza jaunari zentzurazko botoa jartzeari buruzkoa euskaltzainen bilera berezi baterako uztea hobe dala, eta Arenaza jaunari bertara dei egin. Ontzat hartu da.

Idazkariak, argi bidez dio, igazko sariketara etorri ziren hiru lane-tako bat "H"rik gabea zala, baina ontzat harturik mahainburuko en eskuetara pasatu zala; bestalde, erabagiakin konformatu ez zirenetarik inork ere ez duela eman argibiderik, gertatuaren aurrean zer bide jokatu behar zen aditzera emanez.

### HARTU DIREN LIBURUAK:

Lur Editorialak emanik, Joanes Etxeberri Sarakoaren *Lan Hautatuak*, Voltaire-ren *Kandido* (I. Sarasolak itzulia), M. Dobb-en *Sozialismoaren frogantza*; Jakin sortak J. Hiriart-Urrutyren *Zezenak errepublikan eta Joseba Intxaustiren Iraultaren hildotik*; Etor-ekoak Mitxelenaen *Lan Hautatuak*; A. Villasante euskaltzain buruak bere *La declinación del vasco literario común*; E. Ibáñez-ez *Diccionario Rifeño-Español* eta *Diccionario Español-Rifeño* (2tomo).

Bestalde, Mitxelena jaunak, bere lanen separata hauek: *Egunak eta egun-izenak* ("Munibe", XXIII - 4. 1971) eta *Notas sobre las lenguas de la Navarra medieval* (Vol. Homenaje a D. José Esteban Uranga. I. "Principe de Viana").

Irigoyen eta Altuna jaunak eman dute irakasle karneteri buruzkoaren berri. Jaun biok S. Basauri jaunarekin egin zuten bilera eta azterketetan, jaun-andere hauei tituluak ematea erabaki zuten: Imanol Laspiur Zabala, Jaime Guenaga Cenicacelaya, Xabier Peña Albizu, Eusebio Osa Unamuno, Juan M.<sup>a</sup> de Ojanguren, Jesus Oyarzun San Román, Patxi Uribarren eta Francisco Muguruza Ansola. Karnetaren eskaria eginaz euren *curriculum vitae* bidali zuten gainerakoei esamiñetarako deia egingo zaie.

Hautamenak nola egin diren eta aurrerantzean zer jokabide jarraitu behar denari buruzko xehetasunak eman dituzte. Eta, esamiñetarako bibliografia osatu beharra agertzen dute. Bibliografia osatze hau L. Mitxelana jaunaren esku utzi zan aurreko batzarrean.

### b) ARAUTEGI BERRITUAREN BIRRETSIAREN BERRI EMATEA:

A. Villasante euskaltzainburu jaunak irakurri du txostena, aditzera emanez, apirilaren 4eko bilkura berezian Arautegi berriari birretsia edo ratifikazioa eman zitzaiola. Gero Arautegi honen testuaren kopiak atera eta danon artean zabaldu direla. Euskal eta frantsez itzulpenak ere eginik daudela; eta horrela hiru hizkuntzetan, alegia, agertuko dala EUSKE-RA-en hurrengo zenbakian. Hamendik aurrera, bada, gure Euskaltzaindiaren martxa eta gora-beherak zuzentzeko, Arautegi hau izango dugula oinharri lege.

Gure legezko nortasuna ere behar bezala lotu beharra dagoela eta Arautegiaren batzordekoak lan hau beren gain hartzeko eskaria egiten du. Onhartu da.

### d) ALFABETATZE BATZORDEAREN BILERAREN BERRI:

Lizundia jaunak irakurri du goizeko batzarrean tratatua. Araudi bat egin dala ekintza hau euskerari eta Euskaltzaindiari soilik lotuta lana egiteko eta Irigaray jaunak hautatu dituen oinharritzko testuak ontzat hartu direla.

Eta euskal alfabetatze batzordea osatzeko arduradun hauek berriz izendatu: Irigaray, Basauri, Charritton, Enbeita, Intxausti, Kintana eta Oregi jaunak.

e) **BATZORDE LANAK ONHARTZEKO PROZEDURAZ:**

Lizundia jaunak irakurri du Villasante eta berak elkarrekin egin duten lana, batzarkideei berri emanaz. Batzorde lanak Euskaltzaindiak, azken erabakia bere egiteko, zer eta zelan jokatu, gai bakoitzari dagokion araberan.

f) **FINANZIATZE ASMOEZ:**

Idazkariak, Santamaria jaunarekin mintzatu delarik, aditzera ematen du gai hau euskaltzain osoen bilkura berezi barrengo batean aztertzea erabakitzea komeni dela, gero bilkura orokarrari kontua emanez.

g) **BAKOITZAK DAKARRENETIK:**

Santamaria jaunak linguistika zientziari beruzko laneri gure batzarretan toki gehiago ematea eskatzen du. Beharrezkoen diren lanak hautaturik, eta lanok alde aurretik idatzita presentatu eta kontra-ponentziak jarriaz. Hau ere euskaltzainen bilera berezian ikutzeko laga da.

Lizundia jaunak aditzera ematen du EUSKERA (XV, 1971) agertu dela eta bertatik "Idatz arauetaz"ko separata bat egin dala. Zenbait ale batzarkideen artean zabalduak izan dira.

Villasante jaunak aditzera ematen du, aurtengo udazken aldera, Auritzen Fermin Irigaray "Larreko" zanari omenaldia egingo zaiola, ohorezko harri bat jarriaz eta Euskaltzaindiak bere urteroko batzarra, Nafarroan, egun horretan izango duela, batzar idekia edozelan ere.

*Euskaltzainburua*  
LUIS VILLASANTE

*Idazkaria*  
JUAN SAN MARTIN

1972 - V - 26

Donostian, Gipuzkoako Diputazioan, 1972ko maiatzaren 26an, arratsaldeko lauretan. Bildu dira: Villasante buru, Haritschelhar buruordezko, Arrue, Irigaray, Irigoyen, Lafitte eta Satrustegi euskaltzain jaunak; Beobide, Etxaide, Garmendia (Salbador), M. Itzaina, Lizundia, Santamaria eta Zatarain laguntzaile jaunak, San Martin idazkari dala.

Dassance, Diharce, Eppherre, Erkiaga, Labayen, Larzabal, Lekuona, Mixtelena eta Zabala jaunak ezin etorria adierazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da biltzarra.

Apirileko agiria onhartu da.

a) **HAR-EMANAK:**

Santamaria jaunak eman ditu Madrilen maiatzaren 9an Herri Hizkuntzen Sekretaritzak izan duen batzarraren berriak, bera horretarako Euskaltzaindiaren ordezkaria den aldetik. Oraingoz *Symposium*-ik ez egitea erabaki dutela eta lan praktiku arinagoeri jarraitzea. Honetarako,

sekretaritzaren honek bere bulego bat jarriko duela Madrilen bertan, Josep Meliá jaunaren ardurapean.

Oregi jaunak bidalia, Hiztegiari berak eginiko oharren berri eman da eta Hiztegiaren ari direnei ematen zaie.

#### HARTU DIREN LIBURUAK:

L. Haranburu-Altunak emanik, Donostiako apaiztegitik, J. Altunaren *Biologia*, M. Ugalderekin *Kristo Jainkoarekin Elkarganatzearen Sakramentua*, Filosofoen lehen urtekoen ikas-lanak *Salbamen Kondaira* (1 eta 2), M. M. Garijo-ren *Kristoren Grazia* eta A. Lertxundiren *Gaurko Literatura*; Iñaki Beobidek, "Gauza Harrigarriak - Walt Disney" saileko *Izadiaren gauza harrigarriak* eta *Oihaneko gauza harrigarriak*, "Ikastola liburutegia" saileko *Ogia*, *Erleak eta ezia*, *Olentzaro*, *Onddoak* eta *Printze txikia*, "Irakasleen Liburutegia" saileko *Eskoletako aldizkariak*, "Ipuiak" saileko *Tom Sawyeren ibilerak*, *Altxorraren isla*, *Pinotxo* eta *Peter Pan*, eta "Irakur saileko" Lasa anai-arreben *Poema bilduma* eta I. Pagolaren *Marx eta erligioa*; Joan Inazio Goikoetxea "Gaztelu"k bere bi poema liburu sarituak, *Gauean oihu* eta *Biziaren erroetan*; J. San Martinek emana Kepa Enbeitaren *Gure Urretxindorra*; lanen separatak, P. Lafittek *Haruz-ka*, "*Zephyrus*"; J. M. Satrustegik *Correspondencia familiar vasca del siglo XIX*, "*Fontes*" eta *Ezkontza eta Urdiain-go ohitura zaharrak*, "*Munibe*", eta "*Aitziber*" aldizkariaren X. zenb. (1972). Guzietan eskerrak ematea erabakitzen da.

#### b) GOIZEKO BILKURA BEREZIAREN BERRI:

Goizeko hamaiketan, Euskaltzaindiaren Ordezkaritzako bulegoan, euskaltzain oso hauek bildu dira batzar berezian: Villasante, Haritschlar, Arrue, Diharce, Irigaray, Irigoyen, Lafitte, Lojendio, San Martin eta Satrustegi. Eta ezin etorria adierazi dute: Dassance, Eppherre, Larzabal, Mitxelena eta Zabalak.

Euskaltzaindiaren diru-finanziaziaztearen erakunde zabal bat estudiatu da eta ontzat eman da bere oinharrietan. Lan honen eragile egingo duen persona izendatzekotan gelditu da.

San Martin idazkariak Arenazaganako bere "zentsurazko botoa" jaso du. Ondoren salakuntzak irakurriaz punduz puntu erantzuna egiten du bidezko argitasunak emanaz. Euskaltzaindiak aho batez San Martinez orainarte idazkaritzan egindako lana onartzen eta eskertzen du eta bere konfiantza osoa berritzen dio.

Euskal alfabetatzeari buruz, Araudi bat mamiz ontzat emana da. Irigaray jaunak arduradun bezala, orraztapen batzuk eskatzen ditu. Horregaitik hurrengo batzarrean Araudia zenbait pundutan hobekiago lotuaz, zeharo finkatzea erabakitzen da.

#### d) HIZTEGI ANALOGIKOAZ:

C. Santamaria jaunak irakurtzen du txostena, zehatz adieraziaz zer izan behar duen Hiztegi analogikoak: antolakizun bideak Larousse eta

Casares-enetan ideiak harturik. Ahaidetasun sailaren exenploak jartzen ditu. Hiztegi analogiko honek idazleei lagunduko die, eta geroago batean Hiztegi nagusia egiteko ere lagungarri izanen da. Lan hau, ikastola hiztegiak egiten ari diranen esku proposatzen du, Donostiako ordezkartzako bulegoaren pean. Lan orokorraren funtsari buruz mintzatzen da eta datorren batzarrerako, esenplu gisa, hamarren bat hitz-buru landuak ekartzekotan gelditu da.

e) *LEGE- GIZONEK BEHAR DUTEN HIZTEGIÑOAZ:*

Euskaltzainburuak irakurridu horri buruzko txostentxo bat. Gipuzkoako lege gizonen kolegioari laguntzeko izango da eta "Derecho de Familia" sailekoa, beharbada Euskaltzaindiak beste eremu batzuetara eramaten badu ere. Lana behar bezala atontzeko, batzordeen organigrama jarraituaz, batzorde hau izendatzen da: eragile ataleko: Mitxelena buru, Arrue, Haritschelhar, eta Lizundia, idazkari; kontseilari edo lankide atalerako: Lojendio, Oleaga, Santamaria, Caro Baroja, Itçaina, G. Monreal, A. Muniategi eta P. Zabaleta.

f) *BAKOITZAK DAKARRENETIK:*

"Larreko" zenaren omenaldi eta oroit-harriari buruz mintzatu da. Antolakizun hoiei buruz Auritzeko kontzejura idaztea, eta bertarako hitzaldiak gertatzea. Pablo Fermin Irigaray Goizueta "Larreko" (1869-1949) euskal idazle euskaltzain eta midikuaren bizitza, idazletza eta bere garaiko giroa adieraziko dituzten hiru hitzaldi laburrak gertatzea; gizona hurbildik eta adiskidetasunez ezagutzen zutenen artetik hiru hauek hautatu dira: Erkiaga, Labayen eta Lafitte jaun euskaltzainak, hitzaldi hauek gerta lezazkenak. Hirurei aditzera ematea erabakitzen da. Auritzeko Aiuntamendura idaztea eta bertakoekin har-emanetan jarri eta antolakizun xehetasunak gertatzea, idazkari-ordearen eta Jose Irigaray, "Larreko"ren ilobaren esku gelditzen da.

*Euskaltzainburua*  
LUIS VILLASANTE

*Idazkaria*  
JUAN SAN MARTIN

1972 - VI - 30

Donostian, Gipuzkoako Diputazioan, 1972 ekainaren 30ean, arratsaldeko lauretan. Bildu dira: Villasante buru, Haritschelhar buruordezko, Arrue, Irigaray, Irigoyen, Lafitte eta Zabala euskaltzain jaunak; Aresti, Arregi (Frantziska), Enbeita, Etxaburu, Garmendia (Jon), Garmendia (Sabador), Intxausti, Kintana, Lizundia, Sarasola eta Zatarain laguntzaile jaunak, San Martin idazkari dala.

Dassance, Diharce, Epherre, Larzabal eta Mitxelena jaunak ezin etorria adierazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da biltzarra.

Maiatzeko agiria onhartu da.

a) *HAR-EMANAK*:

P. F. Irigaray "Larreko"ren gorasarreari buruz Auritzen eman diren urratsen berri ematen du Lizundiak. Ondoren bertarako programa hornitu da: Irailaren 10ean izango da gorasarre hau; 11etan Meza konzelebratua, 12etan "Muxikoak" dantza, eta oroit-harria agerian jarri, 12,30ean Bilkura idekia: Alkatearen agurra, Euskaltzainburuaren agurra, eta hiru hitzaldi labur, "Larreko"ren garaiko giroa, P. Lafittek "Larreko" euskal idazle, E. Erkiagak "Larreko" gizona dutelarik gaitzat.

Euskaltzainburuak, aditz batuaren batzordekoen bilerak uztailaren azken astean egitea eskatzen du, eta hala erabaki da. Tokia Arantzazu hautatu da eta bilera egunak 27, 28 eta 29. Eta, 28an, goizeko hamaiketan Euskaltzaindiaren hileroko batzarra han bertan egitea erabaki da.

Euskaltzainburu-ordeak, aditzera ematen du, Ustaritzen estudiante amerikanoak ari direla euskaraz ikasten eta gaur goizean bertan agurtu dituela. Irakasleen artean Mitxelena, J. Basterretxea eta Y. Oñatibia euskaltzaindikoak direla.

D. Peillenen gutuna, "Chiveroua eta Marcelina" asto-lasterra edo irri-pastorala eta "Recueil Vétérinaire" pastorala Parisko Biblioteka Nationaletik kopiatu zituela eta honerat bidali, baina ez direla inon argitaratzen. Baina, Haritschelhar jaunak dionez orain dute inprimerian "Recueil Vétérinaire" Bulletin du Musée Basque-n aurki argitaratzeko. Bestea, oraingoz, kopia bat Euskaltzaindiko artxiboan gelditzen da.

Bizkaian anitz kolegio eta eskola direla euskaraz ere erakusten dutenak, legeak zernahitarako libre uzten dizkien orduetan, eta beren lan txalogarriagatik eskerrak ematea erabakitzen da. Bilboko "Euskerazaleak" elkarteak egin du eskola guziona lista.

*HARTU DIREN LIBURUAK*:

Etor argitaldaria emanak: Gorka Trintxerperen *Zorion baten zatnak* eta Mikel Lasaren *Novela berria Hego Amerikan*. Beren lanen separatak, G. Arestik "Flexiones verbales empleadas por Pedro de Axular en su obra *Gero*", *Fontes*, eta J. Haritschelharrek "Una propriété souletine vers le milieu du XIXe siècle *ETCHAHUNIA*", B. Musée Basque.

b) *ALFABETATZE ARAUDIAZ*:

Maiatzeko batzarrean irakurri zen araudiari egin zaizkon ikutu edo zuzenketen berri eman du Irigaray jaunak, eta era berean araudiaren bete beharra adierazi. Onhartua gelditzen da.

Batzordea berritzen da: Gidari saileko, buru A. Irigaray, eta batzar-kide, B. Arregi, S. Basauri, P. Charritton, E. Erkiaga, K. Etxenagusia, J. Intxausti, X. Kintana, J. Oregi; eta bulego saileko, J. L. Lizundia Bizkairako, M. Ruiz Urrestarazu Arabarako eta S. Garmendia Gipuzkoarako.

d) **8 URTERARTEKO ESKOLA HIZTEGIA ONARTZEAZ (3 zati):**

Salbador Garmendiak irakurri du txosten bat, lan hau beregain eramanean duen batzordearen izenean, lana zer eta nola eramanean duten zehatz mehatz argitasunak emanez, lehen zerrenda bat kontseilarien artean banandurik eta gero hauen erantzunak haintzat harturik beharrezko zuzenketak eginaz, eta erabakiok hartzeko zer aburu jarraitu duten.

Ondotik, Villasantek egin ditu hitz batzuk, lana burutu dutenei eta lankide guzietan eskerrak emanez eta eskolak duten hiztegi premia agerrezaz. Ez dala hitzok banan bana berriz aztertzerik, horien kriterioa ikusiaz, eta oraingoz, experimental eran utzi, denborarekin beharko diren zuzenketak ikusteko.

Listak zabaldu dira batzarkideen artean eta etorri ez diren euskaltzaineri korreoz bialtzea erabaki, eta urrengo batzarrean erabakin hartzeko uzten da.

e) **DENDA IZENDEGIAZ:**

Kintanak agertzen du, behar bezala egiteko denborarik izan ez duenez, urrengerako utzi beharko dala.

f) **IRIGOYEN JAUNAREN TXOSTENA:**

"*Jakin*" hitza ohiturazko zentzunez zelan erabiltzen den. A. Tovar-en "Miscelánea vasca" (FLV, 1971, p. 5-10) lana dakar gogora, Hego Amerikako gaztelera erabiltzen duten *saber*, "soler" bezala, griego eta latinetikako sustraiak dituela dio Tovar-ek, eta Irigoyenek gogoratzen digu euskeran ere *badáki* erabiltzen dela era berean, Bizkaiko euskalkietan. Zenbait batzarkidek diotenez, baita Gipuzkoan bertan ere. Adierazpenak ematen dira.

Eta, historian zehar *-ren* atzizkiak hartu dituen diferentziak agertzen ditu. Agirik zaharretan (Leire, 1110) *-re*; eta (Orreaga, 12894) *-ren*, eta geroztiko zenbait esanplu, maiz *-(r)en*, eta antzerakoak, *-ren*, *-rean*, *en*, *-an*, eta abar, bakoitzaren iturriak emanaz.

h) **XENPELAR BERTSO PAPEREN OINARRIAK ONARTZEAZ:**

"Xenpelar" sarirako diru laguntza lortu da Donostiako Centro de Atracción y Turismo-tik. Bertsolari legeetan nonahi argitaratzen diren bertso sailentzat. Lehen saria 12.000 pezetakoa, bigarrena 8.000 eta hirugarrena 5.000.

Lehen, sari hau, "Lizardi" poema sariarekin batean eramaten zen, baina beste sariketa batzuetan diru gehiago ematen delako edo, hona ez da lanik etortzen.

Bai "Xenpelar" eta bai "Lizardi" sariak Gipuzkoako Caja de Ahorros Provincial-aren diruz egin izan dira orain arte, eta orain C. A. T.-k gehiago ematen duenez, Zabala jauna gelditu da Caja de Ahorros-ko J. Abad jaunarekin mintzatzekotan, sariketa hauei buruz.



i) *BERTSOLARI TXAPELKETAREN ERATZE ARAUDIAZ:*

Agintarien aldetik dauden eragozpenak azaltzen dira. Bizkaiko gobernadoreak bertsolari saio guziak debekatzen ditu nonbait, eta Gipuzkoan ez diote uzten Lopategi eta Azpillagari plazetara irtetzen. Egoera honetan, ez da hain erraza txapelketarik antolatzea, eta antolakizunok aurrera eraman baino lehen bertsolariekin mintzatu beharra agertzen da. Gainera, araudia ere berekin har-emanean egin beharra danez gero, Zabala jaunaren esku uzten da bertsolariekin hitz egitea.

j) *BAKOITZAK DAKARRENETIK:*

Haritschelhar jaunak dio, udara honetan, Bordeleko Unibersitateak eginen duela XIX.mendearen lehen parteko Euskal Herriaren estudioa, eta ahal dela, Euskaltzaindiko batzuk parte hartzen dutenez, Euskaltzaindiaren babesa eman. Ontzat hartu da.

*Euskaltzainburua*  
LUIS VILLASANTE

*Idazkaria*  
JUAN SAN MARTIN

1972 - VII - 28

Arantzazun, 1972ko Uztailaren 28an, arratsaldeko hiru t'erdietan, bildu dira: Villasante buru, Haritschelhar buru-ordeko, Diharce, Irigoyen, Mitxelena, Satrustegi euskaltzainak; Altuna, Aresti, Berriatua, Intxausti, Kintana eta Oregi euskaltzain laguntzaile, euskal aditz batua-  
ren batzordeko direnez eta San Martin idazkari eta Lizundia idazkari-  
ordezko direlarik. Arrue, Dassance, Eppherre, Erkiaga, A. Intza, Irigaray, Lafitte, Larzabal eta Lojendio jaunek ezin etorria adierazi dute, baita Akesolo batzordekoak ere.

Bilera hau alde z aurretik axola handikotzat hartua zen eta hala jakinerazi zien euskaltzain oso guztiei lehendakariak Uztailaren 17-an egindako deian.

Lojendio jaunak bidalitako iritzi eta oharrak irakurri dira. Irigaray jaunarena ere bai.

Mitxelena jaunak, aditz batzordeko buru bezala adierazten du zer eta nola eraman diren aditz batuaren lanak. Ondorean, aditz batzordekoak aurkeztu duten lana orriz orri forma bakoitza banan bana aztertu da.

Bigarren batzarrerako utzi da azken orraztapena eta onartze gorabehera bigarren batzarreko deiarri jarraituz eta Arautegiaren 25. artikulua-  
ren arabera.

*Euskaltzainburua*  
LUIS VILLASANTE

*Idazkaria*  
JUAN SAN MARTIN

1972 - VII - 28

Arantzazun (Oñati), 1972ko uztailaren 28an, goizeko hamaiketean. Bildu dira: Villasante buru, Haritschelhar buruordezko, Diharce, Irigoyen, Mitxelena eta Satrustegi euskaltzain jaunak; Akesolo, Altuna, Aresti, Bastarrika, Berriatua, Fernández Setien, Gandiaga, Garmendia (Jon), Intxausti, Kintana, Lizundia, Ruiz Urrestarazu eta Zatarain laguntzaile jaunak, San Martin idazkari dala.

Arrue, Dassance, Eppherre, Erkiaga, Aita Intzakoa, A. Irigaray, Lafitte, Larzabal eta Lojendio jaunak ezin etorria adierazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Agiria onhartzean, Haritschelhar jaunak aditzera ematen du, Bordeleko Unibersidadeko estudioak, Euskal Herriari buruzkoak, ez direla udara honetan egitekoak, baizik datorren otsailean.

X. Kintanak aurreratutako denda-izenei buruzkoa ere, Donostiako bulgoko batzordearen esku dagoela.

a) *HAR-EMANAK:*

Euskaltzainburuak, Américo Castro laguntzailearen hil berria eman du.

Iruñeko Caja de Ahorros Municipal-ak, bere ehun urte betetzea dalata, literatura sariketak jarri ditu, urtearen bukaerarako. Iruña eta Ribera-ri buruzko gaiak erdaraz eta gai librezkoa euskaraz, nafar idazleontzat, bakoitza 100.000 pezetakoa. Euskarazkoaron epai-mahaina Euskaltzaindiak antolatzea eskatzen digute, baina bost epailetarik hiru nafartzaindiak antolatzea eskatzen digute, baina bost epailetarik hiru nafartzarrak edo bortan bizi direnak izan beharko direla. Hauek izendatzen dira: Haritsehchlar, A. Irigaray, San Martin, Diez de Ulzurrun sendagilea eta J. Bastarretxea, eta nafar kondiziokoren batek sariketan parte hartzea, odo epai-mahaineko izaterik nahi ez badu, Jesus Atxa jarri ordezko.

Caracas-ko E. L. E. (Euskera Lagunen Elkartea) bazkunak antolatzen duen "Andima Ibiñagabeitia saria"ren berri eman da, Urtero bezala, ikastoletako texto gaiari. Lehen saria 1.00,00 dolar USA.

Irailaren 10ean Auritzen egingo den "Larreko" zenaren gorasarreen antolakotaren azkon berriak eman dira.

*HARTU DIREN LIBURUAK:* Buenos Aires-ko "Ekin"ek emanak, Zubillaga Erramun Joxeren *Euskaldunak Argentina'n* eta F. Carmen Echevarría de Lobato Mülle-ren *Y sucedió en la tierra de mi padre...*; "Jakín sortak" egile askoren saiakeraz hornitutako *Gure-Itastola*; "Etor" ek Siadeco elkarteak egindako *Industria-herri baten azteketa. Arrasate eta bere etorkizuna*. Güziei eskerrak ematea erabaki da.

b) *IRIGOYENEN TXOSTENA:*

*Azenari* eta bere patronimiko den *Azenariz*-ri buruzko azterpenak agertzen ditu, eta bertatik zabaldu diren zenbait forma, dokumentu za-

harretan oinharriturik. Esta exenplu gisa, *Armentari*, *Armendariz* izenetan ere antzerako gertakizunak adieraziaz, eta beren esan nahiaren iritziak eta latin formetan zituen erak.

d) **8 URTERA ARTEKO ESKOLA HIZTEGIA:**

Villasantek irakurri du Santamariak prozeduraz egindako karta. Lizundiak, enmienda gisa hartu diren gutunen berri ematen du, hauek haintzat hartu eta behar diren orraztapenak egitea proposatzen duelarik, lehen lana beregain eraman duen batzorde berak. Sistema hau, aho batez ontzat hartu da eta jaso diren iritziak eta oharrak aztertuko dira.

Beste gabe, ohi den otoitzarekin bukatu da batzarra,

*Euskaltzainburua*  
LUIS VILLASANTE

*Idazkaria*  
JUAN SAN MARTIN

**1972 - VII - 29**

Arantzazun, 1972ko Uztailaren 29an, goizeko hamaiketan bildu dira: Villasante buru, Haritschelhar buru-ordeko, Diharce, Irigoyen, Mitxelena, Satrustegi euskaltzainak; Altuna, Berriatua, Intxausti, Kintana laguntzaile eta aditz batzordekoak; San Martin idazkari eta Lizundia Idazkari-ordezko direlarik. Arrue, Dassance, Eppherre, Erkiaga, A. Intza, Irigaray, Lafitte, Larzabal eta Lojendio euskaltzain osoek eta Akesolo, Aresti eta Oregi euskaltzain laguntzaile eta batzordekoek ezin etorria adierazi dute.

Bilkura honen gaia izan da aditz batzordeak prestatu duen batasunerako lana bigarren aldiz artertzea. Batzordeak ez du oraindik aditz laguntzailearen zati bat baizik aurkeztu. Bildu direnek lan hori ikusi ondoan erabaki hau hartu dute, euskaltain osoak, aho batez, mintzatzen direlarik:

**IKUSI DIRENAK LIRAKE, EUSKALTZAINDAIREN IRITZIZ, ORAINGOZ EUSKERA IDATZIAREN BATASUNERAKO ADITZ JOKORIK EGOKIENAK. BATASUNARI BEGIRA HARTZEN DA, BERAZ, ERABAKI HAU, EUSKALKIEI DAGOZKIEN FORMA BEREZIAK ARBUATU GABE.**

Euskaltzain oso guztiei, ezer esatekorik balute, eskatzen zaie iritzia ager dezaten izkribuz, orain onartu den adizki zerrendari buruz, Irailaren 10ean, Auritzen egingo den bilkura egunerako; onuragarri litzake iritzi hau, batez ere, zehazki finkatu gabe, bitara edo gehiagotara, gelditu diren adizkiei dagokienez.

Iraileko batzar arruntean, birretsia emango zaio erabaki honi.

Besterik gabe bukatzen da bilkura eta batzarkideek agiri hau izenpetzen dutelarik.

*Batzarkide hauek izenpetua:*

L. Villasante, J. Haritschelhar, J. San Martín, X. Diharce, A. Irigoyen, L. Mitxelena, J. M. Satrustegi, F. Altuna, I. Berriatua, J. Intxausti, X. Kintana, J. L. Lizundia.

1972 - IX - 10

(Auritzeko bilkura irekia, "Larreko"ren gorasarrez)

Irailaren 10ean, Auritzeko herriak eta Euskaltzaindiak eraturik, Fermin Irigaray "Larreko" sendagile, euskal idazle eta euskaltzaina zenari gorasarrea: Hamaiketan elkar-meza Auritzeko elizan; Hamabietan "Mutitikoak" delako dantza, eta bere sortetxean oroit-harria agertzea; Hamabi terdietan, Herriko-etxean, bilkura irekia: herriko jendea, kanpotar euskaltzaleak, herriko eta Nafarroako, Foru Diputazioneko agintariak eta Euskaltzaindiakoak bildu dira. Mahaiburuan, Foru Diputazioneko buru den Amadeo Marko jauna, Auritzeko alkate den Benito Asanza jauna, Luis Villasante euskaltzainburua, Jean Haritschelhar euskaltzain buruordea, Hipolito Irigaray sendagilea (F. Irigaray "Larreko" zenaren anaia), A. Irigaray euskaltzaina (F. Irigaray "Larreko" zenaren semea) eta hiru hizlariak: A. Intza, Lafitte eta Erkiaga euskaltzain jaunak, San Martin idazkari dala. Batzartuen artean ziren Euskaltzaindiko jaun hauek: Satrustegi, Cortes Izal, Diez de Ulzurrun (medikoa), Intxausti, Izeta, Lizundia, Manterola, Peña, Kintana, Ruiz Urrestarazu, Santamaria eta Uribarren.

A. Arrue, A. Irigoyen, A. M. Labayen eta M. Lekuona euskaltzain jaunak beren agurra eta ezin etorria agertu dute, eskutitez eta telegramaz.

B. Asanza alkate jaunak ireki du biltzarra, euskarazko agurrez. Ondorean, L. Villasante euskaltzainburu jaunak, batzarkideei eskerrak eman ez eta eguneko gaia agerreraziaz "Larreko" goretsiaz.

Idazkariak, gorasarrea onetsiz hartu diren gutun eta telegramak irakurri ditu. Ondorean, Haritschelhar jaunak mugazandiko euskaltzain eta euskaltzaleen izenean agurrezko hitzak.

Idazkariak, literatura sariketen berriak ematen ditu: a) Aurtengo "Xenpelar" izeneko bertso-paper sariketaren lehen saria: Fernando Aire "Xalbador"en "Sortetxea" izeneko bertsoeri; bigarrena, Joxe Ayerberen "Zar-saridun batek esanak"; hirugarrena, I. Olearen "Deaburen bat badago beti gertu gu zirikatze". Epaimahaikoak, F. Artola "Bordari", A. Irigoyen, M. Itzaina eta J. M. Lekuona jaunak. b) Iruñeko Caja de Ahorros Municipal-ak eratu duen sariketaren herri eta epai-mahaikoak: saria, euskerazkoa, nafar idazlearentzat, 100.000 pezetakoa; epai-mahaiko J. Haritschelhar, A. Irigaray, J. San Martin, P. Diez de Ulzurrun (sendagilea) eta J. Basterretxea. d) aurtengo "Txomin Aigrre" nobela sariaren epea igarora denez, epai-mahaikoek izendatu beharra dago, eta jaun hauen izenak ematen dira: E. Erkiaga, P. Lafitte eta X. Lete.

Idazkari-ordezkoak irakasletarako esamifen berri ematen du: Bilbon, Euskaltzaindiaren Etxean eta Donostian E.U.T.G.n izango dira, datorren hilaren hasieran, Mahainburuko, bietarako, jau hauek izendatzen dira: Irigoyen, Altuna, Basauri, Kintana eta X. Garmenia.

Ondoren, hitzaldi laburrak, programan iragarrik egoan bezala: Aita Damaso Intza (Miguel Olasagarre) euskaltzain jaunak; Fermin Irigaray "Larreko" zenaren garaiko giroari buruz; Piarres Lafitte euskaltzain jaunak: "Larreko" euskal idazle; eta Eusebio Erkiaga euskaltzain jaunak: "Larreko" gizon.

Hitzaldien bukaeran, Nafarroako Foru Diputazioneko buru den Amadeo Marko jaunak agurra, biltzartuak agurtuaz eta "Larreko", idazle ez-ezik, sendagile bezala eta Nafarroako Hospital nagusiko zuzendari bezala ere goraiatuaz.

*Euskaltzainburua*  
LUIS VILLASANTE

*Idazkaria*  
JUAN SAN MARTIN

1972 - IX - 29

Donostian, Gipuzkoako Diputazioan, 1977ko irailaren 29an, arratsaldeko lauretan. Bildu dira: Villasante buru, Haritschelhar buruordeko, Irigaray, Irigoyen, Lafitte eta Satrustegi jaun euskaltzainak; Altuna, Baztarrika, Garmendia (Salbador), A. Goenaga, Goikoetxea-Maiza, Intxausti, Kintana, Lizundia, Loidi, Santamaria eta Zatarain jaun laguntzaileak, San Martin idazkari dala.

Arrue, Dassance, Diharce, Eppherre, Erkiaga eta Larzabal jaunak ezin etorria ediarazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Uztailaren 28an Arantzazun egin zen bilerako agiria onhartzen da. Toki berean uztailaren 29an egin zen bilerakoa, aditz batuari buruzkoa, birretea eguneko gaietan sartua dagoanez, gerorako uzten da; eta Auritzeko bilkura irekiaren agiriaz, idazkariak, aditzera ematen du, bertan egin zuen hutsa, Iruñeko Caja de Ahorros Municipal-eko literatura sari-keatarako izendatutako epai-mahaikoen artean M. Izetak behar zuela J. Basterretxearen ordez; beraz, mahaikoak hauk dira: J. Haritschelhar, A. Irigaray, J. San Martin, P. Diez de Ulzurrun (sendagilea) eta M. Izeta jaunak.

a) *HAR-EMANAK*:

Auritzeko bilkura irekia antolatzen lagundu zigun Jose Angel Irigaray jaunari eskerrak ematea erabakitzen da.

E. Erkiaga euskaltzain eta diruzainaren ezin etorriagatik, idazkari-ordezkoak irakurri ditu 1972ko lehen sei-hilabeteetako diru kontuak. Diru-etxeetan egoana, 106.448,41 pezeta; gehitua, 458.842,33; urritua, 345.926,10; dagoena 219.364,4 pezeta. Zerrenda batean ematen dira sarre-  
ren eta urrituen xehetasunak. Aipamenik bereziena, Bizkaiko Diputazioak bere urteko laguntza 100.000 pezetara jasotzea.

Aditzera ematen da, Lasarten, urriaren 8tik 15era bitartean Jon Garmendia (Zeleta) euskaltzain laguntzaileari gorasarre jaiak eskaintzen zaizkiola, eta zorionak ematea erabaki da.

Pedro Migel Urruzuno euskal idazle eta Euskaltzaindiaren urgazle zenari, bere heriotzaren 50 urte betetzean Elgoibarren antolatuko duten omenaldiaren berri ematen du idazkariak, 1973ko urtarrilaren 21ean izango dala, eta antolatzaileak nahi dute hil horretako Euskaltzaindiaren batzarra bertan egitea, eta, gainera, beste zenbait tokitan egin izan dugun bezala, herriari begira hitzalditxoak guk antolatzea, P. M. Urruzuneren garaiko giroa, idazlea, gizona, gaitzat harturik ahal dala. Ontzat hartu

utzi da hitzaldiak antolatzea, lehen Urruzunori buruz zerbait idatzi duten Arrue eta Zabala euskaltzain jaunekin mintzatuaz.

**HARTU DIREN LIBURUAK:** Klaudio Gallastegi apaizak bere *Galburutan*; "Jakín" sortak J. Arregi eta J. Azurmendiren Kolakowski; Fernando Mendizabalek bere *Gramatika txikia euskaraz*; G. Diaz-Plaja-k *Literatura Vasca*; Sanchez Carrión-ek bere *El estado actual del vascuence en la Provincia de Navarra*; beren lanen separatak: P. Lafittek *Gazti-beltza-ren karabinak*, "Gure Herria"; X. Kintanak *Gregorio Arruabarrenak argitara gabe utzi zuen eskuskribu batez zenbait ohar*, "Fontes Lingvae Vasconvm"; Pedro de Yrizarrek *Observaciones sobre la afijación en la Lengua Vasca*, "Boletín R.S.V.A.P." Guzieren eskerrak ematea erabakitzen da.

Era berean, ikastoletako irakasle eta texto idazleak Euskaltzaindiko bibliotekan konsultatu ahal dezaten, Xabier Gereñu laguntzaileak Portugal-ko eskoletan Historia eta Geografia irakasteko erabiltzen dituzten liburua erregalaten ditu: Pedro de Carvalho-ren *Ciências Geografico-Naturais*, 4.º classe eta 3.º classe; *Historia de Portugal*, 4.º classe; eta *Licoes de Historia patria*, 3.º classe; Antonio Branco-ren *O novo libro de Historia*, 4.º classe; José Amado-ren *Historia de Portugal*, 5.º classe eta 6.º classe; J. Pimenta, A. Pimenta-ren *Ciências Geografico Naturais*; eta Evaristo Vieira-ren *Ciências Geografico Naturais*; 6.º classe. Honi ere eskerrak ematea erabakitzen da.

J. M. Satrustegi jaunak joan beharra agertzen duelako, eguneko gaien ordena aldatzea erabakitzen da, bere txostenetik hasiaz.

#### b) GIZA-EMAKUMEEN IZENDEGIA:

J. M. Satrustegiren txostena, Euskaltzaindiaren eskarizko izen zerrenda hornitzeko zer bide eta zer aburu jarraitu duen adierazten du, agiri zaharretatik eta gaur hedatuak, izen bakoitzari bere jatorrizko agirien berri emanaz, eta gainerako zenbait xehetasunez adieraziaz. Laguntzailerik izan du aski. Orain arteko izendegiz eta batez ere Nafarroako agiri zaharrez baliatuz hornitu du bere lana.

Goizean, hontaz, batzordeak bilera berezia izan du eta biltzaileak beren eritziak agertu dituzte izendegi honen alde. Nafarroako diru-etxe batek hamar mila aleko argitalpena egin nahi du berekontu, duarik zabaltzeko, eta Euskaltzaindiak bere babes osoaz hartzea erabagi du. Eskerrak ematen zaizkio Satrustegi jaunari egin duen lan handi eta zehatzagatik.

#### d) ADITZ BATUARI (LEHEN ZATIA) BIRRETSIA EMATEA:

Villasante euskaltzain buruak sarrera gisako txosten bat irakurtzen du. Eman diren urratsak zelan jarraitu diren adieraziaz.

Idazkiz hartu diren oharren berri eman da. Dudan dauden aditzak hobeto aztertzeko alde batera uzten dira, eta gainerakoak onhartzen dira.

Euskaltzain buruordeak, aurrerantzean honelako erabagiak hartzea luzeegi joan ez dadin, euskaltzain numeroakoak batzarretara joateko ahalegina egitea eskatzen du.

Uztailaren 29ko erabakia aztertzen da. Dudagatik oraingoz alde batera uzten diren aditzen berri ematen da. Oharrak dituzten aditzok, batzordeak gogoan hartuko ditu, horiek soilik aztertzeko. Gainerakoa batzar-turik dauden euskaltzainak aho batez ontzat hartzen dute: Villasante, Haritschelhar, Irigaray, Irigoyen, Lafitte, Satrustegi eta San Martin jaun-ek. Hauez gainera, batzartuak erabagitzen dutenaren alde, idazkiz eta poderioa emanaz, jaun hauen berriak eman dira: Arrue, Dassance, Di-harce, Eppherre, Larzabal, Lekuona, Lojendio eta Mitxelena jaun euskal-tzainak. Esan bezala, oharrak jarritako aditzak gerorako utziaz, Onhartua multikopiatuaz zabaltzen da, geroago EUSKERAn argitaratzeko.

e) 8 URTERA ARTEKO ESKOLA HIZTEGIAZ:

Euskaltzainburuak sarrera hitz batzuk egin ditu, lanak eraman di-tuen bideak adieraziaz. Ekaineko batzarrean hiztegi honen hiru zati aur-keztuak izan ziren, eta listak zabaldu ziren euskaltzainen artean. Uztai-leko bileran, hartu ziren oharrak batzordearen esku uztea erabaki zen. Ikusten denez, 339 hitzetatik 100 daude guziak ontzat harturik eta hauek EUSKERAn argitaratuko dira; eta besteen oharrak, berriz aztertu.

Ondorean Santamaria jaunak eman ditu lanaren xehetasunak, batzor-dekoen izenean. Jasotako oharrak kontuzkoak direla, eta horien araura aldaketa batzuk edo behar bada asko sartuko dituztela hiztegiaren parte honetan.

Jarraitu beharko diren aburuen gainean zenbait elkarriketa izan da. Batzordearen gain konfiantza osoa uzten da eta eskerrak ematen zaizkie egin duten lanagaitik.

f) DENDA IZENDEGIAZ:

X. Kintanak eman du lanaren aurrerapena, lehen zerrenda gertatzeko bilduak direla eta euskaltzainen artean inkesta gisa zabalduko dala, hila-beteko epe baten ondotik erantzuteko.

g) IRAKASLE AGIRIAZ KONTU EMATEA:

Lizundiak adierazten ditu lana nola eraman denaren gora beherak. Esaminak egingo dira urriaren 7an eta 14an, Bilbon Euskaltzaindia-ren etxean eta Donostian EUTG-en. Epai-mahaia osatu ahal duten jau-nak; P. Altuna, A. Irigoyen, X. Kintana, S. Garmendia, eta B. Basauri.

Ikastaroak nonnahi egin ditezke, baina karneta hartzeko epaia Eus-kaltzaindiak izango du.

Eguberrietan, behar bada, berriz ere esaminak egingo dira.

Baita ere, jakinerazten da, kultura esaminak datorren Aste Santu inguruan edo izango direla.

Haritschelhar jaunak Baionan ere egin beharra agertzen du, hasteko, epai-mahainerako mugazandiko biga hemendiko beste birekin osatu-rik edo.

Beste gabe, ohi den otoitzarekin bukatu da batzarra.

*Euskaltzainburua*  
LUIS VILLASANTE

*Idazkaria*  
JUAN SAN MARTIN

1972 - X - 27

Donostian, Gipuzkoako Diputazioan, 1972ko urriaren 27an, arratsaldeko lauretan. Bildu dira: Villasante buru, Haritschelhar buruordezko, Irigoyen, Lafitte eta Satrustegi jaun euskaltzainak; Altuna, Berrojalbiz, J. F. Setién, S. Garmendia, Goenaga, J. Goikoetxea, Intxausti, Kintana, Lizundia eta Zatarain jaun laguntzaileak, San Martin idazkari dala.

Arrue, Dassance, Diharce, Eppherre, Erkiaga, Larzabal eta Zabala jaunak ezin etorria adierazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Iraileko agiria onhartzean, Satrustegi jaunak aditzera ematen du, Banco de la Vasconia-k argitaratuko duen *Euskal izendegia* 50.000 alekoa izango dela eta ez 10.000koa, agirian jarria den bezala.

a) *HAR-EMANAK*:

A. Zabala euskaltzain jaunaren gutuna irakurri da. Bertsolari txapelketetatik gelditurik dugun dirutik Uztaideri laguntzazko eskainia egitea eskatzen du. 5.000 pezetako laguntza ematea erabaki da.

Zatarain jaunak, Bertsolarien kontu horretan firmaduna den alde-  
tik, kontu hori Euskaltzaindiaren izenean jartzea eskatzen du. Diru hori,  
norbait faltako balitz ere, galdu ez dadin. Eta firmak batzordeko diren  
Arrue, Zabala eta J. M. Lekuona jaunen izenean jartzea erabakitzen da.

Irigoyen jaunak, Ortuzar ("Iturri") bertsolaria nola elbarriturik den,  
aditzera ematen du, holako laguntza bat ematea merezi duela. Ontzat  
hartzen da, eta beste 5.000 pezeta ematea erabakitzen da. Bertsolari diru-  
kutxan 10.000 pesetara arte ez balitz, Uztape eta Iturri-ren artean er-  
dibana egitea erabakitzen da.

Bilbon, "Iturri"ren omenez bertso-saio bat egitea komeni dala eta  
honetarako bertsolariekin hitz egitea erabakitzen da. Gero, Bizkaiko go-  
bernadoreari baimena eskatzeko.

*HARTU DIREN LIBURUAK*: "Etor" argitaldaria eman, Kaxildo Alkortaren *Giza zirriborroa*; "Jakín"ek, Rikardo Arregi zenaren *Herriaren lekuko*; Irakasle taldeak, *Euskalduntzen*; J. San Martinek, Pedro Arnal Caveroren *Vocabulario del Alto-aragones*; J. M. Satrustegik, lan-separatak, *Romance vasco de la doncella guerrera* "Fontes" eta *El mercado de las sanguijuelas en el País Vasco* "Cuadernos de Etnología y etnografía". Guzuei eskerrak ematea erabakitzen da.

b) 1792ko "TXOMIN AGIRRE" NOBELA SARIAREN ERABAKIA:

Idazkariak irakurri du epai-mahaiaren agiria. "Baturantz" izenordezko *Haurgintza minetan* izeneko lanari lehen saria ematea erabaki dute. Epai-mahaiko, E. Erkiaga, P. Lafitte eta X. Lete. Ondorean, idazkariak, ireki du "Baturantz" izenez etorren estalkia eta Mikel Zarate da egile izena.



d) *HURRENGO "EUSKERA"*:

EUSKERA, aldizkariaren batzordeak, 1972ko bigarren zenbakirako lanak hautatzea egin du. Lan nagusietan, Lafitte jaunak gertatutako Guillaume-ren gatunak eta G. López de Guereñu-ren *Más voces alavesas*. Gai laburrak, agiriak, berri laburrak, hartu diren liburuak, liburuen oharrak eta abar.

e) *IRAKASLE ESAMINAK*:

Irakasletarako esaminen berri eman da. Esaminotara presentatuak, Bilbon 44 eta Donostian 54.

Bilbon presentatu ziren 44tik 24ri irakasle titulua ematea erabaki zuten epai-mahaiko ziren A. Irigoyen, A. P. Altuna, X. Garmendia eta X. Kintana jaunak. Onhartuen izenak: José Ramón Etxebarria, Isabel Lertxundi, Kepa Maillea, Josu Torre, José M<sup>a</sup> Erzirengoa, Patxi Goenaga, Andolin Eguzkitza, Jacinto Iturbe, Manuel Arzallus, Joxe Andoni Arrizabalaga, Jose Martin Esnal, Mikel Aingueru Aranburu, Joxe M<sup>a</sup> Agirresarobe, Benjamin Atutxa, Xabier Bilbao, Jose M<sup>a</sup> Elorza, Jesús Félix Torcal, Luis Jauregi, Franzizko M<sup>a</sup> Lizardi, Jon Orbezua, Aitor Ortiz de Pinedo, Kepa Martinez de Lagos, Erramon Gerrikagoitia, Begoña Iturritza. Hauei, euskara irakasle diploma eta karneta emango zaie.

Ondorean, Alfabetatze kanpainetako irakasleei buruz jardun da, lehengo karnetaren testoa aldatu beharra tratatu da. Eta, Alfabetatze honetan monitor tituluak berritzea, eta hauen esaminak ere antolatu beharra.

f) *IRIGOYEN JAUNAREN TXOSTENA*:

Euskeraren estruktura morfologiku eta sintaktikuak. Nominal sistema zelan behar duen, mugatzailea nondik nora agertzen den eta abar.

g) *BAKOITZAK DAKARRENETIK*:

Euskaltzainburuak, kargu berritzeen muga heldu dala eta azaroaren 24an, goizeko hamaiketan, Gipuzkoako ordezkartzaren bulegoan euskaltzainen bilkura berezia egitea eskatzen du. Bilkura honen gai bakarra kargu berritzea izango da. Hala erabaki da.

Lizundia jaunak aditzera ematen du, Gerediaga elkarteak VII. Liburu esta diskoen azoka antolatzen duela azaroaren 1,5 eta 6 egunetan eta Euskaltzaindia eta Euskaltzaindikoak gomitatzen ditu.

Beste gabe, ohi den otoitzarekin bukatu da batzarra.

*Euskaltzainburua*  
LUIS VILLASANTE

*Idazkaria*  
JUAN SAN MARTIN

## 1972 - XI - 24

Donostian, Gipuzkoako Diputazioan, 1972ko azaroaren 24an, goizeko hamaiketan, Villasante, Haritschelhar, Arrue, Diharce, Erkiaga, Irigaray, Irigoyen, Lafitte, Lojendio, San Martin, Satrustegi eta Zabala euskaltzain jaunak barne-bilkura berezian batzartu dira, Euskaltzaindiaren kargu berritzea gai bakartzat delarik.

Etorri ezina agertuaz, beren bozen poderioa emanaz idatzi dute ondorengo jaun hauek, Dassancek Lafitteri, Eppherrek eta Larzabalek Haritschelharri, eta Mitxelenak Satrustegiri.

Aita Intzakoaren gutun bat irakurri da, ezin etorria adieraziz eta eguneko gaiari buruz zenbait ohar agerrerez. Villasante Euskaltzainburuak, eman zion erantzuna irakurri du.

Ondorean, beste gabe, araudiaren arabera, bozetara jo da.

24tik 16 boto daude. Lehen aldian 24ren erdiak bat gehiago behar dira maioria hornitzeko; baina bigarren aldi baten gehien ateratzen duena, beste gabe.

*Burua hautatzea*

Lehen aldia:

Villasante	— 12 boto
Erkiaga	— 1 “
Irigaray	— 1 “
2 hutsak	

Bigarren aldia:

Villasante	— 12 boto
Lojendio	— 1 “
3 hutsak	

*Buruordea hautatzea*

Lehen aldia:

Haritschelhar	— 15 boto
1 hutsik	

*Idazkaria hautatzea*

Lehen aldia:

San Martin	— 12 boto
Irigoyen	— 1 “
Zabala	— 1 “
Erkiaga	— 1 “
1 hutsik	

Bigarren aldia:

San Martin	— 10 boto
Irigoyen	— 2 “
Erkiaga	— 2 “
2 hutsik	

*Diruzaina*

Lehen aldia:

Erkiaga	— 13 boto
Irigoyen	— 2 “
Lojendio	— 1 “

Ondorean laguntzaile berriak izendatzeaz hitz egin da. Araudiak 38garren artikuluan dion bezala, aurrez idazkiz aurkeztuaz.

Besterik gabe bukatu da batzarra.

*Euskaltzainburua*  
LUIS VILLASANTE

*Iduzkaria*  
JUAN SAN MARTIN

1972 - XI - 24

Donostian Gipuzkoako Diputazioan, 1972ko azaroaren 24an, arratsaldeko lauretan. Bildu dira: Villasante buru, Haritschelhar buruordezko, Arrue, Diharce, Erkiaga, Irigaray, Irigoyen, Lafitte eta Satrustegi jaun euskaltzainak; Borrojalbiz, F. Setien, Garmendia (Jon), Garmendia (Salbador), Intxausti, Kintana, Lizundia, Loidi, Ruiz Urrestarazu eta Zata-rain jaun-andere laguntzaileak, San Martin idazkari dala.

Dessance, Eppherre, Larzabal, Lojendio, Mitxelena eta Zabala jaunak ezin etorria adierazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Euskaltzain buruak Satrustegi jaunari, batzarkideen izenean, dolu-minak eman dizkio aita hil zaiolako. Bestalde, Satrustegi bera eskertzen da *Euskal izendegia* liburuxkagatik, eta berdin La Vasconia diru-etxea dirua jarri duelako. Euskal izen hoiek juzgaduak ontzat har dezaten Dirección General de Registros Civiles-era eskaria egitea erabakitzen da.

Urrileko agiria onartzen da.

a) *HAR-EMANAK*:

Arrasateko “Danok” elkarteak geroagorako uzten du abendurako pentsatua zuen euskal astea. Arrazoi honegatik, han emateko ziren euskarazko irakasle tituloak urtarrilean Elgoibarren Urruzunoren omenez egingo den bilera irekian emango dira. Bilera ireki hau urtarrilaren 28an izango da; P. M. Urruzunori buruzko hiru hitzaldi laburrekin, bere garaiko giroa, idazlea eta gizona: Arrue, Zabala eta Etxaniz (Urruzuno zenaren iloba) jaunak hizlari.

Arabako Foru Diputazioak, 1972. urterako 25.000 pesetako emaitza egiten du Euskaltzaindiarentzat. Eskerrak eman bekioz.

Abenduko bilera Bilbon izango da, hilaren 29an.

Euskerazko irakasletarako aurtengo bigarren deiko esaminak Eibarraren izango dira abenduaren 30ean, Donostiako Caja de Ahorros Municipal-aren etxean.

Deustuko Unibersidadeko Udako Ikastaro Unibertsitaria "U.I.U." delakoaren gutuna, udarako ikastaro hauetarako Euskaltzaindiaren babesa eskatuaz. Babes hau ematen zaie eta Haritschelhar, Santamaria eta Intxausti jaunak izendatzen dira Euskaltzaindiaren aldetik berekin harreman lokarria edukitzeko.

**HARTU DIREN LIBURUAK:** Piarres Lafittek, *Poèmes basques de Salvat Monho* (1749-1821); J. B. Merino Urrutiak emana, *Inventario de los documentos del Archivo de la Insigne Iglesia Colegial de Logroño*, por Fernando Bujanda; Jabier Aranburuk bere *Juan Ignacio de Iztueta* (euskara-erdaraz); Olabeaga-tar Iñakik bere *Gogoetan*; "Jakin sortak" Rikardo Arregiren *Herriaren lekuko*; "Etor" argitaldaria Joxe Erzibengo eta Patxi Ezkiagaren *Euskal Literatura - I* (XVI-XVII); Ganix-ek emanda, Sebero Altuberen *El acento vasco* eta 1908ko "*Euskal Esnalea*"; Manuel Lekuonak bere lanen separatak, *Erdiaroko Santiyago-bideak Gipuzkoa'n zear*, "Munibe" eta *La Psicología vasca a la luz de la Poesía popular*, "I Semana de Antropología Vasca"; "Cinsa"k "*Mapa del País Vasco*". Guzieri eskerrak ematea erabaki da.

b) **KARGU BERRITZEAREN KONTU EMATEA:**

Euskaltzainburuak adierazi du goizeko hamaiketan euskaltzainak bilera berezia izan dutela, araudiaren araberez bozetara egin dala kargu berritzea eta lehengoak berriz atera direla: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruordezko, J. San Martin idazkari eta E. Erkiaga diruzain.

d) **LAFITTE JAUNAREN TXOSTENA IPUINETAZ:**

Ipuien biltzaileen izenak, ipui motak zelako, haserak eta bukaerak nolako, zer gaietaz diren eta abar, zehatz adierati ditu.

Ondorean, Lévi Strauss-ek estrukturalismoz ipuiei buruz egin duen eskemaz eta J. Caro Barojak Euskal-Herriko ipuiak beste erresuma batzuetakoekin konparatuaz eginak dituen saioez, elkarrizketa izan da.

e) **ETXEGINTZA BATZORDE LANAREN AZALPENEA:**

Idazkaria mintzatu da, batzorde honetako lankide den Joxe Migel Zumalabe jaunak, azterketa askoren ondoren, hitzen fitxategia osatzearen bukaeretan dabilela. Honetarako, "Anuario de Eusko-Folklore"ko tomoetatik aparte, egungo etxeginegandik bilketak eta P. Lhande eta P. Mujika-ren hitzegiez gainera Azkue-renean hitzak banan-bana begiratu dituela. Fitxerotegia urtearen bukaerarako hornitua izango dala eta gero bertatik behar diren hautapenak egin gaurko etxegintzarako balio ahal izateko.

f) **IRAKASLE ESAMINAK:**

Esan den bezala, abenduaren 30ean izango dira aurtengo bigarren deiko esaminak Eibarren. Bertara, nahi duten guziak joan ditezke.

Bilbon, egin ziren esamiren berri aurreko agirian eman zen.

Donostian urriaren 14an, Euskaltzaindiak lan honetarako irailaren 29an mahai-buruko izendatu zituen A. Irigoyen, P. Altuna, S. Garmendia eta X. Kintana jaunak eman dute esaminaren berri. 54uk hartu zuten parte eta 39ri ematen zaie irakasle titulua. Onartuen izenak: Iñaki Azkune, Jose Antonio Agirre, Sebastian Uría, Antton Haranburu, Mikel Ugalde, Jon Tolosa Mendizabal, Angel Ugarteburu Meabe, Antxon Narbaiza, Martin Lasa Jauregi, Itziar Mujika, Iñaki Etxebarria Garmendia, Eugenio Galparsoro Mujika, Txomin Izagirre Soraluze, Jose Manuel Odriozola, Lazaro Azkune, Salbador Unzueta, Iñaki Zulaika, Koldo Arratibel, Pedro M<sup>a</sup> Esnal Ormaechea, Jon Urrujulegi, Jesus Mari Maiz, Jabier Jauregi Garmendia, Jon Mujika Lasagabaster, Jesus Mari Arrieta, Bernabe Berezibar, Jesus Mari Mendizabal, Arantza Sarriegi, Antton Ibarguren, Mari Koro Egaña, Andoni Sarriegi, Xabier Baztarrika, Margarita Odriozola, Juan Amenabar, Romualdo Katarain, Jose Manuel Agirreabalaga, Kontxi Mandiola, Andoni Zorrilla, Juan Antonio Letamendia, Leopoldo Etxebarria.

g) **BAKOITZAK DAKARRENETIK:**

A. Zatarain jaunak ohar batzuk irakurri ditu aditz batuko bi formari buruz: *Nuan, nuen; zuan, zuen*. Testu zaharretako agiriak lekuko adieraziz. Mitxelena ustez, era horiek, Euskal-Herriko periferia edo kanpokalderat e-kin erabiltzen dira eta erdialdean a-kin.

Ohi den otoitzarekin bukatu da batzarra.

*Euskaltzainburua*  
LUIS VILLASANTE

*Idazkaria*  
JUAN SAN MARTIN

1972-XII-29.

Bilbon Euskaltzaindiaren etxean, 1972ko abenduaren 29an, goizeko hamaiketan. Bildu dira: L. Villasante euskaltzainburu, A. Arrue, E. Erkiaga, A. Irigoyen eta L. Mitxelena jaun euskaltzainak; G. Aresti, I. Berriatua, J. Berrojalbiz, P. Charrington, X. Gereño, J. Goikoetxea-Maiza, X. Kintana, J. L. Lizundia, M. Ruiz Urrestarazu, P. Uribarren eta A. Zatarain jaun laguntzaileka San Martin idazkari dala.

Haritschelhar, Diharce, Irigaray eta Lafitte jaunak ezin etorria adierazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Azaroko agiria onhartu da.

a) **HAR-EMANAK:**

EUSKERA XVII (1972) alea argitaratu dala aditzera eman da.

"International League of Societies for the Mentally Handicapped" elkartearen gutuna eskerrak emanaz, "Eskas mentalaren eskubide jeneral eta berezian Agiria" euskarara itzuli genielako.

Xabier Gereñoren gutuna, bi eskari eginaz: bata, Iruineko Arzapetz-pikoari eta Bilbo, Donostia, Gasteiz eta Baionako Apezpikoeri eskutitz bana bialtzea beharrezkotzat agerraraziaz beren agiriak Euskaltzaindiak gomendatutako euskaraz egin dezaten; bestea, eskutitz berean, euskara batuaren arazoa linguistika alorrekoa dala eta ez zenbaitek nahasmenduz agertzen duen bezala, fede kontuakin zer ikusia duena.

Hontaz luzaro mintzatu da, eta, azkenik, euskaltzainburuak ageri ireki bat zabaltzea esan da. Ez eliz-jerarkiarentzat soilik, baizik herri guziari begira. Batzarraren bukaeran berriz ikutzeko uzten da.

Kontu eman da, euskara irakasle titulueterako izendatuak diren epai-mahaikoak motiburik gabe eta modu txarrez irainduak izan direla "Agur" aldizkarian. Gertatuaren kontuak eskatuaz, zerbait egin beharra azaltzen da eta gai hau ere azkenerako uzten da.

1972 "Andima Ibiñagabeitia" sariaren berri ematea eta banatzea egin da, Caracas-ko Euskera Lagunen Elkartearen eskariz. Lehen saria, 1.000 \$ USA-koak J. L. Alvarez Enparantzari bere *Matematik II eta IIIgarren mailak* lanagatik. Horrez gainera bi "Accesit", bata Iñaki Arrarte Irizar-i *Aritmetika Batxiler Atarian* lanagatik, 228 \$ USA; eta bestea Luis Egia Rezolari *Euskal-Erriko Lurraldeak* lanagatik, 14.500 pezetakoa (biak, 1.000 bolivarreko sariak). Sarituok ez dira agertu eta bitartekoen bidez bidali zaizkie.

**HARTU DIREN LIBURUAK:** Kardaberaz taldeak Luis Egiaren *Neurritzia*; "Jakin sortak" L. Villasanteren *Axular. Mendea, gizona, liburua*; "Etor"ekoek elkar-lanean eginiko *Pio Baroja, bere ehunurteburuan*; Juan Anjel Etxebarriak berak itzulitako *Zabiltzate Maitasunean. Batikano II Batzar-Agiriak*; Mondragoeko Caja Laboral Popular-ek Julio Caro Baroja-ren *Los vascos y la historia a través de Garibay*; Juan Anjel Etxebarriak bere *Apuntes para clase de vascuence* (ale bi).

Hoeiz gainera beste separata hauek: A. Irigoyenek bere "Formas de nombres de localidades vizcainas", *Fontes L. V.-11*; eta G. Arestik bere "Flexiones verbales empleadas por Leizarraga de Briscous, en sus traducciones vascas de 1571" *Fontes-11*.

A. Irigoyen liburutegiaren ordenamenduz mintzatu da. Idazkaria euskal kulturaren emeroteca hornitzeaz, gure EUSKERA aldizkariaren trukez.

Idazkari-ordezkoak, Bizkaiko Euskal Alfabetatze batzordeak 1972an emandako ikastaroen xehetasunak eman ditu.

Patxi Uribarrenek Aramaioko ikastola eta euskerazko klaseei Arabako Diputazioak ematen dien babesaz mintzatu da. Batzarrak bere poz atsegina agertu du, bai Araba eta bai Nafarroako Diputazioek euskararen alde egiten duten lanagatik.

## b) EUSKALTZAINBURUAREN TXOSTENA:

Azken kargu berritzea kontuan harturik, epe berri baten aitzinean gaudenez, eginkizuneri gain-begiratu bat emanez irakurri du txosten bat euskaltzainburuak, esku artean dauzkagun asmo eta egitekoak bana-banaka agertuaz, egin behar horiek gogorazteko: 1. Aditz batasuna aurrera

eramatea. 2. Salgai diren euskarazko liburuen katalogua bukatu eta argitaratzea. 3. Herri eta herritarren izenen batzordeko lanak bultzatzea. 4. Etxegintza hiztegiaren batzordea bultzatzea. 5. Lege gizonek behar duten hiztegiñoaren batzordeari eragitea. 6. Euskaltzaindiarentzat legezko nortasun osoa hornitzeko eman behar diren urratsak begiratzea. 7. Euskaltzaindiko biblioteka apailatzea eta behar den itxuran jartzea. 8. Arautegi berriak osagarri bezala eskatzen dituen barne erregelak egitea. 9. Eskola hiztegiaren lanak aurrera eramatea. 10. "Euskal Izendegia" Juzgaduetan sartzeta. 11. Baionan Euskaltzaindiaren Ordezkaritza bat jartzeko asmoa zertan den jakin eta, ahal bada, asmo hori aurrera eramatea. 12. Gure elkargoarentzat autofinanziazio bide bat bilatzeko kezka eta lanei bultzatzea. Obra hauek gaur egun zein egoeratan dauden laburki eman du eta bai bakoitza bultzatzeko egin behar dena aditzera eman ere. Eta horiez gainera beste zenbait gauza azaletik aipatu ditu egin beharren arteko.

Egin beharren arteko, Iturri bertsolariari laguntzeko, Gernikan bertan bertsolari saio bat egitea komeni dala agertu da. Honetarako bete beharrak lehenbait-lehen hasiaz.

#### d) 1973. URTEKO EGITARAUA:

Idazkari-ordeak helduden urteko batzarren programazioa irakurri du — batzar arrunt eta bereziak—, non eta noiz egingo diren. Oroigarrien artean honako hauek datoz: Sabandoko Gamiz-en berrehunurtegarrena, Lekeitioko Eusebio M.<sup>a</sup> Azkueren ehungarrena eta datorren hilean Elgoibarren ospatzeko den Urruzunoren berrogetamargarrena. Horrez gainera Mondragoeko udaletxea antolatzekotan den euskal astean beste bilera berezi bat. Baita ere esan zen Euskaltzaindiko batzar bat San Millán de la Cogolla-n egin beharko litzakela, euskal testurik zaharrenak hangoak direnez gero. Eta, orduan, behar bada Instituto de Estudios Riojanos-koekin har-emanean egin genezakela.

Gamizen oroigarrikkoa Gasteizko Ordezkaritzako bulegoan apirilaren 27an egingo litzake. J. Goikoetxea-Maiza jaunak Gamizi eta bere laneri buruzko hitzalditxo bat gertatuko luke.

#### e) URRUZUNO ZENARI OMENALDIA ELGOIBARREN:

Idazkariak ematen du Ongarri elkartekoek antolatu duten programaren berri, Pedro Migel Urruzuno Euskaltzaindiko urgazle zenaren gorasarrez, bere heriotzaren 50. urte buruan. Urtarrilaren 17tik 28ra zenbait hitzaldi eta jaialdi izango dira, eta hauen artean, 28an, goizeko hamaika t'erdietan Euskaltzaindiaren hileroko batzarra Udaletzeko salan, eta hamabi t'erdietan, toki berean, irakasle tituloak ematea eta ondorean hiru hitzaldi labur: A. Arruek, *Urruzunoren aroa*; A. Zabalak, *Urruzuno euskal idazle*; eta Etxaniz Urruzunok, *Nere osaba, gizon bezala*. Bukatzeko, Ongarrikoak antolatu duten "Urruzuno ipui saria"ren irabazlea jakinaraziko dute.

Programaren barnean kasetalarien mahai-biribila ere izango da, eta

honetarako Euskaltzaindiaren babesa nahi dute, euskal literaturarekin zer ikusia duan aldetik. Ontzat hartu da.

f) *DENDA IZENDEGIZKO TXOSTENA:*

Kintanak irakurri du denda izendegiaren lehen partea. Lehendabizi, galdereri nortzuk erantzun zien; erantzun hoiek zelako kriterioz begiratu diren, duda-mudakoak soilik alde batera utzirik eta gainerakoak ontzat harturik. Ondorean, izenak banan-bana irakurtzen dira, alfabetaren ordenaz, M letrara arte, eta, gai hau gehiegi luzatuaz doanez, gainerakoa datorren bilerarako uzten da.

Azkenik, lehen parteko har-emanetan erabili diren gai bi ikutu dira. Euskara batuari buruz Euskaltzainburuak agiri ofizial bat egitea erabagi da. Eta "Agur"en zuzendariari agerraldi bat egitea.

Ohi den otoitzarekin bukatu da batzarra.

"Euskera" aldizkarian argitaratzeko.

*Euskaltzainburua*  
LUIS VILLASANTE

*Idazkaria*  
JUAN SAN MARTIN



**B E R R I A K**



## **Aita Iratzeder, Belokeko Abade**

Aita Xavier Diharce "Iratzeder", Belokeko Abade berria izendatu dute. Abade berriaren bedeinkazioko meza 1972ko martxoaren 21ean ospatu zen. Jendetza handia bildu zen egun hartan Ipar-Euskalerriko monasterio famatuan, bi Euskalerrietarik bildutako adiskide multzoa. Euskaltzaindiaren izenean han izan ziren euskaltzainburua, buru-ordea, idazkari-ordea eta gure elkargoako beste zenbait batzarkide.

Euskeraren alde Belokeko etxeak eta bereziki Aita Iratzeder-ek eginak dituzten lanak guztiek ezagutzen eta aitortzen dute. Euskaltzain osoa dugu Aita Iratzeder, eta Belokeko monasterioan berean sarrera-hitzaldia egina. Zorionak opa dizkiogu bere kargu berrian!

\* \* \*

## **Julio de Urquijoren Omenez**

Julio de Urquijo jaunaren jaiotzako ehun urteburua gogoratuaz, zenbait ospaketa egin dira 1971 eta 1972. urtean. Donostiako Euskal Mintegiak hiru hitzaldi eratu zituen A. Tovar, L. Villasante eta J. Caro Baroja hizlari zirelarik. Mintegi horrek agertzen duen urtekariak gero zenbaki berezia eskeini du jaun honen omenez. Baita Bilbon ere, Bizkaiko Diputazioaren liburutegian, itzalaldiak izan ziren, "Sociedad de Amigos del País" elkarteak eraturik, Luis Mitxelena eta Jean Haritschelhar jaunak mintzatzaile zirela. Euskaltzainburu jaunak agertu duen saiakera ere (*Axular: Mendea, Gizona, Liburua*), Julio de Urquijo jaunari eskeinia dago, euskal estudioek eta bareziki Axular-i buruzkoek jaun honi zor diotenaren ezagutzaz. Bestelako orri eta aldizkarietan ere lanak eta artikuluak agertu dira.

## **Euskaltzaindiaren literatura sariak**

### **"TXOMIN AGIRRE" NOBELA SARIAK**

1958an sortu zen "Txomin Agirre" izeneko nobela saria, bi urterik behin emateko euskarazko nobelarik hoberenari, Bizkaiko Aurrezki Kutxaren diruz.

Orain arteko irabazle eta lanak:

1958 — Eusebio Erkiaga, *Araibar zalduna*.

1961 — Eusebio Erkiaga, *Batetik bestera*. (Erabagiaren faltaz, 1960.

etik atzeratua izan zen).

1962 — Yon Etxaide, *Gorrotoa lege*.

1964 — Dominique Peillen, *Itzal gorria*.

1968 — Jose Luis Alvarez Enparantza, *Elsa Scheelen*.

— Bizkaiko Aurrezki Kutxak, 1971ean bere sorreraren urre-eztaiak beteko zituelako, sariketa berezi baten asmoz geroagorako uzten da.

1972 — Mikel Zarate, *Haurgintza minetan*.

### “TORIBIO ALZAGA” ANTZERKI SARIAK

Antzerki sari hau “Txomin Agirre” nobela sariarekin batean sortu zen, bi urtetik behin egiteko, baina 1961 era arte ez zen hasi. Hau ere Bizkaiko Aurrezki Kutxaren diruz.

Orain arteko irabazle eta lanak:

1961 — Gabriel Aresti, *Mugaldeko herrian eginikako tobera*.

1963 — Agustín Zubikaray, *Iru alaba*.

1965 — Jacinto Carrasquedo, *Laratzean sua*.

1967 — Agustín Zubikaray, *Gizon on eta andre erre?*

1969 — Agustín Zubikaray, *Mendu-zaharrak*.

1970 — Euskaltzaindiaren urre-eztaiak zirelako, 1969rako, haurrentzako antzerkien sariketa berezia egin zen, “Toribio Alzaga”ren izenean; baina, sariketaren erabakia urte bete atzeratu zen (1970era arte). Lehen saria lan biren artean zatitu zen: Maria Lourdes Iriondo-ren *Martin Arotza* eta Estanislao Urruzola-ren *Iñakitxoren altzorra*.

### “LIZARDI” POESIA SARIAK

1961ean sortua, “Xenpelar” bertso-paper sariarekin batean. Urterokoa da eta Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialaren diruz egiten dena.

Orain arteko irabazle eta lanak:

1961 — Nikolas Ormaetxea “Orixe”, *Lau urtaroak nere begietan*.

1962 — Antonio Bilbao Monasterio, *Irribarre ta lore*.

1964 — Antonio Bilbao Monasterio, *Loraen zugatza*.

1965 — Gabriel Aresti, *Euskal harria*.

1966 — Ibon Sarasola, *Ez bat, ez bi, ez ...*

1967 — Hutsean laga zen (desierto), presentatu ziren lanak saririk merezi ez zutelako.

1968 — Ez zen lanik presentatu.

1969 — Ez zen lanik presentatu.

1970 — Ez zen lanik presentatu.

1971 — Ez zen lanik presentatu.

### “XENPELAR” BERTSO-PAPER SARIAK

1961ean sortua, “Lizardi” poesia sariarekin batean. Urterokoa da, baina ez zen hasi 1962ra arte. Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialaren diru laguntzarekin.

Orain arteko irabazle eta lanak:

- 1962 — Jesus Lete “Ibai-ertz”, *Pepita-ri*.
- 1963 — Guillermo Albizu, *Txarrikume bati*.
- 1964 — Jose M.<sup>a</sup> Lertxundi “Argin”, *Asto bati*.
- 1965 — Manuel Matxain, *Salvatore Mitxelena zanari*.
- 1966 — Inoxenzio Olea, *Nere jaiotetxea*.
- 1967 — Manuel Matxain, *Aita Salvatore Mitxelenari*.
- 1968 — Manuel Matxain, *Che Guevara-ri*.
- 1969 — Segundo Kalonje, *Bilintxi jarritano bertsoak*.
- 1970 — Inoxenzio Olea, *Hokandako apaizak*.
- 1971 — Joxe Aierbe, *Minbizia*.
- 1972 — Fernando Aire “Xalbador”, *Sortetxea*.

### EUSKALTZAINDIAK ANTOLATURIK EDO BERE LAGUNTZAZ EGIN DIREN SARIKETA BETZUK

1959 “Loramendi” *Fr. Joakin Bedoñakoaren gorasarrezko sariketak*:

Poesia: Gabriel Aresti, *Maldan behera*.

Itz-lauz Luis Jauregi “Jautarkol”, *Bere poesiaren eta garaiaren azterketa*.

Antzerkia: Eusebio Erkiaga, *Kanpaien atsekabez*.

(EUSKERA, V / 1960 /, 185-272 orr. argitaratu ziren lan hauek).

1963an, “Orixe”ren gorasarrez, poesia saria: G. Aresti, *Harri eta Herri*.

1964an, Ondarroan, Txomin Agirrerren gorasarrez egin ziren Lore-jaietan kolaboratu eta sariketak antolatu. Ikusi: EUSKERA, VIII-IX / 1963-64 /, 493 orr.

1967an, “Kirikiño”ren gorasarrez, ipui sariketa: Jose Antonio Letamendia, *Joxe Proletario*.

1969an, Arrasateko Caja Laboral Popular-en diruz, Euskaltzaindiaren urre-eztaiak zirela ta, jakintza gaiezko sariketa: *Kooperatibismoa eta arrantzalearen eragintza* (El cooperativismo y la promoción del arrantziale), euskaraz, gaiari buruzko estudioa. Lehen saria, Antonio Pérez Bilbao. 1970-1971 urteetan, aditz batuaren sari berezia “Hegosa”k jarritako diruz. Lehen saria, C. F. Krutwig.

1971an, Bizkaiko Aurrezki Kutxaren berrogetamargarren urte-buruan, gorako jarri dugunez, sariketa berezia “Literaturari buruzko saia-kera” gaitzat delarik. Lehen saria: Ibon Sarasola, *Euskal Literaturaren Historia*.

## Euskeraren egoera nafarroan (1)

Granadako Unibersidadetik heldu zaigu lan hau. Egilea, 1970ko udan ibilia da herriz herri eta bailaraz bailara (oinez gehienetan), Nafarroan barrena, euskera guti asko mintzo den lur eremu guztian, hizkuntza honen egoera zehatz-mehatz aztertu eta ikasteko. 145 herri edo leku ikus-tatu eta ikertu ditu pertsonalki, galderak eginez, gauzak bere begiz ikusiz eta bere belarritz entzunez; 20 lekuren berriak besteren bitartez jaso ditu (ikus 27. orr.).

Galdeketa eta bilakuntza hauek ez dira beti egiten errazak. Baziren ikertzailea halako susmo txarrez hartzen zutenak, eta susmo horiek de-segin behar. Erantzunak ez ziren beti zuzenak edo egia-tiak. Bati edo biri galdetzea ere ez izan aski. Gizarte-maila desberdinetako berri emaileri galdetu nahi ian die, gainera: jende ikasi eta ez ikasiri, apaiz, baserritar, herri sekretario, alkate, ta abar.

Euskerak gaur Nafarroan duen egoeraz kontu zehatza ematea ez da bat ere erraza. Oso egoera desberdinean aurkitzen bait da toki batetik bestera. Eta tokian tokiko egoera hori nola den ematea, izan da gure egi-learen asmoa. Toki batzuetan biziera mardula eta sendoa du euskerak, beste batzuetan hil-urren dago, beste batzuetan erdizkako bizimoldeaz bizi da. Eguzkialdeko partean (Erronkari, Saraitu, Orbaizeta, Auritze) asko edo erabat galdu da, mendebalekoan hobeki gorde eta irau du. Nolanahi ere, liburu haru eskuan duzula, egoera hori gaur nola den ikasten duzu. Makina bat xehetasun jakingarri ematen dizkitzu, gainera: zergatik galdu den toki batzuetan, gorde besteetan, t. a. Zenbatetarainokoa den, herri bakoitzean, euskeraren gizantasuna (lodia ala mehea) neurtzen dizu, bada, zehazki liburuak.

Erremedioak ere, etorkizunari begira, seinalatzen ditu. Bilinguismoa izango litzake erremedioa. Izan ere, arras eta zeharo euskaldun diren herriak, euskeraz baizik ez dakitenak, ez dira, ez, besteak baino hobe-kiago seguratuak, eta maiz ikusi da nola pasatu diren mutur batetik bes-tera: arras euskaldun izatetik arras erdaldun izatera, alegia. Euskaldun hutsak gaur egunean bere burua oso umezurtz ikusten bait du. Hori dela

---

(1) SANCHEZ CARRION. *El estado actual del vascuence en la provincia de Navarra* (1970). Factores de regresión. Relaciones de bilingüismo. Institución Príncipe de Viana. Diputación Foral de Navarra.

eta, ahal duen bezain laster bizitzarako behar duen tresnaz jabetu nahi izatea ez da harritzekoa; eta batzuetan euskera gaitzetsi eta gorrotatzearaino ere heltzen da.

Beste aldetik bada adin bat bilinguismoarako gai ez dena. Horregatik, lehen urratsak, eskolan, haurrari —haur euskaldunari— euskeraz eman beharko zaizkio, eta gero euskeraren bidez bigarren hizkuntza —erdera— irakatsi, eta ongi irakatsi, gainera, behar duenean hortaz ere balia dadin.

Kontzientziazio lana ere egin beharra dago. PREJUICIO edo aurreiritzi makur asko salatu eta aizatu beharra (politikazkoak dira horietan ugarienak eta kaltegarrienak). Eta herri baten hizkuntza zein estimagarri den irakatsi beharra. Jakintsuak eta kulturadunak badu gehienetan balio horren kontzientzia. Ezjakinak, ordea, ez.

Kultura bide guztiak erderaren eskuetan baldin badira, nekeza da euskeraren balio hori ezjakinari sinestaraztea. Eskola, prensa, arradio, telebista, liburu: tresna guzti horiezaz baliatu beharra du euskerak.

Nafarroaren patu txarra izan da —hala dio gure egileak (207. orr.)— nafar euskaldunen artean kulturaldun gizon anitz ez egona; euskera eta kulturaren eskasia elkarrekin elkaturik maiz joan direla, alegia.

Bilinguismoa proposatzen du erremedio bezala, esan dugu. Bai. Euskaldunak gaurko egunean jakin behar du erderaz ere, eta ongi jakin, gainera, beharrezko duenean erabiltzeko. Eta kultura, bi mintzabide horietarik, eta ez batetik —erderatik— bakarrik etor dakiola egin behar dugu (205. orr.). Orain arte euskera baserri eta nekazari hizkuntza izan baldin bada soilki, etorkizunean hirikoa ere izan beharko du.

Baina ez du uste gure autoreak nolanhiko bilinguismoak euskera salbatuko duela. Honetan Estornes Lasaren iritzitik aldentzen da (197. orr.). Bilinguismoa ez da gizonaren egoera normala, eta are gutiago herri batena. Bizitza guztian zehar bi hizkuntzok elkarrekiko burrukan eta har-emanean aritzen badira, gutxika-gutxika bistan da zein aterako den gailen: erdera. Eta euskera erkindua edo zokoratua geldituko litzake.

Ez. Euskera biziko bada, giro bat muntatu beharra dago erabat euskalduna. Euskaldunak beharko du erderaz jakin, behar duenean erabiltzeko; baina eguneroko bizitza eta arazoetan horren beharrik ez luken bezalako giroa nahi litzake. Giro euskaldun horrek bakarrik segurta lezake euskeraren bizitza.

“LEKUTAN GATXEOK!”, esango du hemen irakurleak. Bai, hala da. Baina xedea, helburua zein den garbi ikustea, hori da lehen. Helburua zein den jakin ondoren, harako bideak bila edo eska daitezke.

Euskaldun, euskalari eta euskaltzaleon eskerrona merezi du Sánchez Carrión jaunak lan tresna baliotsu hau paratu digulako. Eta bai liburua argitaratu duen PRINCIPE DE VIANA elkargoak ere.

Aita L. VILLASANTE

(“Aranzazu” aldizkaria azaroa 1972).

## Udako ikastaldia arantzazun

Aurtengo udan Ipar-Amerikako Unibersitario talde bat izan dugu Arantzazun ikastaro bat egiten. Hilabete osoko ikastaroa, alegia. (Hobeki esateko, Ustaritzen hiru aste eta hemen lau egin dituzte). Reno-ko Unibersidadea izan da ikastaro honen antolatzailea; Boise-koak ere asko lagundu du asmo hau aurrera eramateko. Antropologia, Kondaira, Literatura, Linguistika eta euskera kursoak izan dituzte. Dena Euskal Herriari buruz. Irakasleak ere halakoxeak ziren, hots, izen handikoak: Rudolf de Rijk, William A. Douglas, Jon Bilbao, Eloy L. Placer, L. Michelena, J. Oñatibia, J. Basterrechea, Robert Laxalt.

Ikasleak, berriz, 34 izan dira guztira. Gehienak, euskaldunak jatorriz: Ipar-Amerikara artzain bezala joandako euskaldunen endorengoak. Aski da beronen abizenak aipatzea: Chacartegui, Rementeria, Echandi, Echart, Garatea, Iriberry, Urza, Bilbao, Zaragoza, Gaztañaga... Haatik, denak ez ziren euskaldun jatorrikoak. Nazio eta etorki askotako jendea bildu da hoiekin batean: Bieter, Sita, Herbert, Saxon, ta abar. Euskaldun bat ere bazen, Japoi eta Usa-ko beka baten jabe dena: Bereikua.

Bidezko zirudian ikasle-irakasle hauei agur bat egitea, eta hala egin zien Euskaltzaindiko talde batek. Eta agur eginez batera, gure esku arteko lan eta asmoen berri eman zien. Ondoren, galde-erantzunak izan ziren elkarren artean.

Hona hemen Euskaltzaindiko buruaren agur hitzak.

*Euskaltzainburuaren agurra*

Jaun-Andreak:

Egun on guztioi.

Benetan pozgarria zaigula zuen euskal zaletasuna eta euskeraz ikas nahia: horixe da nik gaur barru-barrutik agertu nahi dizutedana. Bai. Bihotz bihotzetik zorionak eta eskerrak eman nahi dizkitzuet, neure izenean, Euskaltzaindiaren ienean eta Euskal Herri zahar honen izenean.



Ikasbide eta jarraibide ederra euskaldunoi ematen diguzutena! Bati baino gehiagori entzun izan diot egun hauetantxe: Zer da hau? Guk euskera bertan behera uzten eta ahaztutzen ari geran bitartean, nortzuk eta atzerritarrek datozkigu ikastera? Ez da beraz euskera guk uste genduen bezain arlotea...

Zuetako batzuek, Ipar-Ameriketara joandako euskaldun artzaien ondorengoak izanik, zuen jatorriaz eta gurasoen herriaz maitasunezko lokarriak sendotu nahiz zabiltzate. Beste batzuek Linguistikako zeuen eskolan euskeraganako tiratuak izan zerate. Izan ere, Europa zaharrean bakarti eta nortasun bereziz apaindurik ageri den mintzaira honek badu bere baitan barrena halako liluramen eta erakarmen indarra, burdinbi-ziaren parekoa.

Bejondeizuela denoi, ikasle eta irakasleoi!

Agur bihotzetiko bat guztioi! Eskerrak eta zorionak! Eta segi aurrera bide hortatik, gogo beroz eta amore biziz!

Bide batez, gure Euskaltzaindiari buruz berri zenbait ematera nator-kizue. Gure asmoak, esku artean darabilzkgigun lanak eta abar kontatzera. Zoritxarrez, nik ez dakit ingelesez, eta *interprete* beharrean izango gera. Euskaltzaindiaren sorreraz, izaeraz eta egikizun handi larriez izango dira ene hitzak.

Eta nik neure azalpena bukatutakoan, elkarri galderak egiteko aukera izango da. Ia benetazko elkar hizketa jator bat sortzen dugun guztion artean. Ikastaro honen aldia baino iraunkorragoa izango den elkar hizketa, alegia. Halaxe nahi genduke. ("Aránzazu" aldizkaritik, 1972, 257).

## Hil berriak

ANTOINETTE LACARRA (1893-1970)

Donibane-Lohizunen (Lapurdin) sortua zen eta hiri huntan berean bere bizi guzia iragana.

Bi amodio izan zituen bere bizian: Eliza eta Euskal-herria.

Hamasei urte zituelarik eskola katolikoetan eskola ematen hasi zen Donibanen berean, "S. Joseph" ikastolan, eta lan egin du 61 urtez, orok miresten zutelarik haren irakaste-dohaina.

Bere azkenengo urte batzuetan Ziburuko "Ecole menagère" ikastegian ere ari zen irakasten.

Euskera maite zuen eta ederki zerabilan.

Euskal teatro, kantu eta holakoetan Elise Arramendi zena bere kon-teuiluz laguntzen zuen.

Euskerazko katixima berak erakatsi zuen azkeneraino.

Euskeraren erakasteko egina zuen "método" bat, eta hainitzi bai ba-karka, bai multzoka ezagutarazi deie gure mintzaira.

Duela hamar bat urte "Berialek" ideki zuten euskerazko ikastola eta Antoinette Lacarra hartu eskola-emailetzat. Azkenengo bi urtetan,

eri izanez ez bartzen aise ibiltzen, ikasleak autoan joaiten zitzaizkon bila eta horrela jarraituz ahal zitzaion bere lanari.

Ongi idazten zuen euskeraz, baina ez dut uste libururik ager-arazi duen. Dakiguna da, Donibaneko apez batek erdaraz idatzi igandeko predikua Lacarra andereñoak ematen ziola euskera garbi errexean.

"Método" bat bazuela erran baitugu, haren argitaratzerat sustatzen zuten adixkidek, baina heriotzeak goizegi jo zuen, frango hiski. Kafearen hartzeko, bera eta bere koñadua mahain ondoan zirelarik, gazaren lurrinak pozoinatuta hilak atzeman zituzten, 1970-eko abendoaren 21-ean.

P. L.

### JON MIRANDE AYPHASORHO (1925-1972)

1972ko abenduaren 28an hil zen Jon Mirande, Paris-en. Hiri honetan sortua zen 1925eko urrilaren 10ean, guraso zuberotarrengandik.

Euskal idazle ospetsua, eta batez ere poeta handia. Euskaltzaindiaren laguntzailea. Paris-ko Unibersidadean estudiantu zituen Eskubidetza eta Linguistika. Anitz hizkuntza eta euskararen dialektoak ikasiak zituen.

Bere lanik gehienak poesiak, ipuinak eta saiakerak ziren eta aldizkari hauetan sakabanaturik gelditzen zaizkigu: "Gernika", "Euzko-gogoa", "Elgar", "Egan" eta "Igela". *Haur besoetakoa* (Donostia, 1970) izeneko nobela laburra dugu argitara eman zigun liburu bakarra.

Hortik aparte, lan asko euskaratu zituen, batez ere frantsezetik eta inglesetik, Nietzsche, Allan Poe, H. H. Munro eta abar.

Idazle bakan honek ipuin beltzak zituen gogoko eta era honetakoak lehen aldiz ekarri zituen euskal literaturara. Poesian berriz, era berrien hazi ereintzaie zela esan genezake, formak eta esateko erak zuten garrantzia erakutsi zigun, gai biziak hartuaz. Egungo poesia berriaren hasierako eragintza berari zor diogu.

Euskal-Herriaz ideia bereziak zituen, "Gernika" aldizkariaren 23 eta 25 zenbakietan agertu zituen, eta emendik sortu zit zaizkion etsai eta nahigaberik gehienak. Izakerazko pesimismo baten menpean bizi zan eta, gure herriari ez-ezik, bere buruari ere etsia bizitzen.

Bizitza sufrikario izan zitzaion gizonak heriotzan aurkitu dezala bakea.

J. S. M.

### AMERICO CASTRO (1885-1972)

1972ko uztailaren 25 ean, Gerona-ko Lloret del Mar-en hil zen Américo Castro. Euskaltzaindiaren laguntzaile zen 1930etik.

